

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKAK EUROPAR BATASUNEAN ETA EAE-N



2012ko ekaina



AURKIBIDEA

1. Sarrera: helburuak eta metodologia	3
2. Familiei laguntzeko politiken garrantzi berria	7
2.1. Gizarte arloan inbertitzen duen estatua: gizarte-politikak zehazteko paradigma berri bat?	7
2.2. Familietan inbertitzeko beharra	10
2.3. Haurrei laguntzeko politiken kostu-eraginkortasun erlazioa	13
3. EAEn familiei laguntzeko erabiltzen diren politikak, ikuspegi alderatu batetik	21
3.1. Sarrera	21
3.2. Familiei laguntzeko politiken gizarte-gastua	23
3.3. Seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoak	29
3.4. Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak	33
3.5. Beste laguntza batzuk	38
4. Ondorioak eta gomendioak	42
4.1. Ondorioak	42
4.2. Gomendioak	51
Bibliografia	53

1. SARRERA: HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Txosten honen helburua da testuinguruan jartzea Euskal Autonomia Erkidegoan familiei laguntzeko erabiltzen diren politikak, Europako beste herrialde batzuetan eta Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetan erabiltzen direnekin alderatuta. Alde horretatik, txostenak ahalik eta zehatzen azaltzen ditu zenbait herrialdetan eta autonomia-erkidegotan ematen diren prestazioak eta zerbitzuak –zenbait arrazoigatik paradigmaticotzat edo eredugarritzat jotzen diren herrialdeak eta autonomia-erkidegoak aukeratu dira–, eta gaur egun EAEn erabiltzen direnekin alderatzen ditu. Hartara, zehaztuko dugu zer neurritan hurbiltzen diren EAEn seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erabiltzen diren politikak herrialde eta autonomia-erkidego horietako eruedetara.

Txosten honetan, laburpen bat egiten saiatu gara. Hau da, gure asmoa ez da izan aztertutako herrialdeetan ematen diren prestazioak eta zerbitzuak zehatz-mehatz azaltzea, baizik eta herrialde bakoitzeko ereduaren funtsezko elementuak deskribatzea, EAEn familiei laguntzeko erabiltzen diren politikak testuinguru zabalago baten barruan ikusi ahal izateko. Horrez gain, erreferentzia egin diogu, modu teorikoagoan, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politikek ongizate-estatuaren formulazio berritzaileenetan hartu duten garrantziari, eta aztertu dugu gizarte-babeserako zer gastu erabiltzen den, aztertutako herrialde bakoitzean, familiei laguntzeko politiketarako.

Txostenak honako egitura hau dauka:

- Lehenengo zatian, sarreran, txostenaren helburuak eta metodologia adierazi dira.
- Bigarren zatian, ongizate-estatuaren barruan familiei laguntzeko politikak garrantzi handiagoa izan behar dutela defendatzen dutenen argudio teorikoak adierazi dira; hau da, gizarte-inbertsioaren estatua defendatzen dutenen argudioak. Alde horretatik, azaldu da zer argudio erabiltzen dituzten uste dutenek familiei laguntzeko politiketan egiten den gastua inbertsiotzat hartu behar dela, gizarte-politiken beste alor batzuek baino eraginkortasun handiagoa lortzen duelako eta itzulkin-tasa handiak dituelako. Aurrerago aipatuko dugun moduan, egile horien arabera, familiei laguntzeko politikak indartzea da ongizate-estatuaren hurbilketa berriaren ardatz nagusietako bat; izan ere, hurbilketa berri horrek askoz gehiago hartzen ditu kontuan eraginkortasuna, inbertsio produktiboa eta aukera-berdintasuna.
- Txostenaren hirugarren zatian, zehatz-mehatz aztertu dira EAEn familiei laguntzeko erabiltzen diren politikak, eta, horretarako, zenbait konparazio egin dira:
 - Lehenik eta behin, gastua alderatu da, abiapuntutzat hartuta EUSTATen Gizarte Babesaren Kontuan EAEn buruz adierazitako estatistikak eta EUROSTATEk Europar Batasuneko herrialdeei buruz adierazitakoak. Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzaren aurrekoan egiten den gastuari buruzko informazioa ere agertzen da kapitulu horretan, EUSTATen Hezkuntzaren Kontutik eta EUROSTATEk Europako hezkuntza-gastuei buruz egindako estatistiketatik abiatuta.
 - Bigarrenik, aztertutako herrialdeetan ematen diren zerbitzuen eta prestazioen edukia deskribatu da, politika horien norainokoa eta intentsitatea Euskadiko politikenekin alderatu ahal izateko.
- Txostenaren azkeneko zatian, konparazio horretatik lortutako oinarrizko emaitzak laburbildu dira, eta, lortutako ondorioen arabera, gomendio orokor batzuk egin dira.
- Amaieran, eranskin bat dago, eta zehatz-mehatz jasotzen ditu azterketa honetan familiei laguntzeko politiken gastuari buruz lortutako datu nagusiak.

Txostena egiteko, honako metodologia hau erabili da:

- Bigarren kapituluari jasotako hausnarketa teorikoa egiteko, gaiari buruz idatzitako lan zientifikoak berrikusi dira. Dokumentuak bilatzeko eta aztertzeko, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Datu Base Bibliografikora jo da.
- Datu ekonomikoak aztertzeko, EUSTATen Gizarte Babesaren Kontuko estatistikak hartu dira nagusiki kontuan EAerako, eta EUROSTATen ESSPROS estatistikak, Europar Batasunerako. Bi estatistikek metodologia bera erabiltzen dute, eta, beraz, haietan lortutako datuak konparagarriak dira. Honako hauek ere erabili dira: gizarte-gastu publikoari buruzko ELGaren datu-basea; Nafarroako Gobernuak eta Kataluniako Generalitatek gizarte-babesaren gastuari buruz argitaratutako estatistikak; eta, aurrez aipatu dugun moduan, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzaren aurrekoan egiten den gastuari buruzko informazioa, EUSTATen Hezkuntzaren Kontutik eta EUROSTATEk Europako hezkuntza-gastuei buruz egindako estatistiketatik abiatuta.
- Familiei laguntzeko prestazioak deskribatzeko, Gizarte Babesari buruzko Informazioa Elkarri Jakinarazteko Europar Batasunaren Sistema (MISSOC) erabili da nagusiki, informazio zehatza ematen baitu Europar Batasunean eta Islandian, Liechtensteinen, Norvegian eta Suitzan gizarte-babeserako erabiltzen diren politikei buruz. Europako Kontseiluak familia-politikei buruz ematen duen informazioa eta zenbait dokumentu monografiko ere erabili dira, eta aztertutako laguntzak kudeatzen dituzten erakundeen web orrietara jo da.

EAE zer herrialderekin eta autonomia-erkidegorekin alderatuko den aukeratzeko, honako irizpide hauek erabili dira:

- Europako herrialdeen kasuan, herrialde bat aukeratu da, ongizate-eredu hauetako bakoitzarekin lotuta: Italia, herrialde mediterraneo gisa; Alemania, Europaren erdialdeko herrialde gisa; eta Suedia, herrialde eskandinaviar gisa. Horiez gain, familiei laguntzeko politikak oso garatuta dituzten bi herrialde gehitu dira: Frantzia eta Norvegia. Ez dira gehitu, Europako gizarte-politiken esparruan pisu gutxi izateagatik, eredu anglosaxoiaren ordezkarietat har daitezkeen herrialdeak (batez ere, Erresuma Batua).
- Autonomia-erkidegoen kasuan, EAetik hurbil dagoen eta haren antzeko finantziario-esparrua duen autonomia-erkidego baten informazioa eman nahi izan dugu (Nafarroako Foru Erkidegoa), bai eta biztanle ugari dituzten eta, EAeren moduan, Estatuko batez bestekoaren gainetik dagoen garapen ekonomikoa duten bi autonomia-erkidegoren ere (Katalunia eta Madril). Kataluniaren eta Nafarroaren kasuan, kontuan hartu dugu, gainera, ESSPROS metodologiaren bidez lortutako datu estatistikoak dituztela gizarte-babeserako gastuari buruz.

Txostenaren ondorioak ulertu ahal izateko, beharrezkoa da azpimarratzea kontsultatutako iturriek seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politiketan sartzen dutena bakarrik jasotzen duela bildutako informazioak. Hau da, ez dira kontuan hartzen familien bizi-kalitatean zuzenean eragiten duten zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak –hezkuntza (Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntzaren aurrekoa¹ izan ezik), etxebizitza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, diru-sarrerak bermatzeko prestazioak...-. Gainera, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politika espezifikoetan, zuzeneko prestazio ekonomikoak hartu dira kontuan nagusiki, zuzeneko arretaren zerbitzuei buruzko informazioa sakabanatuago dagoelako eta ez delako horren erraz eskuratzen.

¹ Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntzaren aurreko hezkuntza derrigorrezko eskolatzearen aurretik egiten dena da, eta hezkuntzako estatistiketan ISCED 0 epigrafean sartzen da. Txosten honetan sartu dugu, haurrei arreta emateko eta familia eta lana bateragarri egiteko tresna bat delako, haurtzaindegiekin batera.

2. FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKEN GARRANTZI BERRIA

2.1. Gizarte-inbertsioaren estatua: gizarte-politikak zehazteko paradigma berri bat?

Ongizate-estatuak hainbat erreforma izan ditu hasiera-hasieratik, bai behar eta egitura sozial eta ekonomikoen aldaketetara egokitzeko, bai eta joera politiko eta ideologikoen aldaketetara egokitzeko ere. 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera eta, bereziki, XXI. mendeko lehenengo urteetatik aurrera, ikuspegi berri bat garatu da, batez ere Europan. Askoren ustez, ikuspegi horrek paradigma-aldaketa bat dakar gizarte-ongizatearen politiken definizioan, eta, aurrerago aipatuko dugun moduan, oinarritzko aldaketa bat eragingo du seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politiketan, garrantzi berri edo handiagoa emango baitie gizarte-babeserako politiken barruan.

Ikuspegi berri horri zenbait izen jarri bazaizkio ere –liberalismo barne-hartzailea, estatu gaitzailea, gizarte-inbertsioko estatua...–, azkeneko urteetan gizarte arloan inbertitzen duen ongizate-estatu (*social investment welfare state*) terminoa finkatu da, ikuspegia definitzeko. Morel, Palier eta Palme (2012) egileek adierazi duten moduan, ikuspegi horren ezaugarri

nagusia da prestatzera bideratutako politiketan jartzen duela enfasia konpontzera bideratutako politiketan baino gehiago (*preparing rather than repairing*). Egile horien arabera, gizarte-inbertsioaren ikuspegiak oinarri hauek ditu: giza kapitalaren garapena bultzatzen duten politikak egitea (haurren zaintza eta hezkuntza goiztiarra, bizitza osoko prestakuntza...) eta kapital hori modu eraginkorrean aprobetxatzea (malgutasuna eta segurtasuna uztartzea bultzatzen duten politiken bidez); adibidez, gizarteratze-maila handiagoak lortzea, batez ere tradizionalki lan-merkatutik kanpo egon diren taldeak lan-merkatuan sartuz². Nolanahi ere, ikuspegi horren bereizgarrietako bat da gizarte-politikak elementu produktibotzat hartzen dituela, funtsezkoak direlako ekonomia garatzeko eta enplegua hazteko. Horrek erabat aldatzen du gizarte-politikak zama ekonomikotzat eta hazteko oztopotzat hartzeko ideia.

Gosta Esping-Andersen egileak (2002) adierazi duenez, gizarte arloan inbertitzen duen ongizate-estatuaren azpian *gizarte-politika produktibo* kontzeptua dago; hau da, berdintasuna eta eraginkortasuna uztartzea, askotan kontrakotzat edo antagonikotzat jo izan badira ere. Nolanahi ere, egile horren arabera, berdintasuna, eraginkortasunarekin bateragarria izateaz gain, eraginkortasun hori optimizatzeko beharrezkoa ere bada: “erosteko ahalmena modu orekatuagoan banatzea errendimendu makroekonomikorako aurrebaldintza bat da; familiei laguntzeko politikekin, etorkizuneko giza kapitalean inbertitzen da; baliabideak (adibidez, osasuna eta hezkuntza) eskuratzeko aukerak berdinuz, lan-produktibitate ezin hobea lortzen da”. Beraz, badirudi gizarte-politika produktiboaren ikuspegia gai dela, batetik, norberaren segurtasunaren eta gizarte-elkartasunaren arteko tirabira konpontzeko, eta, bestetik, eraginkortasun ekonomikoaren interes kolektiboaren eta norberak produkzioan parte hartzearen artekoa konpontzeko. Eskubideen logika eta erantzukizunen logika uztartzea lortuko luke horrela.

Hortaz, eredu berri horretan, ongizate-estatuaren funtzionamendua askoz eraginkorragoa izango litzateke, epe ertain eta luzera errentagarriagoak edo kostuaren aldetik eraginkorragoak diren alorretara bideratuko lukeelako gastua, eta prebentzio-eragin handiagoa edukiko lukeelako. Horrek eskatuko luke, alde batetik, gizarte-gastuaren lehentasunak berrantolatzea, eta, bestetik, ahalegin handiagoa egitea gizarte-babeserako programa publikoen emaitzak frogatzeko, efikaziaren nahiz efizientiaren aldetik.

Morel, Palier eta Palme (2012) eta Esping-Andersen (2002) egileen ustez, adibidez, Gunnar eta Alva Myrdalek joan den mendeko 30eko hamarkadan egindako postulatuetan daude ikuspegi

² Alde horretatik, pentsa daiteke ikuspegiak lotura zuzena duela Europar Batasuneko herrialde gehienetan, ikuspegi eta kutsu desberdinekin bada ere, diru-sarrerak bermatzeko prestazioen alorrean egiten den laneratze aktiboaren paradigmarekin (SIIS, 2011).

horren aurrekariak. Gunnar eta Alva Myrdal bikote suediar bat ziren, eta pentsalari sozialdemokratak ziren biak. Alva Myrdalek Bakearen Nobel Saria irabazi zuen, eta Gunnar Myrdalek, berriz, Ekonomiako Nobel Saria. Haiek sortu zuten *gizarte-politika produktibo* kontzeptua. Kontzeptu horren bidez, gizarte-politikak ekoizpenaren antolaketa eraginkorrago baterantz eta ugalketarantz bideratzeko beharra defendatzen zuten, eta defendatzen zuten gizarte-politikak inbertsio gisa ikusi behar zirela, eta ez gastu gisa. Beraz, aurrerago ikusiko dugun moduan, erreferentzia horrek lotura zuzena du familiei laguntzeko politikekin (jaiotza-tasarekin lotura nabarmena duen ikuspegi batetik) eta genero-berdintasunarekin.

Morel, Palier eta Palme (2012) egileek diotenez, gizarte-inbertsioaren estatuaren jatorrizko ikuspegia bat dator, neurri handi batean, ongizate-estatu klasikoaren planteamendu keynesiarrekin, nahiz eta aldaketa handi batzuk egiten dizkion eredu horri eta ikuspegi neoliberaletik egin zitzaizkion kritika batzuk gehitzen dituen. Ikuspegi horretatik, gizarte-inbertsioaren estatuaren ereduak apustu handiagoa egiten du emakumeak lan-merkatuan sartzearen alde eta genero-berdintasunaren alde –ongizate-estatu klasikoa familia tradizionalen eta *male breadwinner model* ereduaren oinarritzen da gehiago–, bai eta gizarte-politiken ikusmolde aktiboagoa izatearen alde ere –gizarte-babesaren eredu klasikoak izaera pasiboa du–. Egile horien ustez, ikuspegi neoliberaletik pentsa daiteke gizarte-inbertsioaren estatuan beharrezkoa dela kontuan hartzea gizarte-politikek epe ertain eta luzera dituzten efektuak, eta ez berehalako efektuak soilik, eta beharrezkoa dela, halaber, garrantzia ematea lan-merkatuan sartzen laguntzeari eta lana sustatzeari.

Egile horien ustez, gizarte-inbertsioaren estatuak ongizate-estatu klasikoa modernizatzen du, gizarteko behar eta arrisku berriei hobeto erantzuteko. Hartara, gizarte-zerbitzuen iraunkortasuna bermatzen du, eta haien funtzio “produktiboa” bultzatzen du, enplegua eta hazkunde ekonomikoa sustatzen lagundu behar baitute. Modernizazio-ikuspegi horren ezaugarri nagusietako bat da gizarte-politikek balio behar dutela herritarrak “prestatzeko” eta egungo gizartean lan- eta familia-ezgonkortasun handiarekin lotutako arrisku batzuk prebenitzeko, bai eta pobrezia belaunaldi batetik bestera ahalik eta gutxien transmititzeko ere, eta ez behin aldaketak gertatu ondoren haien ondorioak diru-sarrerak bermatzeko prestazioen bidez “konpontzeko”. Alde horretatik, ikuspegi horiek bat datoz neoliberalismoarekin ideia batean: ongizate-estatuak lortu behar du herritarrek lana izatea eta ardurak hartzea, lan-merkatuan parte hartzearen bidez. Dena den, lan-merkatuan sartzera bultzatzeko ohiko planteamenduek ez bezala, gizarte-inbertsioaren estatuak kritikatu egiten du edozein lan familien ongizaterako positiboa izatearen ideia, eta defendatzen du beharrezkoa dela ongizate-estatuak –*making work*

pay edo enplegua errentagarri egiteko politiken ildotik– kalitateko lanpostuak sortzen laguntzea (Morel, Palier eta Palme, 2012).

2.2. Familietan inbertitzeko beharra

Gizarte-inbertsioaren estatuak dakarren ikuspegi-aldaketak gizarte-politiketako alor batean eragiten du nabarmen: familiei laguntzeko politikan. Izan ere, orain arte ez dira horren garrantzitsuak izan herrialde gehienetan, baina ikuspegi berriak garrantzi handia ematen die. Gizarte arloan inbertitzen duen estatuaren ardatza da haurren ongizatean inbertitzea, eta horren bidez familien ongizatean inbertitzea, haurren oinarritutako gizarte-inbertsioaren estrategia baten bidez (Esping-Andersen, 2002). Estrategia horren oinarrian dagoen ideia da berdintasun-ezean eta bazterketan eragina duten mekanismoek lehen haurtzaroan eta familiaren barruan jarduten dutela nagusiki. Beraz, birbanatzearekin, aukera-berdintasunarekin eta bazterketaren aurka borrokatzearekin lotutako politikak eraginkorrak izateko, beharrezkoa da garai eta eremu horretan jardutea.

Morganek (2012) adierazi duen moduan, lana eta familia bateragarri egiteko politikak dira gizarte-inbertsioaren estatuaren ardatz nagusietako bat. Hezkuntza goiztiarrarekin nahiz haurren zaintzarekin lotutako kalitatezko programek haurren garapen kognitiboan inbertitzen dute, bai eta amen lan-gaitasunetan ere, ordaindutako lanpostu bat eskuratzeko aukera ematen baitiete. Amen lanpostuak familiaren diru-sarrerak handitzen ditu, eta haurren pobrezia eta pobrezia horren epe luzeko ondorioak murrizten ditu. Gurasotasun-bajei esker eta lanaldia malgutzeari esker, amek lan-merkatuan sartzeko aukera handiagoa izaten dute, eta hurrek gurasoen zaintzak jaso ahal izaten dituzte denboraldi batean. Azkenik, haurrak zaintzeko eta Haur Hezkuntzako zerbitzuek lana ematen diete emakumei.

Familiarekin eta hurrekin lotutako politikei dagokienez, gizarte-inbertsioaren estatuak kezka hauek ditu nagusiki:

- Lana eta familia bateragarri egitea, eta, horretarako, emakumei lan-merkatuan sartu ahal izatea erraztea, eta gizarte-politikak egungo egoeretara egokitzea, gizona langile bakartzat eta emakumea zaintza-lanen arduraduntzat hartzen zituen eredua (*male breadwinner model*) pixkanaka-pixkanaka desagertzen ari da eta. Ikuspuntu horretatik, familia-politikak funtsezkoak izango lirateke Esping-Andersenek adierazitako *iraultza*

*amaitu gabea*³ osatzeko –egile horren ustez, berdintasun-eza areagotzen duen faktore bat da iraultza amaitu gabea–.

- Aukera-berdintasuna sustatzea haurren artean, eta pobrezia belaunaldi batetik bestera transmititzeko zikloa haustea. Hartara, haur guztiek garatu ahal izango dute ezagutzaren ekonomiarako behar den giza kapitala. Hori lortzeko modu bakarra da familiei laguntzeko neurriak hartzea eta haur guztiak barnean hartzen dituzten kalitatezko hezkuntza- eta zaintza-sistemak jartzea.

Esping-Andersen, Palier eta Morgan egileen ustez, familiei laguntzeko politikak balio handia dute Paretoren printzipioaren ikuspuntutik; hau da, haurrengan inbertitzeak, berdintasun handiagoa lortzeko balio izateaz gain, produktibitate handiagoa dakar, eta, beraz, alderdi guztiek irabazten dute eta ez du inork galtzen. Berdintasun handiagoa izateak produkzio-ahalmenaren mobilizazio eraginkorragoa dakar, bai eta garapen ekonomiko orokorra handiagoa izatea ere. Beraz, aukera-berdintasunen aldeko politika benetan eraginkorra izateko, beharrezkoa da haurrak kalitate handiko haurtzaindegietara eta eskolaurreko zentroetara joan ahal izatea, kontuan hartuta, Esping-Andersenek dioen moduan, ikasketaren oinarriak, bai eta berdintasunen jatorri nagusia ere, eskolaurreko garaian daudela. Gainera, haurren zaintza eskuratu ahal izateak amen lana ere baldintzatzen du –diru-sarrera positiboak ekar ditzakete horrela–, eta, beraz, haurren zaintza sustatzen duten neurriak bi aldetatik irabazten duen politika baten adibide garbia dira (Palier eta Esping-Andersen, 2010).

Egile horien ustez, etorkizunean gizarte produktiboa eta kohesionatua izan nahi badugu, egungo haurrek eta gazteek izan behar dute gure lehentasun politikoa: “Beharrezkoa da egungo haurretan inbertsio handi bat egitea, etorkizuneko helduen ongizatea lortzeko (...). Etorkizunera begiratzen badugu, argi dago egungo haurren baliabideetan inbertsio handi bat egitea dela estrategiarik eraginkorrena prebentzioaren ikuspuntutik. Egungo ongizate-estatu asko ez dira bide hori hartzen ari, eta, ez badute hartu duten bidea zuzentzen, garesti ordainduko dute etorkizunean”.

³ Termino horrek adierazten du emakumeak lan-merkatura sartuz joan direla, baina gizarte- eta ekoizpen-egiturak ez direla guztiz egokitu aldaketa horretara. Egilearen ustez, gizartearen goiko klaseek, zenbait arrazoigatik, aldaketa horren onurak jaso ahal izan dituzte, eta hazteko baldintza egokiak eman dizkiete beren ondorengoei, baina, beheko klaseetan, emakumea lan-merkatuan sartzeak ez ditu horren emaitza positiboak ekarri. Berdintasun-ezak areagotzen ari dira, eta familiek beren seme-alaben etorkizunean esku hartzeko duten gaitasunean ere berdintasun-eza gero eta handiagoa izango da. Gizarte-herentzia indartzen du horrek, gero eta gizarte-asimetria handiagoak baitaude, gaur egun, familiek seme-alabetan inbertitzeko erabiltzen duten moduan. Ikuspuntu horretatik, beharrezkoa da berehala amaitzea iraultza hori eta gizarte-politiken ikuspegia aldatzea, egungo egoerak berdintasun-eza eta polarizazioa sortzen ditu eta.

Ikuspuntu zehatzago batetik, honako hauek dira gizarte arloan inbertitzen duen ongizate-estatua defendatzen dutenek familiei eta/edo hurrei laguntzeko politiketan horrenbesteko enfasia jartzearen arrazoiak:

- Nahiz eta ez dagoen nahikoa frogatuta zer eragin duten familiei laguntzeko politikek herrialde bakoitzeko ugalkortasun-tasetan, argi dago alor horretan ahalegin handiena egin duten herrialdeek dituztela ugalkortasun-tasarik handienak. Ikuspuntu horretatik, behar-beharrezkoa da familiei laguntzeko eta lana eta familia bateragarri egiteko politika zabal eta eraginkorrek egitea, oreka demografikoa bermatzeko, eta, horren bidez, ongizate-estatuak epe ertain eta luzean iraungo duela bermatzeko.
- Ezagutzaren gizartean, pertsonen bizitzan zehar dituzten aukerak haurtzaroaren lehenengo urteetatik eskuratutako kapital kultural, sozial eta kognitiboaren mende daude gero eta gehiago. Ikuspegi horren defendatzaileen ustez, berdintasun-eraren modu nagusiak eta bazterketa-iturri nagusiak hortik datoz, hain zuzen; hau da, familiek beren seme-alabei bizitzako lehenengo urteetan testuinguru berri horretan beharrezko diren estimuluak eta ikasketak emateko gaitasun desberdinak izatetik. Esping-Andersen (2002) arabera, gaur egungo gizartean ere, iraganean bezala, aukerak gizarte-herentziaren baitan daude, eta ume-umetatik kalitatezko hezkuntza-zerbitzuak ematearen aldeko apustu sendo batek soilik konpentsa ditzake oraindik ere oso nabarmenak diren jatorriगतiko berdintasun-erak⁴.

Bestalde, haurren giza kapitalean inbertitzea *sine qua non* baldintza bat da ezagutzaren gizartearen beharretara egokitutako produkzio-sistema iraunkorra, eraginkorra eta lehiakorra izateko: “beren giza potentziala erabat aktibatzeke gai ez diren nazioak, ziur asko, atzean geratuko dira produktibitatearen lasterketan” dio Esping-Andersenek. Egile horren ustez, batez ere egungo gizartean, familiek seme-alabei haurrak direnean beharrezko kapital soziala, kulturala, kognitiboa eta erlazionala emateko duten gaitasunaren mende daude, funtsean, pertsonen bizitzan zehar dituzten aukerak. Ideia horretatik abiatuta, emakumea lan-merkatuan sartzeak eta azken urteetan familia-instituzioan egondako aldaketek ongizate-estatuarentzat dakartzaten erronkei aurre egiteko, beharrezkoa izango litzateke gizarte-politikak birplanteatzea eta bizi-baldintza batzuk eta gutxieneko aukera-berdintasun bat bermatzea haurtzaroan, familiei laguntza sendoa emanez.

⁴ Egile horren ustez, Suedian soilik –eta agian Danimarkan– murriztu ahal izan da, azken urteetan, gizarte-herentziak pertsonen bizitzan zehar dituzten aukeretan duen eragina, oso inbertsio handiak egin direlako hurrei eta familiei laguntzeko gizarte-politiketan.

- Hirugarren argudioak lotura dauka familiek ondorengoak izateko duten nahiarekin, eta familiek –errenta-maila edozein dela ere– nahi bezainbeste ondorengo eduki ahal izatearekin, lan-merkatuan sartzeko aukerak oztopatu gabe. Hori lortuko balitz, lanaren alorrean familia “pobreen” eta “aberatsen” artean gero eta handiagoa den polarizazioa eragotziko litzateke, eta, horrez gain, ez litzateke beharrezkoa izango desiragarriak ez diren bi egoeren artean aukeratzea: seme-alaba gutxi izan (ugalkortasun baxua) edo lan gutxi, eta, beraz, diru-sarrera gutxi. Esping-Andersenek (2010) dioenez, amatasuna eta lana bateragarri egitea lortzen ez bada, pertsonak seme-alabak izatearen edo lana bilatu eta autonomia eta diru-sarrera handiagoak izatearen artean aukeratu beharko dute.
- Azkenik, azpimarratu nahi da familiei laguntzeko politikek prebenitzeko balio dutela, eta, beraz, haien kostua eraginkorra dela, itzulkin ekonomiko handiak dakartzatelako. Egindako gastua soberan berreskuratzen da, epe ertainera; izan ere, beste gastu batzuk aurrezten dira, eta bazterketa-tasa txikiagoak eta/edo lan-ibilbide luzeagoak bermatzen dira.

2.3. Haurrei laguntzeko politiken kostu-eraginkortasun erlazioa

Gero eta ikerketa enpiriko gehiago egiten ari dira aurreko atalean adierazitako argudio teorikoak frogatzeko, eta ikerketa horiek argi utzi dute familiei laguntzeko politiketan egindako gizarte-gastuak eragin positiboa duela, kostu-eraginkortasun erlazioaren⁵ aldetik. Ikerketa horietako gehienek jatorri anglosaxoia dute, nahiz eta European ere egin diren ikerketak, eta haurren arretarako zerbitzuei buruzkoak dira nagusiki. Urriagoak dira, ordea, familiei laguntzeko beste politika batzuen kostu-eraginkortasun erlazioa frogatzeko egin diren lan enpirikoak, hala nola gurasotasun-baimenarena eta prestazio ekonomikoena frogatzekoak.

Nahiz eta ikerketa horiek egiteko erabiltzen diren metodologia eta ikuspegi kontzeptualak ez diren beti berdinak, antzeko argudio-ildo bat dago guztien atzean: familiei laguntzeko politiketan egiten den gastuak itzulkin-tasa handia duela gizartearentzat, honako arrazoi hauengatik: a) aukera-berdintasun handiagoa bermatzen du eta pobrezia belaunaldi batetik bestera transmititzeko zikloa hausten du, eta, beraz, epe ertainera horren eraginkorrak ez diren

⁵ Heckman, Grunewald eta Reynolds (2006) egileen arabera, kostu-eraginkortasun erlazioaren azterketak neurtzen du zer etekin izan dituen inbertsio batek kostuen aldean. Ekonomian erabiltzen da kontzeptu hori, aurreikusitako itzulkinen arabera emateko lehentasunak inbertsioei. Haurren arretari dagokionez, ikuspegi horrek erakusten digu ea programa horiek parte-hartzaileentzat eta gizarte osoarentzat dituzten onurek kostuak gainditzen dituzten; aukera ematen du aztertzeko familiei laguntzeko politiketan egindako zer inbertsiok ematen dituen etekin gehien eragindako kostuen aldean; eta frogatu du Haur Hezkuntzako eta haurren arretarako zerbitzuetan inbertitzeak giza kapitalean edo azpiegiturretan egiten diren beste inbertsio batzuek baino itzulkin handiagoak ematen dituela.

gastu handiagoak egiteko beharra desagertzen da; b) emakumeak lan-merkatuan sartzea bultzatzen du, batez ere prestakuntza gutxiago duten emakumeak sartzea, eta horrek gizarte osoaren produktibitatea handitzen du; eta c) ugalkortasun-tasak handitzen laguntzen du, eta horrek gizarte-sarea dinamizatzen du eta gizarte-babes osoaren iraunkortasuna bermatzen laguntzen du.

2.3.1. Kostu-eraginkortasun erlazioa prebentzioaren ikuspuntutik: tximeleta-efektua

Aurrez aipatu dugun moduan, haurrei laguntzeko politiketan inbertitzeko beharra frogatu nahi izaten denean, inbertsio horrek prebenitzeko balio duela argudiatzen da maiz, eta beste gizarte-gastu mota batzuek kalteak arintzeko soilik balio dutela. Alde horretatik, Chauffauten (2010) ustez, haurren arretarako programen prebentzio-ahalmenak “tximeleta-efektua” bat sortzen du. Izan ere, ikerketa askok erakutsi dute haurren arretarako kalitatezko zerbitzuetan inbertitzeak eragin positiboa duela epe ertain eta luzera, murriztu egiten dituelako eskola-porrota, delinkuentzia-tasak, nerabeak haurdun geratzea, substantzien kontsumoa... Egile horren arabera, “ikerketa gehienek ondorioztatu dute hezkuntza goiztiarreko sistemetan egiten den hasierako inbertsioak itzulkin positiboak dituela; izan ere, zenbait gastu aurrezten dira epe ertainera beste politika publiko batzuekin alderatuta, eta itzulkin-tasak zortzi dolarrera irits daitezke inbertitutako euro bakoitzeko. Itzulkin horren bi herenek gizarte osoari eragingo liokete, eta beste herenek familiei”.

Heckman, Grunewald eta Reynolds (2006) egileek berrikusi egin zituzten, kostu-eraginkortasun erlazioaren aldetik, lau urtera arteko haurrei arreta emateko lau programa espezifikoak lortutako emaitzak. Beheko taulan agertzen dira programa horien ezaugarri nagusiak.

1. taula. Hezkuntza goiztiarreko programen kostu-eraginkortasun erlazioa aztertzeko ikerketak

	Programaren deskribapena	Ikerketaren diseinua	Emaitzak (Parte hartu zuen taldea erreferentziako talde batekin alderatuta)
Head Start (N.C.) 1972-	Esku-hartze adina: 3 hilabetetik 4 urtera bitartean. Lanaldi osoko eskolaurreko zentroa.	Taldeak ausaz esleitu ziren. Tratamendurako taldean 57 kasu zeuden, eta erreferentziako taldean (kontrolakoa), 54 kasu. Ebaluazioa haurrek 21 urte bete arte egin zen.	Emaitza hobeak irakurketan eta matematikan, ikasturtea errepikatu zutenen hezkuntza berezia jaso zutenen tasa baxuagoak, 4 urteko unibertsitate-ikasketan matrikulatzeko aukera handiagoa, eta emakumeek lehenengo semea edo alaba izateko aukera handiagoa.
Child-Parent Center 1985	Esku-hartze adina: 3-4 urte. Lanaldi erdiko eskolaurreko zentroa; guraso-programa intentsiboa.	Diseinu ia esperimentalak. Tratamendurako taldean 989 kasu zeuden, eta ikastetxeetan ausaz aukeratutako 550 kasurekin alderatu ziren; bi taldeak aldagai demografikoen arabera parekatu ziren. Ebaluazioa haurrek 21 urte bete arte egin zen.	Emaitza hobeak irakurketan eta matematikan, haurren tratu txarren tasa baxuagoak, ikasturtea errepikatu zutenen eta hezkuntza berezia jaso zutenen tasa baxuagoak, 4 urteko unibertsitate-ikasketetan matrikulatzeko aukera handiagoa, diru-sarrerik gabe matrikulatzeko aukera handiagoak, eta tasa baxuagoak gazteen atxiloketetan, helduen kondena jarduera kartzelarazteetan.
Early Head Start Elmira	Esku-hartze adina: jaio aurretik 2 urtera	Taldeak ausaz esleitu ziren.	Gutxitu egin ziren 15 urtera arteko atxiloketa-tasak, kondena-tasak, baldintza askatasunaren urraketa-tasak eta alkohol-kontsumoaren tasak; murriztu egin ziren

	Programaren deskribapena	Ikerketaren diseinua	Emaitzak (Parte hartu zuen taldea erreferentziatzeko talde batekin alderatu)
Early Infancy Center (Elmira, N.Y.)	arte. Kolegiatutako erizainek osasunari buruzko informazioa eman zieten eta guraso nola izan edo seme-alabak nola zaindu azaldu zieten amei beren etxeetan.	Tratamendurako taldean 116 kasu zeuden, eta erreferentziatzeko taldean (kontrolekoa), 184 kasu. Ebaluazioa haurrek 15 urte bete arte egin zen.	gizarte-zerbitzuetan egindako gizarte-gastua, haurren tratatu txarrak, substantia kontsumoa eta amen kondena judizialak; amek diru-sarrera handiagoak eskuratu zituzten.
Perry (Elmira, N.Y.) 1962-1966	Esku-hartze adina: 3-4 urte. Eskolaurreko zentroa, 2 ordu eta erdi egunean, eta astero bisita bat amaren etxera.	Taldeak ausaz esleitu ziren. Tratamendurako taldean 58 kasu zeuden, eta erreferentziatzeko taldean (kontrolekoa), 65 kasu. Ebaluazioa haurrek 40 urte bete arte egin zen.	Emaitza hobeak irakurketan eta matematikan, hezkuntza bereziaren tasa txikiagoan, goi-mailako ikasketak egiteko aukera handiagoak, atxiloketa kriminal gutxiagoa, hilabete gutxiago kartzelan, lanpostu bat eta norberaren jabetzeko etxebizitza eskuratzeko aukera handiagoa, diru-sarrera handiagoak, eta gizarte-zerbitzu gutxiago.

Oharra: *Child-parent center* direlakoek eta *Abecedarian* proiektuak 7 edo 8 urtera arteko eskola-programak zituzten. Iturria: Heckman, Grunewald eta Reynolds (2006).

Garrantzitsua da azpimarratzea, kasu gehienetan, programa horiek ebaluatzeko ikerketek alderatu egiten dituztela, epe luzera, antzeko jatorri soziofamiliarra eta antzeko ezaugarri soziodemografikoak dituzten pertsonen lan-egoera, egoera pertsonala eta gizarte-egoera. Desberdintasun bakarra izaten da batzuek haurrak zirenean programa horietan parte hartu zutelako eta beste batzuek ez. Programa horiek onurak eta itzulkinak izatearen arrazoia da, gaztarora edo helduarora iristean, bi talde horien artean desberdintasunak egoten direla lan-merkatuan sartzeko aukeretan, delituen historietan eta drogen kontsumoan.

Programa horien ebaluazio ekonomikoa egitean, egileek honako hauei egozten dizkiete onura nagusiak: parte-hartzaileen diru-sarrerak handitzeari (eta diru-sarrerak handitze horrek dakartzan zerga-sarrerei) eta kriminalitate-indizeak jaistean eta errehabilitazio- eta tratamendu-programen eskaera murriztean gastu publikoa aurrezteari. Kostu-eraginkortasun erlazioaren ikuspuntutik, inbertitutakoaren eta aurreztutakoaren arteko erlazioa 1 baino handiagoa da kasu guztietan; *Carolina Abecedarian Project* proiektuak du erlazioirik txikiena, 3,78 dolar gastatutako euro bakoitzeko, eta *Perry Preschool Program* programak handiena, 17 dolar gastatutako euro bakoitzeko. Taulan ikus daitekeenez, itzulkin-tasa⁶ urteko % 7tik % 23ra bitartekoa da.

2. taula. Hezkuntza goiztiarreko programen haur bakoitzeko kostu-eraginkortasun erlazioa aztertutako ikerketak (2005eko dolarretan*)

	Batez besteko kostua	Batez besteko etekina	Etekin garbiak	Kostu-eraginkortasun ratioa	Barneko itzulkin-tasa
Carolina Abecedarian Project	38.934	174.149	108.215	3,78 1 euroko	% 7
Chicago Child-Parent Center	8.018	81.399	73.381	10,15 1 euroko	% 22**
Nurse Family Partnership: Elmira Prenatal/Early Infancy Project	7.572	38.296	30.724	5,06 1 euroko	% 23**
Perry Preschool	17.198	293.579	276.381	17,07 1 euroko	% 18

⁶ Egile horiek honela definitzen dute barneko itzulkin-tasa: zenbait urtetan zehar egindako inbertsioak emango lukeen urteko interes-tasa. Era horretako indizeei esker, jakin dezakegu zer inbertsio publiko mota diren errentagarrienak.

*Dokumentu honetan agertzen diren dolar-kantitate guztiak 2005eko dolarretara bihurtu ziren, Kontsumoko Prezioen Indizea erabiliz.

** Grunewaldek kalkulatuak. Gainerako datuak ikerketetatik datoz. NFPren eta Chicagoren barneko itzulkin-tasak Peryrenak baino handiagoak dira, baina kostu-eraginkortasun ratioak baxuagoak dira, tratamenduaren etekinak eskuratzeko unea dela eta. Iturria: Heckman, Grunewald eta Reynolds (2006).

Heckman, Grunewald eta Reynoldsen arabera, honako hauek dira, nagusiki, egindako inbertsioaren errentagarritasuna zehazten duten faktoreak: emandako arretaren intentsitatea eta esku-hartzearen osotasuna, bai eta profesionalen prestakuntza-maila altua eta lan-baldintza egokiak ere.

Haurren arretarako programen kostu-eraginkortasun erlazioa argudiatzean maiz aipatu ohi den beste ikerketa bat honako hau da: Karoly eta Bigelow egileek Kaliforniako eskolaurreko hezkuntzari buruz egin zutena, 2005ean, Rand Corporation erakundearentzat. Ikerketa horren arabera, Kaliforniako haur pobreenen % 25ek eskolaurreko hezkuntza jasoko balu urtebetez gutxienez, bi dolar irabaziko lirateke gutxienez gastatutako dolar bakoitzeko. Eskolaurreko hezkuntzan gastatzeak aurrezten laguntzearen arrazoia da eskola-porrotaren tasak murriztuko liratekeela, Bigarren Hezkuntzan hasten direnen tasa handituko litzatekeela, delinkuentzia-indizeak jaitsiko liratekeela eta soldatak igoko liratekeela. Erdi-mailako klaseko haurrentzat, itzulkinak are handiagoak izango lirateke: 2,62-4,0 euro inbertitutako euro bakoitzeko (Chauffaut, 2010). Txostenaren egileen ustez, haurren % 70ek eskolaurreko hezkuntzako programa unibertsal batean parte hartuko balu, arreta jasoko luketen haur kaliforniarren talde bakoitzak 2.700 milioi dolarreko etekina sortuko luke, eta, behin gastu horrek sortutako zergak eta kotizazioak gehitutakoan, 3.600 milioi dollarrera iritsiko litzateke. Egin dituzten kalkuluen arabera –programa esperimentalaren benetako eraginean oinarritu dira–, era horretako programen bidez, Kaliforniako gizarteak 11.400 dolarreko etekina eskuratuko luke arreta jasotzen duen haur bakoitzeko, eta kostua 4.339 dolarrekoa izango litzateke; hau da, aurrezki garbia 7.036 dolarrekoa izango litzateke parte-hartzaile bakoitzeko (2,62 dolarreko etekina inbertitutako dolar bakoitzeko). Horrek esan nahiko luke Kaliforniako gizarteak egindako inbertsioaren % 10eko itzulkin-tasa jasoko lukeela urteko, hirurogei urtean zehar.

2.3.2. Ume-umetatik esku hartzearen garrantzia

Haurrei eta familiei laguntzeko programen kostua eraginkorra izateari buruz egin diren ikerketa enpiriko eta hausnarketa teoriko gehienek adierazten dute beharrezkoa dela ahaleginak, eta gastua, lehen haurtzarora bideratzea. Alde horretatik, Esping-Andersenek gogorarazten digu helduentzako politika aringarriak alternatiba pobrea eta garestia direla, haurtzaroan egindako prebentziozko esku-hartzeen aldean. Pertsona batek lan-merkatuan sartzeko dituen aukerak bere gaitasun kognitiboen mende daudenez gero eta gehiago, komeni da haurtzaroaren hasierako etapara –gaitasun horiek garatzen diren garaia– bideratzea ahaleginak. Argudio horren atzean


dagoen ideia da lehen haurtzaroan zehar finkatzen direla oinarri kognitibo erabakigarriak eta eskolaurreko etapa horretan gertatutakoa funtsezkoa dela haurrak motibazioa eta ikasteko gaitasunak izateko eskolan sartzen denean. Beraz, gure gizarte-jatorriak izugarri markatzen gaitu, ongizate-estatuak benetan gure bizitzetan esku hartu baino lehenagotik ere (Palier eta Esping-Andersen, 2010).

Egile horien arabera, “gizarte-herentziari dagokionez, benetan garrantzia duten mekanismoak eskolaurreko etapan daude. Haur askoren kasuan, *pribatizatuen* dauden garaia ere bada, familiaren mende baitaude ia guztiz. Irakasle gehien-gehienek lehenengo eskola-egunetik esan dezakete haurrak oso modu desberdinean prestatuta iristen direla eskolara. Eskola, eta, oro har, hezkuntza-sistema osoa, ez daude barrutik ongi hornituta desberdintasun horiek desagerrarazteko. Gainera, ikerketa askok adierazten dute egoera hori konpontzeko politikak ez direla oso eraginkorrak. Horrek guztiak beste puntu garrantzitsu batera garamatza. Bai gure helburua berdintasun handiagoa sortzea bada, bai eta etorkizuneko lan-indarraren produktibitatea handitzea bada ere, etxeko lau paretan artean gertatzen dena bideratu behar dugu azterketa. Han daude benetan garrantzitsuak diren eraginak”.

J. Heckman da ikerketa-ildo horren sustatzaile nagusietako bat, eta gizakiaren abileziak prestatzearen dinamikarekin lotzen du bizitzako lehenengo urteetan inbertitzeko beharra. Egile horren ustez, neurozientziak eta psikologia esperimentalak frogatu dute bizitzako lehenengo urteak oinarri-oinarrizkoak direla ikasketarako, ikuspuntu kognitibotik nahiz ez-kognitibotik. Ikasteko prozesua prozesu dinamiko bat da, eta ikaskuntza goiztiarrek ondorengo ikaskuntzak indartzen dituzte. Heckmanek dioenez, argi dago ikaskuntza goiztiarrak eragina duela giza kapitalaren garapenean: haurrak oso txikiak diren garaia da esku-hartzea eraginkorra izateko unerik onena, esku hartzeko unerik onena.

Beraz, egile horren datuek erakusten dutenez, zenbat eta lehenago egin esku-hartzeak, orduan eta eraginkorragoa izango da haien kostua. Asko aipatu izan den artikuluan batean (Heckman, 2006), egile horrek zenbait esku-hartze motaren itzulkin-tasak alderatu ditu: eskolaurreko esku-hartzearenak, eskola-garaiko esku-hartzearenak eta eskola ondorengo esku-hartzearenak. Eskolaurreko etapan aplikatutako programek 1etik gorako itzulkin-ratioa dute (etekina gastua baino handiagoa da), baina eskolan edo lanbide-heziketan aplikatutako programak ez dira maila horretara iristen; litekeena da onurak ematea, hau da, emaitza positiboak lortzea, baina horretarako egin behar den kostua handiagoa da, ekonomikoki, jasotako etekinak baino. Egile horren ondorioa argi dago: gabeziak dituen familia-testuinguru batean hazi izana aurreragoko etapetan konpentsatzea oso garestia da. Gizarteak gehiegi itxaroten badu gabezia horiek konpentsatzeko, inbertsioa ez da eraginkorra izango inoiz.

1. grafikoa. Giza kapitalean inbertitzearen itzulkin-tasak



Iturria: Heckman (2006).

2.3.3. Haurren zaintzaren itzulkina, amek lan-jarduerari eustearen ikuspuntutik

Ikuspegi europarrak alde batera utzi ditu etorkizunean kostu handia izaten duten portaerak eta arazoak prebenitzearen itzulkinak, eta honako hau aztertu du nagusiki: zer eragin ekonomiko duten familiei laguntzeko zerbitzuek, amei lana eta familia bateragarri egiteko eta lan-merkatuarekin duten loturari eutsi ahal izateko aukera ematen dieten aldetik.

Abiapuntu hori izanik, Esping-Andersenek (2010) azaldu du –teorikoki– zer eragin edukiko lukeen, Danimarkako diru-kutxa publikoetan, estatuak emakume langile baten haur-arretarako eta eskolatzerako kostua finantzatzeko. Bi seme-alaba dituen 30 urteko emakume baten kasua erabili da analisisia egiteko. Emakume horren soldata batez besteko soldataren % 67 da, eta, haurren arretarako zerbitzuei esker, ez dio lan egiteari uzten 60 urterekin erretiroa hartu arte, amatasun-baimena jasotzen duen urte batean izan ezik. Egilearen kalkuluen arabera, gastu publikoa 72.000 bat eurokoa da (haurtzaindegiko bi urte eta Haur Hezkuntzako hiru urte bider bi seme-alaba). Lan-ibilbidea luzatzearen ondorioz, ama horrek 314.000 euro gehiago irabazten ditu bizitza osoan, ez diolako lan egiteari utzi. Era berean, administrazioek 110.000 euro

jasotzen dituzte (ia % 33), errenta-igoera horrengatik. Epe luzera, administrazioak 37.000 euroko etekina jasotzen du egindako inbertsioagatik: hau da, hasierako gastua berreskuratzen du eta % 50eko etekina ateratzen dio.

1. koadroa. Haurrak familiatik kanpo zaintzeko moduetan inbertitzeak dakartzan kostuen eta diru-sarrereren kontabilitate dinamikoa

Hipotesia	
<ul style="list-style-type: none"> - 30-35 urteko emakume batek bi seme-alaba ditu. - Ez dio lan egiteari uzten, amatasun-baimena hartzen duen urte batean izan ezik. - Batez besteko soldataren % 67ko soldata du. - 60 urtera arte lan egiten du. 	
Kostu publikoa	Euroak
a) 2 urte haurtzaindegian (x2).	24.000
b) 3 urte eskolaurrean (x2).	48.850
Guztira	72.850
Amaren irabaziak	
1. 5 urtean diru-sarrera osoak.	114.300
2. Bizitza osoan etenik egin gabe lanean jarraitu izanagatik soldataren irabaziak.	200.100
Guztira	314.400
Ogasunaren irabaziak	
- (a) aukeragatiko diru-sarrera gehigarriak.	40.000
- (b) aukeragatiko diru-sarrera gehigarriak.	70.000
Guztira	110.000
Ogasunak hasierako inbertsioagatik jasotzen duen itzulkin garbia (110.000 - 72.850)	37.150

Iturria: Esping-Andersen, G. eta Palier, B. Los tres grandes retos del Estado del Bienestar. Bartzelona, Ariel, 2010.

Egilearen arabera, “oro har, seme-alabak zaintzeko bost urteko etenaldia egiten duen ama batek etenaldia egin izan ez balu baino % 40 gutxiago irabaziko du bizitzan zehar. Horrek esan nahi du estatuak ere zerga gutxiago jasoko dituela denboraldi horretan. Danimarkako kasuarekin lotutako kalkuluetatik abiatuta, esan daiteke diruz lagundutako zaintza-sistema bat erabiltzen duten emakumeek hasierako diru-laguntza ordaintzen dutela epe luzera (interesekin!), bizitza osoko irabaziak handitzen dituztelako eta horrek zerga gehiago ordaintzea dakarrelako” (Esping-Andersen, 2010).

Ikuspuntu enpirikoago batetik, Chauffautek (2010) argitaratutako azterketa batek zenbait ikerketaren emaitzak jasotzen ditu. Ikerketa horiek aztertzen dute zer itzulkin lortzen dituzten haurren arretarako zerbitzuek Europan, produktibitatea handitzearen eta amek lan-

merkatuarekin duten loturari eustearen aldetik. Argi dago ikerketa guztien emaitzak ez direla homogeneous, baina ondorio berbera ateratzen dute guztiek:

- Haurtzaindegian plaza bat edukitzeak % 15 areagotzen du ama batek lanean jarraitzeko probabilitatea. Ikertzaileen kalkuluen arabera, urtean 6.000 euroko etekina emango luke horrek; hau da, plazaren kostuaren heren bat, gutxi gorabehera (Maurin eta Roi, 2008).
- Beste ikerketa baten (Bayet, 1997) kalkuluen arabera, emakume langile bakoitzak 13.500 euro irabaziko lituzke batez beste lan-bizitza osoan, seme-alabek haurtzaindegian emandako urte bakoitzagatik. Ikerketa horren arabera, seme-alabek arduratzeko lan-jardueran etenaldi bat egiten duten emakumeek urtean % 1 murrizten dituzte gutxienez diru-sarrerak. 30 urteko lan-ibilbidean, 27.000 euroko galera bat izango litzateke hori.
- Suitzan egindako ikerketa baten arabera (Kucera eta Bauer, 2001), urtean 18 milioi franko suitzar inbertituko balira haurrentzako zerbitzuetan, 29 milioi aurreztuko lirateke zerga- eta laguntza-gastuetan, bikoiztu egingo litzatekeelako guraso bakarreko familien lanordu-tasa.
- Ikuspegi makroekonomiko batekin jarraituz, Meda eta Perivier (2007) egileek honako hau kalkulatu zuten lan batean: eraginkortasunaren eta genero-berdintasunaren aldetik egokia zen familia-politika batek BPGren % 1,65eko kostua izango lukeela, Frantzia garai hartan familiei laguntzeko erabiltzen zen % 1,32ren aldean. Inbertsio horri esker, 450.000 bat emakume lan-merkatuan sartuko lirateke, eta, batez besteko produktibitatea izango balute, BPG 1,6 puntu igoko litzateke eta gizarte-babeserako gastuak BPGren % 0,2 murriztuko lirateke.

Esping-Andersen (2010) ustez, “kostuen eta etekinen analisi horren azpian, zentzuzko logika bat dago; izan ere, inbertsio goiztiarrek ondorengo inbertsioen kostuaren gainean dituzten sinergia positiboaren efektuak elkartzen ditu (ikasteak ikastea dakar). Zenbat eta txikiagoa izan arreta jasotzen duen haurra, orduan eta handiagoa da *etekina* (izugarria izatera iritsi arte). Horrek esan nahi du eskolan hasi aurretik eta eskolatzearen hasieran egiten diren jarduerak oso etekin garbi handiak ematen dituztela: proportzionalak baino handiagoak. Ikaskuntzan egiten diren inbertsioen etekin estandarrak % 10 ingurukoak izanik, aurreikus daiteke eskolaurreko inbertsioaren etekinak bikoitzak izatera irits daitezkeela. Eta etekin marjinalak askoz handiagoak direnez eskolan porrot egiteko arrisku handiena dutenen kasuan, inbertsio

goiztiarrek aukera eman beharko lukete gizartea gorantz homogeneizatzeko eta aukera-berdintasuna hobetzeko”.

3. EAE-N FAMILIEI LAGUNTZEKO ERABILTZEN DIREN POLITIKAK, IKUSPEGI ALDERATU BATETIK

3.1. Sarrera

Sarrerako atalean adierazi den moduan, bi ikuspuntu erabiliko dira EAEn familiei laguntzeko erabiltzen diren politikak eta Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan edo Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetan erabiltzen direnak alderatzeko: alde batetik, politika horietarako erabiltzen den gastua, eta, bestetik, prestazio horien edukia. Horretarako, herrialde horietako administrazio publikoek ematen dituzten prestazio eta zerbitzu nagusiak bilduko

ditugu, eta adieraziko dugu nolakoak diren, zer irizpide eta baldintza erabiltzen diren haiek eskuratzeko, zenbat irauten duten eta zenbatekoak izaten diren. Gogorarazi behar dugu, sarreran adierazi dugun moduan, txosten honetan ez dela azaltzen nola finantzatzen diren laguntza horiek –zerga orokorren bidez, helburu horretarako zergen bidez, gizarte-segurantzako kotizazioen bidez...–, ez eta administrazioko zer mailari dagokion zerbitzu horiek ematea ere. Interesgarria izango litzateke analisi hori egitea, zehazteko zer administrazio-mailaren ekintzari edo ekintzarik ezari lepora dakiokkeen EAEn alor horretan duen gastu-defizita, baina hori txosten honen aukeretatik kanpo geratzen da.

Laguntzak deskribatzeko erabili den egiturari dagokionez, kontsultatutako iturri originalen egiturari eusten saiatu gara. Nolanahi ere, ez da beti erraza izaten prestazio eta zerbitzu horiek kategoria homogeneotan sailkatzea, eta argi dago haietako asko kategoria batean baino gehiagotan sailka zitezkeela. Zailtasunak zailtasun, honako egitura hau erabili dugu:

- Seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoak
 - *Ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoak, jaiotzagatik;*
 - *Ardurapeko seme-alabengatiko aldiakako diru-laguntzak;*
- Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak
 - *Amatasun- eta/edo aitatasun-bajak;*
 - *Seme-alabak zaintzeko baimenak (eszedentzia eta lanaldi-murrizketa);*
 - *Eszedentziengatiko eta/edo lanaldi-murrizketengatiko diru-laguntzak;*
- Beste laguntza batzuk
 - *Haurrak zentroetan eta/edo beste pertsona batzuen esku utzita zaintzeko gastuak ordaintzeko diru-laguntzak;*
 - *Mantenu-pentsioen aurrerakina;*

Sarrerako atalean adierazi den moduan, berrikuspen honetan ez ditugu kontuan izango –edo une jakin batzuetan baino ez dugu izango kontuan– zehazki familiei laguntzeko prestazioak ez diren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak; hau da, lotura dutenak gizarte-babesaren beste alor batzuekin, hala nola hezkuntzarekin⁷, etxebizitzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, diru-sarrerak bermatzeko prestazioekin eta abarrekin. Beraz, ez zaie erreferentzia egingo eskolarako bekekin eta diru-laguntzekin lotutako neurriei, desgaitasunen bat duten haurren hezkuntza bereziko prestazioei, guraso bakarreko familien kasuan diru-sarrerak bermatzeko prestazioak

⁷ Aurrez esan dugun moduan, Lehen Hezkuntzaren aurreko Haur Hezkuntza izan ezik.

izan ditzakeen gehigarriei, edota familiaren tamainaren edo egituraren baitan etxebizitza ordaintzeko ematen diren laguntzei. Bestalde, Europako herrialdeen kasuan, ez dira kontuan hartu eskualdeetan eta/edo udalerrietan ematen diren prestazioak.

Nolanahi ere, txosten honen ondorioak ulertu ahal izateko, kontuan hartu behar da zerbitzu publikoen gastua nazioartean alderatzeak muga batzuk dituela. Egia da estatistika-erakundeek datuak biltzeko erabili dituzten metodologiaren artean zenbait desberdintasun daudela, baina, hori alde batera uzten badugu, muga horien jatorri nagusia da zerbitzu edo prestazio mota bat – hezkuntzaren alorrekoa, osasunaren alorrekoa, gizarte-zerbitzuen alorrekoa, etxebizitzaren alorrekoa, familiei laguntzekoa...– modu isolatuan alderatzeak ez duela uzten ikusten zer eragin duen politika publikoen osotasunak familien ongizatean, zer eraginkortasun-maila duen... Beraz, alderatu nahi den errealitatearen zati bat bakarrik erakusten du.

Muga horren adibide garbi bat da txosten honetan ez dugula kontuan izan diru-sarrerak bermatzeko errenten gastua. Alde batetik, zentzuzkoa da ez sartzea alderaketan era horretako prestazioak; izan ere, ez dira familientzako laguntzak zentzu hertsian, eta, gainera, erabili ditugun nazioarteko estatistika-iturrietan, bereizi egiten dira diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak eta familiei laguntzeko politikak eta prestazioak. Baina, beste alde batetik, argi dago familiek onurak jasotzen dituztela zuzenean prestazio ekonomiko horiekin; batez ere, pobrezia-egoeran edo baztertuak izateko arriskuan dauden familiek. Era horretako prestazioak alderaketan ez sartzek eragin handia dauka emaitzetan; izan ere, pobrezia- edo bazterketa-egoeran dauden familiei laguntzeko funtsezko iturri bat dira Euskadin. Alde horretatik, azpimarratu behar da EAEn gutxieneko errenta jasotzeko ezarri den sistema oso garrantzitsua dela pobrezia- eta bazterketa-egoeran dauden adingabeak babesteko. 2010ean, 18 urtetik beherako 23.300 adingabek jasotzen zituzten gutxieneko errenten onurak; hau da, EAeko adingabeen % 6,2k –Euskadin laguntza horien onuradun diren ia 120.000 pertsonen % 20k–. Gainera, diru-sarrerak bermatzeko errentei buruzko datuen arabera, prestazio horiek jasotzen zituzten 66.545 familietatik 12.000 baino zertxobait gehiago guraso bakarreko familiak ziren, eta 8.600, seme-alabak zituzten familiak. Beraz, adingabeen ardura zuten 20.000 familiak baino zertxobait gehiagok –ia diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak ziren familia-unitateen heren batek– era horretako diru-laguntzak jasotzen zituen⁸.

3.2. Familiei laguntzeko politiken gizarte-gastua

⁸ Kontuan hartzen badugu 2010ean diru-sarrerak bermatzeko errentaren gastua 313 milioi eurokoa izan zela, kalkulatu beharko genuke 100 milioi gastatu zirela gutxienez ere seme-alabak dituzten familien diru-sarrerak bermatzeko errentetan.

3.2.1. Metodologiari buruzko argibideak

Aurrez adierazi dugun moduan, bi datu-iturri erabili ditugu, nagusiki, familiei laguntzeko politiken gastua aztertzeko: EUSTATen Gizarte Babesaren Kontua eta EUROSTATen Gizarte Babeserako Estatistika Bateratuen Sistema Europarra (ESSPROS). Biek metodologia berbera erabiltzen dute. Estatistika horiek gizarte-babestzat hartu izan denaren gastu osoa biltzen dute, hezkuntzaren alorrekoa izan ezik. Estatistikak zortzi funtziotan edo alorretan zatitzen du gastua: zahartzaroa, gaixotasuna/osasun-arreta, baliaezintasuna, langabezia, biziraupena, etxebizitza, gizarte-bazterketa eta familia eta seme-alabak. Horrez gain, EAEn, Espainian eta Europar Batasunean 0 urtetik 6 urtera bitarteko Haur Hezkuntzan egiten den gastua gehitu ahal izan da, EUSTATEk Haur Hezkuntzako gastuari buruz emandako datuak eta Europako estatistikak hartuta abiapuntutzat⁹.

Nahiz eta argi dagoen zenbait herrialdetan gizarte-babesean egiten den gastua modu homogeneoan alderatzeko modu bakarra dela, zenbait zailtasun sortzen ditu:

- Litekeena da gastuak funtzio jakin batzuei esleitzeko irizpideak ez izatea beti berdinak. Eranskinean azaltzen den moduan, Eusko Jaurlaritzak seme-alabadun familiei ematen dizkien laguntzen gastuaren zati bat gizarte-bazterketa funtzioarekin lotzen du EUSTATEk, eta ez familia funtzioarekin. Horrek esan nahi du dezente murrizten dela funtzio horretan egiten den eta ikerketa honetarako kontuan hartzen den guztizko gastua. Horregatik, txosten hau idazteko, aldatu egin dugu irizpide hori, eta familia funtzioarekin lotu dugu gastua. Dena den, ezin da baztertu era horretako anomalia gehiago egoteko aukera.
- EUSTATEk gizarte-babesaren gastuari buruz emandako azken datuak 2008. urtekoak dira. Horrek esan nahi du nolabaiteko desfasea dagoela emandako datuen eta egungo egoeraren artean. Haur Hezkuntzari buruzko azken datuak 2007koak dira.
- EUSTATen eta EUROSTATen datuek ez dituzte berdin bereizten gastuen arduradunak diren erakunde-mailak, eta, beraz, ezin dira behar bezala alderatu gizarte-segurantzak eta gizarte-zerbitzuek Europan eta EAEn egindako gastuak, edo administrazio zentralak, eskualdeko administrazioek eta udal-administrazioek egindakoak.

⁹ Eranskinean azaltzen den moduan, ez zenbatzeko bi aldiz gastu bera, Hezkuntzaren Kontuan jasota dagoen Haur Hezkuntzaren gastua gehitzean, kendu egin da gastuaren zenbatekotik Gizarte Babesaren Kontuak haurtzaindegietarako jasotzen duen gastua. Izan ere, EUSTATEk nahiz Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak (Espainian ESSPROS sistemaz arduratzen denak) bigarren gastu hori gehitzen dute, Haur Hezkuntzaren finantziazioa kalkulatzeko.

- Espezetan ematen diren prestazioen barruan, familiei laguntzeko politikei hertsiki egozten ez zaizkien prestazioak sartzen dira; adibidez, babesik gabe dauden adingabeak egoitzetan hartzea.

3.2.2. *Europako herrialdeetako baino gastu txikiagoa, baina Espainiakoa baino handiagoa, adingabe bakoitzeko gastuaren ikuspegitik*

Egindako analisiak erakusten du, adingabe bakoitzeko gastuaren ikuspegitik, Euskadin familiei laguntzeko politiketarako erabiltzen den gastua Espainiakoa baino handiagoa dela. Nolanahi ere, gastua BPGrekiko neurtzen badugu, Espainiakoa baino txikiagoa da, eta aztertu ditugun Europako herrialdeetako baino askoz txikiagoa. I. eranskinean adierazten dira zehatz-mehatz prestazio horien gastuari buruzko datuak.

Lurralde bakoitzean bizi den adingabe bakoitzeko gastua hartzen badugu kontuan 2007an Euskadin eta Espainia osoan familia funtzioan egindako gastua neurtzeko, ikusiko dugu Euskadiko gastua Espainia osokoa baino % 10 handiagoa dela. Espainian, adibidez, familiei laguntzeko politiken gastua 1.859 eurokoa da adingabe bakoitzeko; EAEn, berriz, 2.076 eurokoa. Desberdintasun nagusiak ama izatean errentei eusteko prestazio ekonomikoetan daude (kapitulu horretan sartzen dira Eusko Jaurlaritzak lana eta familia bateragarri egiteko ematen dituen diru-laguntzak), bai eta 0 urtetik 6 urtera bitarteko Haur Hezkuntzan ere, EAEk % 30 gehiago gastatzen baitu, adingabe bakoitzeko, zerbitzu horretan. Bestalde, EAEn jaiotza-subsidioetan egiten den gastua ere handiagoa da –132 euro adingabe bakoitzeko, eta Espainia osoan 75 euro–; izan ere, horien barruan sartzen dira Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak jaiotzengatik eta ardurapeko seme-alabengatik ematen dituen prestazio ekonomikoak. Azkenik, azpimarratu behar da Espainiaren kasuan gastu handia egiten dela “beste prestazio batzuk” atalean –dirutan nahiz espezetan–, eta EAEn, berriz, gutxi gastatzen dela era horretako prestazio orokorretan¹⁰.

Nolanahi ere, gastua BPGrekiko neurtzen badugu, EAEn egiten den gastua txikiagoa da partida guztietan, baita Haur Hezkuntzan ere; izan ere, EAEn biztanle bakoitzeko BPGa handiagoa da,

¹⁰ Garrantzitsua da azpimarratzea, aurrez esan dugun moduan, alderaketa honetan ez direla kontuan hartu diru-sarrerak bermatzeko errenten gastuak. Alde horretatik, azpimarratu behar da EAEn 18 urtetik beherakoen % 6,2k jasotzen dituela prestazio horien onurak, eta beste autonomia-erkidego batzuetan ehunekoa txikiagoa dela: Valenziako Erkidegoan, % 0,6; Andaluzian, % 1,6; Aragoian, % 1,1; eta Madrilgo Erkidegoan, % 1,4. Bestalde, EAEn prestazio horietan biztanle bakoitzeko egiten zen gastua 156 eurokoa zen 2010ean, eta Espainian, EAE kontuan hartu gabe, 10 euro baino ez ziren biztanle bakoitzeko. Beraz, Madrilgo Erkidegoa EAerekin alderatzen badugu, adibidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren onurak jaso dituen adingabe bakoitzeko gastua 3.100 eurokoa izango litzateke Madrilgo Erkidegoan, eta urtean 13.000 euro baino gehiagokoa EAEn. Datuak 2010. urtekoak dira.

eta Espainiako adingabeen proportzioa EAEkoa baino handiagoa, eta horrek gastua handitzea eragiten du. Zehazki, Euskadik BPGren % 1 erabiltzen du prestazio horietarako, eta Espainiak, % 1,38. Haur Hezkuntzaren kasuan, antzeko ahalegina egiten da bi lurraldeetan (% 0,56 eta % 0,59), eta gauza bera gertatzen da jaiotza-subsidioekin ere. Familiaren ardurapean dauden seme-alabengatiko diru-laguntzetan, ordea, desberdintasunak handiagoak dira.

3. taula. Familiei laguntzeko politiken guztizko gastua EAEn eta Espainian (2007), BPGren ehunekotan eta adingabe bakoitzeko

		EAE		Espainia	
		BPG	Adingabe	BPG	Adingabe
Dirutan	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntzak	0,08	165	0,17	231
	Erditzean errentei eustea	0,16	335	0,17	223
	Dirutan emandako beste prestazio batzuk	0,03	70	0,14	190
	Jaiotza-subsidua	0,06	132	0,06	75
	Guztira dirutan	0,34	703	0,54	719
Espezietan	Ostatua	0,08	158	0,09	117
	Etxeko laguntza	0,00	3	0,00	5
	Hurtzaindegia*	-	-	-	-
	Espezietan emandako beste prestazio batzuk	0,02	50	0,17	226
	Haur Hezkuntza (0-6 urte)	0,56	1.162	0,59	792
	Guztira espezietan	0,66	1.373	0,85	1.140
Guztira		1,00	2.076	1,38	1.859

Guk geuk egin dugu, oinarritzat hartuta EUSTATen Gizarte Babesaren Kontua eta Hezkuntzaren Kontua, EUROSTAT eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren gizarte-babeserako kontu bateratuak. *Hurtzaindegietan egindako ESSPROS gastua ez da kontuan hartzen, Haur Hezkuntzaren gastuaren barruan sartzen delako.

Nolanahi ere, Espainian BPGrekiko gastua EAEn baino handiagoa dela interpretatzean, garrantzitsua da kontuan hartzea, aurrez esan dugun moduan, biztanle bakoitzeko BPGa handiagoa dela Euskadin Espainian baino eta Europar Batasunean baino, eta, beraz, gastua bera izanda ere, EAEn beti txikiagoa izango dela, BPGrekiko neurtzen badugu. Gainera, beharrezkoa

da kontuan hartzea Espainian Euskadin baino adingabe gehiago daudela (15 urtetik beherako adingabeak biztanleen % 13,5 dira Euskadin, eta % 14,9, Espainian). Azpimarratu behar da, bestalde, Espainiaren eta EAEn arteko desberdintasun nagusia dirutan ordaintzen diren prestazioetan dagoela; izan ere, Estatuko politikak errentarekin lotutako familia-subsidioen alde egiten du, eta, beraz, Euskadirenak baino diru-sarrera baxuagoak dituzten tokiek jasotzen dituzte gehienbat onurak.

Gastuaren banaketaren ikuspuntutik, desberdintasun handi samarrak daude: Euskadin, gastuaren % 66 zuzeneko arretako zerbitzuetarako erabiltzen da (erdia baino gehiago Haur Hezkuntzarako) eta % 34 soilik prestazio ekonomikoetarako; Espainian, berriz, prestazio ekonomikoak gastu osoaren % 39 dira, eta zuzeneko arretarako zerbitzuak, Haur Hezkuntza barnean hartuta, % 61.

Beraz, Euskadik Espainiak baino kantitate handiagoa gastatzen du, adingabe bakoitzeko, familiei laguntzeko prestazioetan eta zerbitzuetan: Espainia osoan politika horietan gastu handiena egiten duen autonomia-erkidegoa da. Egindako gastua BPGrekiko neurtzen badugu, EAEn ahalegina Espainiarena baino txikiagoa izan da, baina horrek zenbait ñabardura ditu; izan ere, Espainian adingabeen ehuneko handiagoa da, dirutan ordaintzen diren prestazioak baliabide gutxien dituzten kolektiboentzat izaten dira –eta, beraz, baliabide gutxien dituzten eskualdeentzat–, eta, diru-sarrerak bermatzeko errenten moduko politika konpentsatzaileek familiari eragiten diotenez, erabilitako estatistiketan sartu izan bagenitu, izugarri hobetuko lukete EAEk familiei laguntzeko politiketan egindako gastuaren postu erlatiboa, erabilitako adierazlea edozein izanda ere.

Gastua Europako gainerako herrialdeetakoarekin alderatzen badugu, eta gizarte-babeserako gastura mugatzen bagara, aldeak are handiagoak dira. Herrialde aurreratuenek BPGren % 2,5etik % 3ra bitartean gastatzen dute prestazio horietan, eta Espainiak, aurrez esan dugun moduan, % 1,36; EAEk, berriz, BPGren % 0,6 gastatzen du laguntza horietan. Gastua BPGrekiko aztertu beharrean, gizarte-babeserako gastu osoarekiko aztertzen badugu ere, egoera oso antzekoa da. Euskadik gizarte-babeserako gastu osoaren % 3,05 erabiltzen du funtzio horretarako, eta EB 27k eta Norvegiak, adibidez, % 8 eta % 12,6 erabiltzen dute, hurrenez hurren. EB 15en batezbestekora iristeko, gastua ia laukoiztu egin beharko litzateke, eta 2008an esleitutako 406 milioi eurotik 1.600 bat milioi eurora igaro beharko litzateke. Egungo egoera ekonomikoa ikusita, erronka hori ia ezinezkoa dela esan daiteke.

Bestalde, datuen analisiak erakutsi digu EAEko eta Europako gastuen arteko aldea ez dagoela, ez behintzat funtsean, EAEn biztanle bakoitzeko BPGa Europar Batasunean edo Espainian

baino handiagoa izatearen baitan. Gastua erosteko ahalmenaren parekotasunetan (PPS) kalkulatzeko badugu ere, ikus dezakegu aztertutako lurraldeen artean azkenetarikoa dela EAE. Erosteko ahalmenaren parekotasun-unitateen arabera, EAEn gastua 211 eurokoa da biztanle bakoitzeko, EB 15en batezbestekoaren % 36. Frantziak, Alemaniak, Suediak eta Norvegiak 600 eurotik 1.300 eurora bitartean gastatzen dute gutxi gorabehera; hau da, Euskadik gastatzen duena halako hirutik halako seira bitartean.

Euskadik Europar Batasunaren batezbestekoa baino gutxiago gastatzen du gizarte-babesean, baina garrantzitsuena da Europar Batasunarekin duen alde hori handiagoa dela familiaren alorrean gainerako gizarte-politiketan baino. Eranskineko 8. grafikoa ikus daitekeen moduan, Euskadik Europar Batasunak baino BPG-proportzio txikiagoa erabiltzen du gizarte-babesaren prestazio guztietarako –langabeziarako eta biziraupenerako izan ezik-. Baina, hain zuzen ere, familiaren eta etxebizitzaren funtzioetan dago alderik handiena. Adibidez, EAEk Europar Batasuneko batezbestekoaren % 75 inguru gastatzen du zahartzaroaren funtzioan, eta % 83 gizarte-bazterketan, baina familiaren alorrean Europar Batasuneko batezbestekoaren % 30 baino ez du gastatzen, gastua BPGrekiko neurtuta.

EAEko gastua Espainiako gastuarekin alderatzean egin dugun moduan, gizarte-babeserako gastuaren barruan Haur Hezkuntzarako aurrekontua sartzen badugu, egoera dezente aldatzen da, eranskineko 8. taulan ikus daitekeen moduan. Hala ere, aldeak handiak dira; izan ere, EB 15eko herrialdeek partida horietan egiten duten gastua % 2,25ekoa da, eta EAEna, berriz, % 1ekoa. Aztertutako herrialdeen artean, 15 batek % 2tik gorako gastua egiten du alor horietan; hau da, EAEn bikoitza. Aldeak txikiagoak badira ere –eta 10 bat herrialdek gastu txikiagoa dute–, Euskadi EB 15en batezbestekoaren azpitik dago zuzeneko arretako zerbitzuen gastuan ere, baita Haur Hezkuntzako gastua gehitu ondoren ere.

Nolanahi ere, orain arte bildu ditugun datuak ESSPROS metodologiatik eta Hezkuntzaren Kontutik atera dira, eta ez dute jasotzen administrazioek zerga-gastu deritzonaren bidez familiei laguntzeko politiketan egiten duten gastua (zerga-salbuespenak, zerga-desgrabazioak, hobariak eta halakoak). EAEn kasuan, garrantzitsua da era horretako zerga-gastuak kontuan hartzea; izan ere, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Planaren memoriaren arabera, EAEko foru-ogasunek 237 milioi euro gastatu zituzten guztira, 2008an, familiei laguntzeko politiketan (egia esan, ez zituzten gastatu, kobratu gabe utzi baizik, kantitate horiek PFEZen aitortzen deskontatzen baitira).

Dena den, gastu-mota hori kontuan hartuta ere, familiei laguntzeko politiketan egin den gastu publiko osoa BPGrekiko neurtzen bada, Europar Batasuneko herrialdeen artean azkenetarikoa

egongo litzateke EAE. Frantzia gastu osoa BPGren % 3,68 da; Alemanian, % 3,74; eta Belgikan, % 3,29; EAEn, ordea, gastu osoa BPGren % 1,34 baino ez litzateke izango, eta Europar Batasunean aztertutako herrialdeen atzetik geratuko litzateke (ikus eranskineko 9. taula). Frantziaren eta Alemaniaren ahalegina, esaterako, ia EAEk egindakoaren hirukoitza zen 2007an.

Gutzizko gastua BPGrekiko oso txikia izateaz gain, EAEk familian egiten duen gastuaren berezitasun bat da zerga-desgrabazioek pisu handia dutela guztizko gastu horretan. Poloniak eta Holandak soilik jotzen dute proportzio handiagoan zerga-desgrabazioetara, familiei laguntzeko paketea osatzean. Alemaniak ere neurri handian jotzen du zerga-desgrabazioetara (gastuaren % 23), baina era horretako neurriek Euskadin duten pisuaren (gastu osoaren % 25,4) azpitik geratzen da. Familiei laguntzeko politiken gastu osoaren pisu handi bat zerga-gastuetan jartzearen eragozpen nagusia da diru-sarrera baxuenak dituzten familiek onura gutxiago jasotzen dituztela zerga-salbuespen eta zerga-desgrabazio horietatik; izan ere, laguntza horiek ez dituzte inoiz gaintzen ogasun publikoak kontuan atxikitako kantitateak, eta errenta baxuak dituzten familia-unitateen atxikipenak errenta handiak dituztenenak baino baxuagoak izaten dira, edo ez dute atxikipenik izaten, eta, beraz, ezin dituzte laguntza mota horren onurak jaso.

Nolanahi ere, Euskadiren eta Europar Batasuneko herrialdeen arteko aldeak testuinguruan jartzeko, beharrezkoa da kontuan hartzea Europako familia-politikek dimentsio unibertsalista nabarmena dutela, herrialde horiek oso diru-sarrera publiko handiak dituztelako, eta horrek zaildu egiten duela politika horiek Espainian eta Euskadin egiten direnekin alderatzea; izan ere, Espainian eta Euskadin gastua askoz selektiboagoa da, diru-sarrera publikoak askoz baxuagoak direlako. Alde horretatik, ezin dugu ahaztu Espainiako eta Euskadiko administrazio publikoen diru-sarrerak BPGren % 37-38 zirela 2008an, eta Frantzia, esaterako, % 49,9. Beraz, logikoa da BPGren zati handiago bat itzultzea herritarrengana, zerbitzuen eta prestazioen bidez. Hortaz, alderaketa errealak egin ahal izateko, isolatu egin beharko litzateke, nolabait, politika unibertsalisten bidez dirua haurrengana itzultzeko bide hori. Egia esan, diru-sarreraren BPGren gaineko ehunekoa Frantziako berbera izango balitz Euskadin, gastu-egitura berdina izanik, Frantziak familian egiten duen gastua Euskadikoaren hirukoitza izan beharrean, 1,5era murriztuko litzateke defizitik gabeko gastu estandarizatuaren aldea. Kopuru horrek hobeto adierazten du gastuaren aldea, alor bakoitzeko diru-sarrerei eta behar errealei dagokienez. Gainera, diru-sarrerak bermatzeko errenten politikek duten efektua kontuan hartuko balitz, aldea txikiagoa izango litzateke ziur asko.

Horrekin esan nahi duguna da, alde batera uzten baditugu gizarte-politiken osotasuna, administrazio publikoen diru-sarrera eta gastu maila eta egiturak, eta gizarte-ekintzek familien

diru-sarreretan duten eragina, egin daitezkeen alderaketak orientagarriak baino ez direla, eta partzialak direla ezinbestean. Beraz, komeni da alor horretan aurrerapenak egitea, eta herritarrek zergen bidez egiten duten ekarpena eta jasotzen dituzten zerbitzuak eta prestazioak kontuan hartzen dituzten metodologiak sortzea zenbait herrialdetarako. Hartara, jakin ahal izango genuke zer eragin garbi izan duten herrialde bakoitzeko politikek herritar guztiengan nahiz talde soziodemografiko eta errenta-talde bakoitzarengan¹¹.

3.3. Seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoak

3.3.1. Ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoak, jaiotzagatik

Atal honetan sartzen dira seme-alabak jaiotzeagatik ematen diren ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoak, selektiboak nahiz unibertsalak. Ez daude eskema honen barruan Espainiako Gobernuak jaiotza bakoitzagatik ematen zituen 2.500 euroko diru-laguntza unibertsalak, 2011n indargabetu zirelako. Atal honetan, bereizi egin dira jaiotzagatiko diru-laguntzak eta erditze anizkoitzagatik edo nazioarteko adopzioagatik ematen direnak.

2. koadroa. Jaiotzagatiko prestazio ekonomikoak autonomia-erkidegoetan eta Estatuan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
EAE	<p>Jaiotzagatiko prestazio ekonomikoa Ordainketa bakarreko prestazio ekonomiko unibertsala, 400 eurotik 900 eurora bitartekoa familiaren errentaren arabera, lehen semea edo alaba jaiotzeagatik. 3. koadroan adierazi den moduan, bigarren semetik edo alabatik aurrera, prestazio ekonomikoa aldizkako bihurtzen da (bigarren haurraren kasuan, bi ordainketa, lehenengo urtean 1.100 euro eta bigarrenean 400 euro, eta hirugarren haurraren eta hurrengo kasuan, sei ordainketa, urte bakoitzean bat).</p> <p>Erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko prestazio ekonomikoa Familia-unitatean zenbatgarren semea edo alaba den kontuan hartuta ematen diren laguntzez gain, aldi berean bi jaiotza edo gehiago gertatzen badira, ordainketa bakarreko laguntza bat dago, 2.000 eurotik 4.000 eurora bitartekoa, erditze berean jaiotako edo aldi berean adoptatutako adingabeen kopuruaren arabera eta familia-unitatearen errenta-mailaren arabera.</p> <p>Nazioarteko adopzioagatiko prestazioa Familia-unitatean zenbatgarren semea edo alaba den kontuan hartuta ematen diren laguntzez gain, nazioarteko adopzioen kasuan ordainketa bakarreko laguntza bat dago, 3.500 eurotik 7.000 eurora bitartekoa, aldi berean adoptatutako adingabeen kopuruaren arabera eta familia-unitatearen errenta-mailaren arabera.</p>
Katalunia	<p>Jaiotzagatiko prestazio ekonomikoa Katalunian ez dago ordainketa bakarreko edo aldizkako prestazio ekonomikorik jaiotzako.</p> <p>Jaiotza edo adopzio anizkoitzagatiko prestazio ekonomikoa Kataluniak gutxienez bi haur jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik prestazio ekonomiko bat dauka, eta arauak desberdinak dira modalitate unibertsala edo selektiboa den kontuan hartuta. Prestazio unibertsalaren kasuan, zenbatekoak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 663 € familiako, erditzea, adopzioa, tutoretza edo haurrena bada aldi berean. - 1.020 € familiako, erditzea, adopzioa, tutoretza edo haurrena hiru haurrena bada aldi berean. - 1.224 € familiako, erditzea, adopzioa, tutoretza edo haurrena lau haurrena bada aldi berean. <p>Prestazio selektiboaren kasuan, zenbatekoak honako hauek dira:</p>

¹¹ J. Bradshaw egileak, adibidez, horrelako ikuspegiak garatu ditu; izan ere, zenbait familia-osaketa tipikok jasotzen dituzten zerbitzu-“paketeak” alderatu ditu, eta mikrosimulazioko tresnak erabili ditu, hala nola EUROMOD proiektua.

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
	<ul style="list-style-type: none"> - 2.448 euro familia-unitateko, baldin eta diru-sarrerak Kataluniako nahikotasun-errentaren adierazlea (IRSC) halako 3 baino handiagoak badira, eta adierazle hori halako 7 baino baxuagoak, familia-unitateko kide-kopuruaren arabera haztatuta. - 3.264 euro familia-unitateko, baldin eta diru-sarrerak Kataluniako nahikotasun-errentaren adierazlea (IRSC) halako 3 baino baxuagoak badira, familia-unitateko kide-kopuruaren arabera haztatuta.
Madril	
Nafarroa	<p>Jaiotzagatiko prestazio ekonomikoa (hirugarren semea edo alaba eta hurrengoak)</p> <p>Nafarroan ordainketa bakarreko laguntza bat dago, 2.503 eurokoa, hirugarren semearen edo alabaren eta hurrengo kasuan, edo haurrak % 25etik gorako minusbalioetasunen bat duela frogatuz gero. Laguntza selektibo bat da, familia onuradunen errentarekin eta laguntzaren onurak jasotzen dituzten adingabeen kopuruarekin lotuta baitago, eta ez da bateragarria eszedentziagatiko laguntzekin.</p>
Estatua	<p>Familia ugariak, guraso bakarreko familiek edo desgaitasunen bat duten amek izandako jaiotzeagatiko edo adopzioengatiko prestazioa</p> <p>2007ko azaroaren 16tik aurrera familia ugarietan, guraso bakarreko familietan edo desgaitasunen bat duten amengandik jaio diren edo adoptatuak izan diren seme-alabei ematen zaie. Prestazio selektibo bat da, eta ordainketa bakarra 1.000 eurora artekoa izan daiteke, baina gutxituz joaten da familiaren errentak gora egiten duen neurrian. Prestazio hori ez da bateragarria gurasoek edo adoptatzaileek gizarte-babeserako gainerako araubide publikoetan ezarritako antzeko beste edozein prestazio jasotzearekin.</p> <p>Erditze edo adopzio anizkoitzagatiko prestazio ekonomikoa</p> <p>Ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa unibertsala da, eta aldi berean bi haur edo gehiago jaiotzen edo adoptatzen direnean ematen da. Honako hauek dira prestazioaren zenbatekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2.565,60 euro, bi seme-alaba badira. - 5.131,20 euro, hiru seme-alaba badira. - 7.696,80 euro, lau seme-alaba badira. <p>Gizarte-babeserako gainerako araubide publikoetan era horretako prestazioak jasotzeko eskubiderik ez duten familiek soilik jaso ditzakete laguntza horiek.</p>

3. koadroa. Jaiotzagatiko prestazio ekonomikoa Europako beste herrialde batzuetan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
Alemania	<p>Jaiotzagatiko prestazio ekonomikoa</p> <p>210 euroko ordainketa bakarra, amatasunagatiko prestazioa jasotzeko eskubiderik ez daukaten pertsonentzat.</p>
Frantzia	<p>Jaiotzagatiko prestazio ekonomikoa</p> <p>Prestazio selektibo bat da, diru-sarreren baitan baitago, eta jaiotza edo adopzio bakoitzagatik ematen da. Diru-sarreren muga 32.238 eurokoa da seme edo alaba bakarra eta familian diru-sarrera bakarra edukiz gero, eta 42.722 eurokoa, guraso bakarreko familiak izanez gero edo bi diru-sarrera dituzten bikoteak izanez gero. Prestazioaren zenbatekoa honako hau da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 907,60 €, haurdunaldiaren 7. hilabetearen edozein seme edo alabarengatik. - 1.815,21 €, 20 urtetik beherako adingabe bat adoptatzeagatik.
Italia	
Suedia	<p>Nazioarteko adopzioagatiko prestazioa</p> <p>Nazioarteko adopzioaren kasuan, 4.382 euroko prestazio bat ematen da ordainketa bakarrean.</p>
Norvegia	<p>Jaiotzagatiko prestazio ekonomikoa</p> <p>Seme edo alaba bakoitzaren jaiotzagatik edo adopzioagatik 4.528 euroko prestazio bat ematen da, baldin eta amak edo aitak ez badute gurasotasun-bajarik hartu behar.</p>

3.3.2. Ardurapeko seme-alabengatiko aldizkako diru-laguntzak

Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntzen barruan honako hauek sartzen dira: familiei ematen zaizkienak seme-alabek adin jakin bat bete arte, haiek haztearen gastuak ordaintzen laguntzeko –selektiboak nahiz unibertsalak izan daitezke–. Beraz, ez dira kontuan hartzen ama edo aita izatean errentak ordezkatzeko diru-laguntzak, jaiotzagatik edo adopzioagatik emandako laguntzak, eszedentzien edo lanaldi-murrizketen bidez familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko diru-laguntzak, eta haurren arretarako gastuak (haurtzaindegiak, familiako zaintzaileak...) finantzatzeko diru-laguntzak.

4. koadroa. Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntzak, aztertutako herrialdeetan eta autonomia-erkidegoetan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
EAE	<p>Eusko Jaurlaritzak ardurapeko seme-alabengatik ematen dituen prestazio ekonomikoak</p> <p>Jaiotzagatiko laguntzez gain, bi seme-alaba dituzten familien kasuan, Eusko Jaurlaritzak 400 euroko laguntza bakarria ematen du. Laguntza unibertsala da, eta lehenengo urtebetetzean ematen da. Hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familien kasuan, berriz, 6.300 euroko laguntza bat ematen du, zazpi urterokotan, epe hori amaitu arte. Prestazio hori hilean 75 euro jasotzearen parekoa da.</p>
Katalunia	<p>Ardurapeko seme-alabengatiko prestazio ekonomikoak</p> <p>Ardurapeko seme-alabengatiko prestazio unibertsala indarrik gabe geratu da, aldi baterako, 2012an. Ordura arte, diru-laguntza unibertsal bat zegoen seme-alaben ardura zuten familia guztientzat, eta seme-alabek hiru urte bete arte ematen zen. 638 euro ematen ziren, urteko, seme edo alaba bakoitzagatik. Hiru seme-alaba edo gehiago zituzten familien eta guraso bakarreko familien kasuan, 745 euro ematen ziren, urteko, seme edo alaba bakoitzagatik, harik eta seme-alabek sei urte bete arte.</p> <p>2012tik aurrera, prestazio horiek ez dira unibertsalak izango, eta diru-sarreraren baitan egongo dira.</p>
Madril	
Nafarroa	<p>Ardurapeko seme-alabengatiko prestazio ekonomikoak, lau seme-alaba edo gehiago dituzten familien kasuan</p> <p>Nafarroako Gobernuak aldizkako prestazio ekonomiko bat ematen du, selektiboa, lau seme-alaba edo gehiago dituzten familientzat, harik eta seme-alabek 18 urte bete arte. 413 euro ematen ditu urtean seme edo alaba bakoitzeko (laugarrenetik aurrera), eta, kategoria bereziko familia ugarien kasuan, 620 euro seme edo alaba bakoitzeko (laugarrenetik aurrera hori ere). Diru-sarrera mailak lanbide arteko gutxieneko soldata halako bostetik halako hamarrera bitartekoa izan behar du, kontuan hartuta zenbat seme-alabengatik jasotzen den prestazioa.</p> <p>Jaiotza edo adopzio anizkoitzagatik prestazio ekonomikoa</p> <p>Nafarroak aldizkako diru-laguntza unibertsal bat dauka jaiotza edo adopzio anizkoitzetarako. Honako hauek dira zenbatekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bikiak: 91,03 euro hilean, seme-alaben bizitzako lehenengo urtean zehar. - Hirukiak: 227,60 euro hilean, seme-alaben bizitzako lehenengo hiru urteetan zehar. - Laukiak: 303,47 euro hilean, seme-alaben bizitzako lehenengo hiru urteetan zehar. - Boskiak edo seme-alaba gehiago: hilean 75,86 euroko diru-laguntza gehigarri bat dago seme edo alaba bakoitzeko, eta handituz doa jaiotzen diren seme-alaben kopuruaren arabera. Seme-alabek 3 urte bete arte jaso daiteke.
Estatua	<p>Gizarte-segurantzak ardurapeko seme-alabengatik ematen dituen diru-laguntzak</p> <p>Gizarte-segurantzak kudeatutako eta finantzatutako diru-laguntza selektibo bat da. Diru-kopuru bat ematen zaie familiei, beren ardurapean duten 18 urtetik beherako seme edo alaba bakoitzagatik edo 18 urtetik gorakoa izan arren % 65eko edo hortik gorako desgaitasuna duen seme edo alaba bakoitzagatik. Diru-sarreraren muga 11.376,66 eurokoa da urtean. Zenbateko hori % 15 handitzen da familiaren ardurapean dagoen seme edo alaba bakoitzeko edo familian hartutako adingabe bakoitzeko, bigarrenetik aurrera (bigarrena barne). Ez da beharrezkoa diru-sarreraren mugarik izatea, diru-kopuru hori jaso ahal izateko familiaren ardurapean dagoen seme edo alaba minusbaliatu bakoitzagatik edo familian hartutako adingabe minusbaliatu bakoitzagatik. Familia ugarien kasuan, diru-sarreraren muga 17.122,59 euro da urtean, baldin eta familiak hiru seme-alabaren ardura baldin badauka. Laugarren seme edo alabatik aurrera (laugarrena barne), muga 2.773,39 euro handitzen da seme edo alaba bakoitzeko.</p> <p>Prestazioaren oinarriko zenbatekoa 291 euro da urtean; hau da, 24 euro hilean. Zenbatekoak nabarmen handitzen dira, % 33tik, % 65etik edo % 75etik gorako minusbaliotasunak dituzten adingabeen kasuan. Lehenengo kasuan, prestazioa 1.000 euro da urtean; bigarrenean, 4.292 euro urtean; eta hirugarrenean, 6.439 euro urtean. Gainera, kasu horietan ez dago errentaren arabera aukeratzeko irizpiderik.</p>

5. koadroa. Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntzak Europako beste herrialde batzuetan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
Alemania	<p>Ardurapeko seme-alabengatiko prestazio ekonomikoak Seme-alabengatiko prestazioa (<i>kindergeld</i>) unibertsala da, eta lehenengo seme edo alaba izaten denetik ematen da. Adingabeak 18 urte bete arte ematen da. Dena den, 21 urtera arte luza daiteke enplegu-eskatzailen kasuan, eta 25 urtera arte, ikasten ari diren edo boluntario-zerbitzuak egiten dituzten gazteen kasuan. Desgaitasunen bat duten seme-alaben kasuan, ez dago adin-mugarik. Prestazioa bateragarria da semearen edo alabaren diru-sarrerekin – halakorik baldin badu–, urtean 8.004 euro gainditzen ez baditu behintzat. Hilabete bakoitzean prestazioagatik jasotzen diren zenbatekoak seme-alaba kopuruaren arabera dira, eta handituz doaz hirugarren semetik edo alabatik aurrera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. semeagatik edo alabagatik, 184€ - 2. semeagatik edo alabagatik, 184€ - 3. semeagatik edo alabagatik, 190€ - 4. semeagatik edo alabagatik eta hurrengoagatik, 215€ <p>Ardurapeko seme-alabengatiko laguntza-prestazioa Kantitate jakin bat (900 euro bikoteko eta 600 euro pertsona bakarreko) baino diru-sarrera baxuagoak izanez gero, laguntza-prestazio bat jaso daiteke ardurapean dagoen seme edo alaba bakoitzagatik (<i>kinderzuschlag</i>). Laguntza horren zenbatekoa 140 euro da hilean haur bakoitzeko, eta gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko prestazio arruntekin (Hartz IV) batera daiteke. Kantitate hori baino handiagoak diren diru-sarrerak dituztenei ere ematen zaie subsidioa, baina 0,50 murrizten da diru-sareren euro gehigarri bakoitzeko, eta, beraz, laguntza hori jasotzeko eskubidea desagertu egiten da, bikote batek 1.180 euroko edo hortik gorako soldata bat baldin badu.</p>
Frantzia	<p>Ardurapeko seme-alabengatiko prestazio ekonomikoak Ardurapeko seme-alabengatiko prestazioak unibertsalak dira, eta bigarren seme edo alaba izaten denetik aurrera ematen dira, haurrak 20 urte bete arte, baldin eta adingabearen diru-sarrerak ez badute gainditzen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 55. Honako hauek dira hilean ematen diren zenbatekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2 seme-alabarengatik: 126,41€ - 3 seme-alabarengatik: 288,38€ - 4 seme-alabarengatik: 450,35€ - 5 seme-alabarengatik: 612,32€ - 6 seme-alabarengatik: 774,29€ - Hurrengo seme edo alaba bakoitzarengatik: 161,97€ <p>Adierazitako zenbatekoak adinaren arabera egokitzen dira (seme-alaba guztien kasuan, hiru seme-alaba baino gutxiago dituzten familietako lehenengo semearen edo alabaren kasuan izan ezik): 1997ko maiatzaren 1a baino lehen jaiotako seme-alaben kasuan, 35,55 € gehigarri ematen dira 11 urtetik gorakoengatik eta 63,21 € gehigarri ematen dira 14 urtetik gorakoengatik; 1997ko maiatzaren 1aren ondoren jaiotako seme-alaben kasuan, berriz, 63,21 € gehigarri ematen dira 14 urtetik gorakoengatik. Gainera, Frantziako sistemak zenbateko finkoko prestazio bat ematen die hiru seme-alaba izan eta haietako batek 20 urte bete dituelako familia-prestazioen zati bat galtzen duten familiei. Prestazio hori urtebetez ematen da gehienez, semeak edo alabak 20 urte betetzen dituen hilabetetik eta egunetik hasita. Zenbatekoa 78,36 € da hilean.</p> <p>Familia-osagarria Familia batek 3 urtetik gorako hiru seme-alaba baldin baditu gutxienez, eta familiaren diru-sarrerak ez badute gainditzen atalase jakin bat (35.848 €, diru-sarrea bakarra duten bikoteen kasuan), hilean 163 euroko osagarri bat jaso dezake.</p> <p>Osasun-azterketak ordaintzeko prestazio ekonomikoak Era berean, oinarrizko diru-laguntza bat dago, haurrak nahitaezko osasun-azterketak egin ahal izateko jaiotako hurrengo 8 egunetan, lehenengo 9 hilabeteetan eta lehenengo 24 hilabeteetan. 3 urtetik beherako haurrak dituzten familiak izan daitezke onuradunak, edo adoptatu duten familiak, adoptatu eta hurrengo hiru urteetan. Prestazio hori diru-sareren muga batzuen baitan dago (jaiotzagatiko edo adopzioagatiko prestazioaren kasuko muga berberak dira). Prestazioaren zenbatekoa 172,77 € da familiako eta hileko. 3 urtetik gorako hiru seme-alabaren edo gehiagoren ardura duten familiek 156,60 euroko familia-gehiarri bat jaso dezakete hilean.</p>
Italia	<p>Ardurapeko seme-alabengatiko prestazio ekonomikoak Laguntza selektiboak dira, nahiz eta laguntzak jaso ahal izateko errenta-muga handi samarra den, eta seme-alabak adinez nagusi egin arte ematen dira. Prestazioen zenbatekoek korrelazio negatiboa dute familiaren diru-sarrerekin, eta korrelazio positiboa familiako kide-kopuruarekin. Beraz, ezin dira zenbateko zehatzak adierazi.</p> <p>Adibidea: 4 kideko familia bat, seme edo alaba desgaiturik gabe.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Urtean 13.422,52 eurora arteko diru-sarrerekin, hilean 258,33 euroko prestazioa. - Urtean 26.308,14 eurotik 26.405,50 eurora bitarteko diru-sarrerekin, hilean 127,25 euroko prestazioa. - Urtean 72.481,58 eurotik gorako diru-sarrerekin, ez dago prestaziorik. <p>Horrez gain, amatasunagatiko udal-subsidio bat dago seme edo alaba bakoitzagatik, baina ez da bateragarria aurreko prestazioarekin. 316,25 euro dira hilean, eta 5 hilabetean ordaintzen da; hau da, 1.581,25 € guztira. Prestazioa familiaren baliabideekin lotuta dago.</p>
Suedia	<p>Ardurapeko seme-alabengatiko prestazio ekonomikoak <i>Barnbindrag</i> delakoa prestazio unibertsal bat da, eta lehenengo seme edo alaba izaten denetik ematen da, harik eta 16 urte betetzen dituen arte. 118 euro dira hilean, seme edo alaba bakoitzagatik. Horrez gain, familia ugaria izateagatik osagarri bat dago, eta, beraz, zenbatekoak honako hauek dira:</p>

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
	<ul style="list-style-type: none"> - Seme edo alaba batengatik: 118 euro - Bi seme-alabarengatik: 253 euro - Hiru seme-alabarengatik: 423 euro - Lau seme-alabarengatik: 656 euro - Bost seme-alabarengatik: 915 euro <p>16 urte bete ondoren ere jaso daiteke prestazioa, baldin eta familiaren ardurapean dagoen adingabeak eskolatuta egoten jarraitzen badu. Kasu horretan, ikasketa-prestazio (<i>studiebidrag</i>) deritzona eskura daiteke.</p>
Norvegia	<p>Ardurapeko seme-alabengatiko prestazio ekonomikoak</p> <p>Prestazio unibertuala da, eta lehenengo seme edo alaba izaten denetik ematen da. 125 € ematen dira hiban seme edo alaba bakoitzeko, nahiz eta herrialdeko toki batzuetan 41 euroko gehigarri bat dagoen haur bakoitzeko. 3 urtetik beherako seme edo alabaren bat duten guraso bakarreko familiek 85 euroko gehigarria jasotzen dute. Seme-alabengatiko prestazioen osagarri gisa, honako subsidio hauek daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Seme-alabak dituzten langabeentzat, 2,18 € eguneko, 18 urtetik beherako seme edo alaba bakoitzeko. - Seme-alabak dituzten pentsiodunentzat, gutxieneko pentsioaren % 20, 18 urtetik beherako seme edo alaba bakoitzeko.

3.4. Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak

3.4.1. Amatasun- eta/edo aitasun-bajak

Atal honetan, aztertuko dugu zer prestazio ematen dizkien gizarte-segurantzak lan egiten duten amei eta/edo aitei, haurdunaldiगतिक eta erditzeगतिक. Espainiako autonomia-erkidegoek ez daukatenez eskumenik alor horretan, Estatuaren atalean dago bilduta Kataluniari, Madrili, Nafarroari eta EAEn buruzko informazioa.

6. koadroa. Amatasun- edo aitasun-baimenaren prestazio ekonomikoak Europako herrialdeetan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
Espainia	<p>Amatasunगतिक prestazio ekonomikoa</p> <p>Amatasunगतिक prestazio ekonomikoa dagokion oinarri arautzailearen % 100 da, eta amatasun biologikoa, adopzioaren, familia-harreraren eta tutoretzaren kasuan legean ezarritako lan-atsedenaldiak hartzen dituzten langile guztientzat da. Atsedenaldiak 16 aste irauten du jarraian, eta luza daiteke, erditze, adopzio edo harrera anizkoitzen kasuan, desgaitasunen kasuan eta jaioberria ospitalizatzearen kasuan. Atsedentaldia lanaldi osoaren edo lanaldi partzialaren erregimenean har daiteke.</p> <p>Hauek dira prestazioa eskuratzeko beharrezko baldintzak: (1) afiliatuta egotea eta altan edo altarekin parekatutako egoeran egotea eta (2) erditze-egunaren edo atsedenaldiaren hasieraren aurreko 7 urteetan 180 egun kotizatu izana edo, bestela, lan-bizitza osoan 360 egun kotizatu izana.</p> <p>Aitasunगतिक prestazio ekonomikoa</p> <p>Aitasunगतिक prestazioak babestu egiten du langileak jaiotzagatik, adopzioगतिक edo harrerगतिक lan-kontratua eteten duen egunetan edo jarduera uzten duen egunetan subsidio bat jasotzeko duen eskubidea. Gertakizun arruntगतिक aldi baterako ezintasunaren prestazioari dagokion oinarri arautzailearen % 100eko subsidio bat da prestazio ekonomikoa.</p> <p>Gehieneko iraupena honako hau da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 13 egun jarraian, eta erditze, adopzio edo harrera anizkoitzen kasuetan, 2 egun gehitu daitezke bigarrenetik aurrerako seme edo alaba bakoitzeko. - 20 egun, jaiotza, adopzio edo harrera berria familia ugari batean gertatzen bada edo, gertaera horren ondorioz, familia ugari bihurtzen bada, edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsonaren bat baldin badago familian. Erditze, adopzio eta harrera anizkoitzen kasuetan, 2 egun gehituko dira bigarrenetik aurrerako seme edo alaba bakoitzeko. - 20 egun, jaiotako, adoptatutako edo familian hartutako semeak edo alabak gutxienez % 33ko desgaitasuna baldin badu.

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
	Erditzearen kasuan, beste gurasoak soilik har dezake aitatasunagatiko atsedendia. Adopzioaren edo harreraren kasuan, guraso batek bakarrik hartuko du atsedendia –interesdunek aukeratzen dutenak, biak ari badira lanean–. Dena den, haietako batek amatasun-baimen osoa erabili badu, beste gurasoari emango zaio aitatasun-subsidioa.
Alemania	<p>Amatasunagatiko prestazio ekonomikoa Asegurudun emakumeak, haien ezkontideak eta haien seme-alabak dira amatasun-baimenen onuradunak. Amatasun-baimenaren iraupena da 6 aste erditzearen aurretik eta 8 aste erditzearen ondoren, eta beste 4 astez luzatzen da, erditze anizkoitzaren edo erditze goiztiarren kasuan.</p> <p>Amatasunagatiko prestazioaren zenbatekoa soldataren % 100 da, eta gehienez 13 € eguneko.</p> <p>Aitatasunagatiko lizentzia ordaindua Aitatasun-baimenagatik 2 egun ordaindu hartzen dira, eta beste 2 egunetz luza daiteke baimena, beharrezkoa bada lekualdatzea.</p>
Frantzia	<p>Amatasunagatiko prestazio ekonomikoa Gutxienez ere erditzearen aurreko 10 hilabeteetan gizarte-segurantzaren erregimenean afiliatuta egon diren emakumeak dira amatasun-baimenaren onuradunak. Prestazioak jasotzeko eskubidea haurra edukitzen den datan, amatasun-baimenarekin batera, adopzioagatiko baimenarekin batera edo aitatasun-baimenarekin batera hasten da. Baimenak honako iraupen hau du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 16 aste (6 erditzearen aurretik eta 10 erditzearen ondoren) - 2 aste gehiago jaiotzearen ondoren, haurdunaldi patologikoaren kasuan. - 26 aste (8 erditzearen aurretik), hirugarren semearen edo alabaren kasuan. - 34 aste (12 erditzearen aurretik), bikien kasuan. - 46 aste (24 erditzearen ondoren), jaiotza anizkoitzagatik (bikien kasuan izan ezik). - Erditzearen aurreko amatasun-baimena jaiotzearen ondorenera atzera daiteke (3 astez gehienez eta medikuaren ikuskaritzapean). - Erditzea goiztiarra bada eta haurra jaioberrientzako zerbitzu batean ospitalizatzen bada, baimena legezko mugetatik harago luza daiteke. <p>Laguntzaren zenbatekoa soldataren % 100 da; gutxienez 8,90 eurokoa izan behar du eguneko, eta gehienez 77,78 eurokoa.</p> <p>Aitatasunagatiko lizentzia ordaindua Lizentzia ordaindua 11 eguneko da (18 eguneko erditze anizkoitzaren kasuan), eta erditzearen ondorengo 4 asteetan hartu behar da.</p>
Italia	<p>Amatasunagatiko prestazio ekonomikoa Amatasunagatiko prestazioak bost hilabete irausten du (20 aste), eta horietatik bat edo bi erditzearen aurretik erabil daitezke, eta hiru edo lau, ondoren. Tarte horretan, prestazioaren zenbatekoa aurreko soldataren % 80 da. Beste sei hilabete eskatzeko aukera ere badago, eta aitak zein amak eska ditzake. Kasu horretan, prestazioa aurreko soldataren % 30 da.</p>
Suedia	<p>Amatasunagatiko eta/edo aitatasunagatiko prestazio ekonomikoa Norberaren kontura nahiz besteren kontura lan egiten duten eta erditzearen aurretik gutxienez 180 egunetan aseguratuta egon diren emakumeak eta gizonak dira amatasun- eta/edo aitatasun-baimenen (<i>foraldrapening</i>) onuradunak. Amatasunagatiko prestazioa 50 egunetz ordaintzen da gehienez ere erditzearen aurreko 60 egunetan, baldin eta fetua arriskuan badago haurdunaldian zehar (<i>havandeskapspenning</i>). Erditzearen ondoren, gurasotasunagatiko prestazioa 480 eguneko da (68 aste), eta bi gurasoek erabil dezakete semearen edo alabaren bizitzako lehenengo 8 urteetan zehar. Gurasoek egun horiek erdi bana egiteko eskubidea dute. Prestazioaren zenbatekoak hiru maila ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo kasuan, soldataren % 80 kobratzen da, gaixotasun-aseguruaen arauari jarraiki. - Ez baldin bada nahikoa kotizatu, prestazioaren zenbatekoa 20 euro da eguneko. - Prestazioaren azkeneko 90 egunetan, zenbatekoa 20 euro da eguneko, 2006aren ondoren jaiotako haurren kasuan, eta 7 euro eguneko, data horren aurretik jaiotako haurren kasuan. <p>Aitatasunagatiko lizentzia ordaindua Aitatasun-baimenaren bidez, 10 egunetan prestazio ordainduak ematen dira soldataren % 80ekin, eta semea edo alaba jaiotze edo adoptatu eta hurrengo bi hilabeteetan jasotzen dira. Egoera berezietan, aita ez den beste pertsona bat izan daiteke onuraduna.</p>
Norvegia	<p>Haurdunaldi arriskuagatiko prestazio ekonomikoa Semea edo alaba kaltetzeko arriskuagatik haurdunaldian zehar lan-jarduera eten behar duten emakumeek prestazio ekonomiko berezi bat eska dezakete, gaixotasun arruntagatiko bajaz bestelakoa. Prestazioa ezin da jaso erditzearen aurreko hiru asteetan; izan ere, data horretatik aurrera, ohiko amatasun-baja jasotzen da.</p> <p>Amatasunagatiko prestazio ekonomikoa Prestazioa 47 astean jaso daiteke gehienez ere, prestazioaren % 100ekin, edo 57 astean, % 80ko tasarekin. Tarte horretatik, 12 aste aitarentzat izaten dira (diru-sarreraren % 100ean), eta ezin ditu amak hartu. Nolanahi ere, prestazioaren iraupen zehatza haurraren jaiotza-dataren baitan dago, zenbait lege-aldaketa egon ziren eta. Erditzearen aurreko 3 asteetan eta erditzearen ondorengo 6 asteetan, amak soilik har dezake amatasun-baja; 2011ko uztailaren 1aren ondorengo jaiotzearen kasuan, aitak aste horietako 12 hartu behar ditu (aitaren kuota), eta gainerako denbora biek erabakitako moduan bana dezakete. Prestazioa lanaldi partzialeko lanpostu batekin batera daiteke, eta</p>

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
	zenbatekoa modu proportzionalan murrizten da. Aitareen kuota Haurraren aitak <i>aitaren kuota</i> delakoa erabili behar du, baldin eta haurra 2011ko uztailaren 1aren ondoren jaio bada. Aitak bakarrik har dezake 12 asteko baja hori.

3.4.2. Seme-alabak zaintzeko baimenak eta lanaldi-murrizketak

Atal honetan, aztertuko dugu zer lege-xedapen dauden, herrialde bakoitzean, seme-alabak zaintzeko eszedentziak edo lanaldi-murrizketak hartu ahal izateko, alde batera utzita aurreko atalean azaldu ditugun amatasun-bajak eta -baimenak eta hurrengo atalean arrazoi horrengatik diru-sarreretan izandako galera konpentsatzeko agertzen diren diru-laguntzak. Espainiako autonomia-erkidegoek ez daukatenez eskumenik alor horretan, Estatuaren atalean dago bilduta Kataluniari, Madrili, Nafarroari eta EAEn buruzko informazioa.

7. koadroa. Seme-alabak zaintzeko baimenak eta lanaldi-murrizketak

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
Espainia	Senitartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa Langileen Estatutuaren 37.5 artikulua araberak, "Legezko zaintza dela eta zortzi urte baino gutxiagoko haurra edo elbarri fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa (ordaindutako jarduerarik betetzen ez duena) zuzenean zaindu behar duen langileak lanaldia murrizteko eskubidea izango du, eta murrizketak dirauen bitartean soldata ere proportzio berean gutxituko zaio. Murrizketa, gutxienez lanaldiaren zortzi urte baino gehienez lanaldiaren erdikoa". Soldata lanaldi-murrizketaren proportzio berean murrizten da. Lanaldia zortzi urte baino gehienez bada, soldata ere zortzi urte baino gehienez murrizten da; lanaldia erdira murrizten bada, soldata ere erdira murrizten da. Soldataren murrizketak oinarriko soldatari nahiz soldata-orrian agertzen diren soldata-osagarriei eragiten die, eta horien arabera kotizatzen da gizarte-segurantzian. Senitartekoak zaintzeko eszedentzia Langileen Estatutuko 46.3 artikulua araberak, langileek eskubidea izango dute hiru urterako eszedentzia hartzeko, 3 urtetik beherako seme edo alaba bakoitza zaindu ahal izateko.
Alemania	Senitartekoak zaintzeko eszedentzia Seme-alabak zaintzeko eszedentziak 36 hilabete iraun dezake gehienez, nahiz eta prestazio ekonomikoa 24 hilabetean soilik jasotzen den (ikus hurrengo koadroa).
Frantzia	Senitartekoak zaintzeko eszedentzia Haurraren gurasoetako edozeinek har dezake baimen hau. Edozein unetan har daiteke, amatasunagatik edo adopzioagatik baimena amaitu ondoren. Lehenengo semearen edo alabaren kasuan, 6 hilabete irauten du gehienez; bigarrenaren kasuan, urtebete, eta bi luzapen egiteko aukera dago; eta hirugarrenaren eta hurrengoaren kasuan, gehienez ere urtebete irauten duen lizentzia bat eska daiteke. Gurasotasun-baimena haurrak 3 urte betetzen dituzenean amaitzen da, gehienez ere.
Italia	Senitartekoak zaintzeko eszedentzia Baimenak 10 hilabete irauten du, semearen edo alabaren lehenengo zortzi urteetan, eta 11 hilabete arte luzatzen da, aitak gutxienez ere 3 hilabete hartzen baditu. Baimenaz gain, 2 orduko lanaldi-murrizketa bat har daiteke, semearen edo alabaren bizitzako lehenengo urtean zehar.

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
Suedia	
Norvegia	

3.4.3. Eszedentziगतiko eta/edo lanaldi-murrizketगतiko diru-laguntzak

Atal honetan, lan egiten duten amek edo aitek seme-alabak zaintzeko eszedentziak edo lanaldi-murrizketak eskatzearen ondorioz diru-sarreretan izaten dituzten galerak konpentsatzeko prestazio ekonomikoak sartzen dira. Kanpoan geratzen da amatasun-baja edo -baimena.

8. koadroa. Familia eta lana bateragarri egiteko prestazio ekonomikoak autonomia-erkidegoetan eta Estatuan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
EAE	<p>Eszedentziगतiko edo lanaldi-murrizketगतiko diru-laguntzak Diru-laguntza unibertsalak dira, ez daudelako errenta-mailaren baitan, eta seme-alabak zaintzeko lan-jarduera eteten dutenentzat edo lanaldia murrizten dutenentzat dira. 2012. urtean, zenbatekoak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 3.255 euro, eszedentziगतिक. - 2.604 euro, lanaldia % 45 edo gehiago murrizteगतिक. - 2.325 euro, lanaldia % 40tik % 45era bitartean murrizteगतिक. - 2.046 euro, lanaldia % 33,33tik % 40ra bitartean murrizteगतिक. <p>Eszedentziak edo lanaldi-murrizketak mendetasuna duen edo oso osasun-egoera larrian dagoen senitartekoren bat zaintzeko hartzen diren kasuetan ere ematen dira laguntza horiek.</p>
Katalunia	
Madril	
Nafarroa	<p>Eszedentziगतiko edo lanaldi-murrizketगतiko diru-laguntzak Nafarroako Gobernuak diru-laguntza bat ematen du bi ezkontideak lanean ari diren eta haietako batek gutxienez ere 3 hilabeteko eszedentzia eskatzen duen kasuetarako. Laguntzaren zenbatekoa 417,27 euro da hilean (hau da, 5.004 euro urtean), eta iraupena honako hau da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bigarren semea edo alaba jaiotzen edo adoptatzen bada (edo lehenengoa, % 25etik gorako minusbaliotasuna baldin badauka): haurrak urte bat bete arte. - Hirugarren semea edo alaba edo hurrengoren bat jaiotzen edo adoptatzen bada (edo bigarrena, % 25etik gorako minusbaliotasuna baldin badauka): haurrak hiru urte bete arte. <p>Aitarene eszedentziगतiko edo lanaldi-murrizketगतiko diru-laguntzak Haurraren aitak hartzen badu eszedentzia, zenbatekoa 600 euro da hilean (7.200 euro urtean), lanaldi osoaren kasuan.</p>
Estatur	

9. koadroa. Familia eta lana bateragarri egiteko prestazio ekonomikoak Europako beste herrialde batzuetan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
Alemania	<p>Eszedentziगतiko edo lanaldi-murrizketगतiko diru-laguntzak <i>Elterngehd</i> edo gurasoentzako laguntza lan egiten ez duten edo lanaldi partziala duten (astean hogeita hamar ordu gehienez) eta seme-alabak zaintzen dituzten aitentzat eta amentzat da. Nolanahi ere, ez da, zentzu hertsian, eszedentziगतiko laguntza bat, aurrez langabezian zeuden pertsoneri ere ematen baitzaie –gutxieneko zenbatekoa–. Bereiz laguntza selektibo bat da, baina laguntza jasotzeko eskubiderik gabe geratzeko atalasea oso altua da (urtean 500.000 euroko diru-sarrerak).</p> <p>Prestazioa gutxienez 2 hilabetez eta gehienez 12 hilabetez jaso daiteke, eta haurrak 14 hilabete bete arte jasotzen da. Aitak eta amak ezin badute haurra zaindu, hirugarren mailara arteko senitartekoeak jaso dezakete prestazioa. Prestazioaren zenbatekoa 300 euro da gutxienez eta 1.800 euro gehienez hilean. Oro har, aurreko soldataren % 67koa izaten da laguntza, eta, laguntza jasotzen den bitartean laneko diru-sarreraren bat eskuratuz gero, laguntzaren</p>

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
	zenbatekoari kentzen zaio diru-sarrera hori. Zenbatekoa % 10 areagotzen da, 6 urtetik beherako haur gehiago baldin badaude familian.
Frantzia	<p>Eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketagatiko diru-laguntzak Frantziak prestazio ekonomiko bat dauka (<i>Complément de libre choix d'activité</i>), gurasoetako edozeinek lan-jarduera murriztu edo eten eta semea edo alaba zaindu ahal izateko. Era horretako osagarrietan, jarduera osorik edo zati batean uztea aukera daiteke, baina, familia ugarien kasuan (gutxienez hiru seme-alaba), lan-jarduera osorik utzi behar da. Prestazioaren iraupena 6 hilabetekoa da lehenengo semearen edo alabaren kasuan, eta 3 urtera artekoa bigarrenaren kasuan.</p> <p>Prestazioaren zenbatekoa 141 eurotik 560 eurora bitartekoa da hilean, kontuan hartuta zenbateraino eten den jarduera (osorik edo zati batean) eta aldizkako prestazio ekonomikorik jasotzen den edo ez ardurapean dagoen seme edo alaba bakoitzagatik. Prestazio hori ez da bateragarria beste pertsona batzuek haurrak zaintzeko ematen diren laguntzekin.</p> <p>Badago modalitate bat (jardueraren aukera askeko osagarria), tarte laburragoan zenbateko handiagoa jasotzeko aukera ematen duena, hiru seme-alaba edo gehiago edukiz gero. Zenbatekoa 626 eurokoa izan daiteke hilean (ardurapeko seme-alabengatiko prestazioa jasotzen bada), edo 809 eurokoa (ez bada prestazio hori jasotzen). 12 hilabeteen jaso daiteke.</p> <p>2004a baino lehen jaiotako haurren kasuan, gurasoek <i>Allocation parentale d'éducation</i> delakoa jaso dezakete; laguntza hori jasotzeko, beharrezkoa da familiak gutxienez ere bi seme-alaba edukitzea eta haietako batek 3 urte baino gutxiago izatea.</p> <p>Gaixorik dauden edo desgaitasunen bat duten haurrak zaintzeko prestazioa Gurasoen presentziaren eguneko subsidioa (AJPP) ematen zaie gurasoei, baldin eta 20 urtetik beherako seme edo alaba bat baldin badute, eta seme edo alaba horrek etengabeko arreta behar duen eta lana uztera behartzen duen gaixotasun eta/edo desgaitasunen bat baldin badu. Onuradunak eguneko prestazio bat jasotzen du, gehienez ere 22 egunehi hilean, 6 hilabeteko epean, eta 18 hilabetera arte luza daiteke gehienez. Tarte horretan, eguneko 310 kalte-ordain jaso daitezke gehienez. Laguntzaren zenbatekoa eguneko 41 eurotik 49 eurora bitartekoa da, familiaren osakeraren araberak, eta laguntza horrek 106 euroko osagari bat du hilean, baldin eta kopuru hori baino gehiago gastatzen bada medikueta eta farmaziako produktuetan.</p>
Italia	
Suedia	<p>Eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketagatiko diru-laguntzak Suediak aldi baterako laguntza bat du gaixotasun-egoerarako. 12 urtera arteko haurren gurasoei ematen zaie, lanaldia eteten badute. Eszedentzia gehienez ere 120 egunehi eska daiteke urte bakoitzean seme edo alaba bakoitzeko, eta lanaldi-uzte partzialak estal ditzake. Zenbatekoa gaixotasunagatiko prestazioaren % 80 da.</p>
Norvegia	<p>Gurasoek haurrak zaintzeko diru-laguntzak Norwegian, 1-3 urteko haurrak zaintzeko laguntza bat dago (<i>kontantstotte</i>). Haurra finantziario publikoa jasotzen duen haurren arretarako zentro batera joaten bada, prestazio partziala jaso daiteke, zenbat denboraz joaten den kontuan hartuta. Haurra finantziario publikorik jasotzen ez duen haurren arretarako zentro batera joaten bada edo ez bada haurren arretarako zentro batera ere joaten, berriz, prestazio osoa kobratzen da. Beraz, prestazioa jasotzeko ez da beharrezkoa aurrez lan-eszedentzia bat edo lanaldi-murrizketa bat hartu izana. Prestazioa 23 hilabetez jaso daiteke gehienez.</p> <p>Hileko zenbatekoak 443 eurotik (haurra ez bada eguneko zentro batera joaten) 88 eurora (asteen 25-32 ordu joaten bada) bitartekoak dira. Ez da laguntzarik ematen, astean 33 ordutan baino gehiagotan erabiltzen bada haurtzaindegia. Guztizko zenbatekoa ezin da izan oinarritzko zenbatekoa halako sei baino handiagoa; hau da, urtean 61.034 euro baino handiagoa.</p>

3.5. Beste laguntza batzuk

3.5.1. Haurrak zentroetan eta/edo beste pertsona batzuen esku utzita zaintzeko gastuak ordaintzeko diru-laguntzak

Kategoria honetan ikusiko dugu zer prestazio ekonomiko ematen diren, zenbait herrialdetan, derrigorrezko eskolatzearen aurretik, zaintzaileek edo haurren arretarako zentroek haurrak zaindu ditzatela finantzatzeko.

10. koadroa. Haurrak zentroetan eta/edo beste pertsona batzuen esku utzita zaintzeko gastuak ordaintzeko prestazio ekonomikoak autonomia-erkidegoetan eta Estatuan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
EAE	<p>Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatiko laguntzak Euskadik prestazio ekonomiko bat dauka, haur-zaintzaileak kontratatzearen kostuaren zati bat finantzatzeko. Beharrezkoa da gurasoek lanaldi osoko lan-jarduera bat izatea laguntza jasotzeko, familia ugarien kasuan izan ezik. Honako hauek dira laguntzaren zenbaterakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontratatzailearen kargurako gizarte-kostuen % 93, familia-errenta estandarizatua 28.000 eurokoa edo baxuagoa bada. - Kontratatzailearen kargurako gizarte-kostuen % 69,75, familia-errenta estandarizatua 28.000 eurotik gorakoa bada. <p>0-3 urteko haurrentzako Haur Hezkuntza zentroetarako laguntzak Hezkuntza Sailak diru-laguntzak ematen dizkie 0-3 urteko haurrei zerbitzuak ematen dizkieten zentro pribatuei eta udal-zentroei. Nahiz eta zentroak diren diru-laguntzen zuzeneko onuradunak, azken finean familiek jasotzen dituzte onura horiek. Zentro pribatuen kasuan, ikasturte bakoitzerako oinarritzko modulu gisa ezarritako plaza-kostuaren % 60 finantzatzen dute diru-laguntzek.</p> <p>0-3 urteko haurrak eskolatzeko laguntzak Hezkuntza Sailak, hezkuntzarako laguntzen deialdi orokorrean, 0-3 urteko geletan eskolatzeko beka ematen ditu. Errenta baxuko familiei soilik ematen zaie laguntza. 90 euro dira hilean, 0-1 urteko ikasleen kasuan, eta 200 euro, 3 urteko ikasleen kasuan.</p>
Katalunia	<p>0-3 urteko haurrak zentro pribatuetan eskolatzeko beka Generalitatek 800 euroko diru-laguntza bat ematen die urtean, ikasle bakoitzagatik, 0-3 urteko haurren arretarako zerbitzuak ematen dituzten zentro pribatuei.</p> <p>Haur-etxeetako kuota ordaintzeko salbuespenak Generalitatek errentaren arabera zenbait hobari ematen ditu, titulartasun publikoko haur-etxeetako kuota ordaintzeko. 5.990 eurotik beherako per capita errenta duen familiek jasotzen dute hobaria. Familia ugariak eta guraso bakarreko familiek ere jaso dezakete, haien errenta-maila edozein dela ere.</p>
Madril	<p>0-3 urteko haurrak zentro pribatuetan eskolatzeko beka Madrilgo Erkidegoak 0-3 urteko haurrak zentro pribatuetan eskolatzeko diru-laguntzen deialdi bat dauka. 2012an, bekaren laguntza 100 eurokoa izan da, eta lehia-erregimenean eman da, zenbait irizpideren arabera: errenta, gizarte-egoera...</p> <p>Amplía programa Madrilgo Erkidegoak, Emakumearen Zuzendaritza Nagusiaren bidez, eta Madrilgo Erkidegoko udal batzuen laguntzaz, Amplía programa jarri du martxan. Programaren helburu nagusia da norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egitea, eta, bereziki, emakumei lan-merkatuan sartzen eta lanari eusten laguntzea, haurrak zaintzen lagunduz eta eskolako ordutegia zabalduz. 12 urtera arteko seme-alabak dituzten eta lan-merkatuan sartu nahi duten edo lan-jarduerari eutsi nahi dioten emakumeentzat da programa, eta bi jarduerak hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Amplía horarios (ordutegiak zabaldu). Helburua da ordutegi zabalagoko zerbitzu berriak sortzea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentro publikoetan edo ludoteketan, 0-12 urteko haurrei arreta eman ahal izateko eskolako ordutegian eta/edo eskolaz kanpokoan. - Amplía formación (prestakuntza zabaldu). Prestakuntza-ekintza emakume langabeentzat da nagusiki, eta helburua da haien prestakuntza hobetzea eta lan-merkatuan sartzen laguntzea, Amplía haurren zaintzaz eta hezkuntzaz arduratzen den bitartean.
Nafarroa	<p>Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatiko laguntzak Nafarroako Gobernuak laguntza-programa bat dauka, etxeko lanetan eta/edo adingabeei, zaharrei edo mendetasun ertaina duten pertsonen laguntza ematen duten pertsonak kontratatzeko, eta, hartara, familiei norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko. Era horretako kontratazioak egiten dituzten pertsonen pertsona kontratatuaren lan-kostuaren (hau da, kontratatzailearen kargurako soldata eta gizarte-segurantzaren gastua) % 20ko diru-laguntza jasotzen dute. Diru-laguntza hori 180 eurokoa izan daiteke gehienez hilean.</p> <p>Zaintzaileek 3 urtetik beherako haurrak etxe partikularretan zaintzeko programetarako diru-laguntzak Nahiz eta ez diren familientzako zuzeneko diru-laguntzak, Nafarroak zenbait diru-laguntza ematen ditu 3 urtetik beherako haurrak etxe partikularretan zaintzeko programaren zati bat finantzatzeko. Programa horren esparruan, 5 orduko lanaldi batek –hori da kontrata daitekeen gutxienezko– 318 euroko kostua dauka familientzat, eta 452 eurokoa, lanaldia 8 ordukoa baldin bada.</p>
Estatua	

11. koadroa. Haurrak beste pertsona batzuen esku utzita zaintzeko gastuak ordaintzeko prestazio ekonomikoak, Europako beste herrialde batzuetan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
Alemania	
Frantzia	<p>Haurrak zaintzeko aukera askeko prestazio osagarria Prestazio honen bidez, zaintzaile batek familiaren etxean edo zaintzaile akreditatu batek (amaren laguntzaile direlakoak) bere etxean 6 urtetik beherako haurrak zaintzearen kostuen zati bat ordaintzen da. Laguntzak zenbateko desberdinak izan ditzake, kontuan hartuta zaintzailea zuzenean kontratatzen den edo enpresa edo elkarte espezializatu baten bidez zeharka kontratatzen den. Laguntza hori jaso ahal izateko, beharrezkoa da lan-harreman jakin bat izatea, kasu zehatz batzuetan izan ezik.</p> <ul style="list-style-type: none"> Zuzeneko kontratazioaren kasuan, laguntzak 84 eurotik 448 eurora bitartekoak dira, kontuan hartuta errenta, haurren adina eta familiaren tamaina. Dena den, ezin dute guztizko kostuaren % 85 gainditu inoiz. Haurrak familiaren etxean zaintzen badira, laguntza bakarra da, zaindutako haurren kopurua edozein izanda ere; amaren laguntzailearengana joz gero, berriz, profesional horrek zaintzen duen seme edo alaba bakoitzeko ematen zaio laguntza familiari. Adibidez, 40.000 euroko diru-sarrerak eta 3 urtetik beherako seme edo alaba bat duen familia batek 282 euro jasoko lituzke. Gainera, gizarte-segurantzaren % 10eko kotizazioa finantzatzen da, amaren laguntzailearen kasuan, eta % 50ekoa, etxeko zaintzailearen kasuan. Prestazioa ez da bateragarria eszedentziagatik diru-laguntzekin. Zeharkako kontratazioaren kasuan, seme edo alaba bakoitza zaintzeagatik laguntzak 226 eurotik 819 eurora bitartekoak dira, kontuan hartuta familia-errenta, haurren adina, familiaren tamaina eta jasotako zerbitzu-mota. Dena den, ezin dute guztizko kostuaren % 85 gainditu inoiz. Haurrak familiaren etxean zaintzen badira, laguntza bakarra da, zaindutako haurren kopurua edozein izanda ere; amaren laguntzailearengana joz gero, berriz, profesional horrek zaintzen duen seme edo alaba bakoitzeko ematen zaio laguntza familiari. Adibidez, 40.000 euroko diru-sarrerak eta 3 urtetik beherako seme edo alaba bat duen familia batek 565 euro jasoko lituzke hilean, zaintzaileak familiaren etxean zaintzen badu haurra, eta 706 euro, haurra zaintzailearen etxera eramaten bada. Prestazioa ez da bateragarria eszedentziagatik diru-laguntzekin.
Italia	
Suedia	<p>Haurrak zaintzeko laguntza Suediak 1-3 urteko haurrak zaintzeko udal-prestazio osagarri bat dauka, eta lan-jarduera bat izatearekin batera daiteke. 329 euro jaso daitezke gehienez hilean haur bakoitzagatik. Haurra eskolaurreko zentro finantzatu batera joaten bada, zenbateko hori murriztu egin daiteke, zentroan ematen duen denboraren arabera.</p>
Norvegia	Ikusi 9. koadroan azaldutako diru-laguntza.

3.5.2. Mantenu-pentsioen aurrerakina

Atal honetan azaltzen da zer laguntza ematen diren aztertutako herrialdeetan eta autonomia-erkidegoetan gurasoen banantze- edo dibortzio-prozesuek ekarritako mantenu-pentsioak aurreratzeko, horretara behartuta dagoen gurasoak ez badu ordaintzen.

12. koadroa. Mantenu-pentsioak aurreratzeko prestazioak autonomia-erkidegoetan eta Estatuan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
EAE	
Katalunia	<p>Ordaindu ez diren mantenu- edo konpentsazio-pentsioak eta -prestazioak finantzatzeko funtsa Pentsioak eta Prestazioak Bermatzeko Funttsaren helburua da konpentsatzea baliabide ekonomiko gutxi dituzten familiek familiako prozedura judizial batean ezarritako pentsioa edo prestazioa jasotzen ez dutenean bizi duten ezegonkortasun ekonomikoa. Alde horretatik, funts horrek aurrerakin bat ematen die pentsio bat kobratzeko eskubidea duten pertsonen, baldin eta hura ordaintzera behartutako pertsonak ez badu ordaintzen.</p> <p>Funtsa 2011n jarri zen martxan, eta honako hauek dira hartzaileak: mantenu- eta/edo konpentsazio-pentsioen onuradun diren pertsonak eta haien seme-alabak –adingabeak edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duten adinez nagusiak–, baldin eta ez bazaizkie ordaintzen judizialki aitortutako pentsio horiek.</p> <p>Prestazio itzulgarriak dira, eta Kataluniako nahikotasun-errentaren adierazlea (IRSC) halako 1,5 baino diru-sarrera baxuagoak dituzten pertsonentzat soilik da, seme edo alaba bakarra edukitzearen kasuan. Funttsak judizialki ezarritako pentsio osoa finantzatzen du, baina IRSCren % 50 izan daiteke gehienez.</p>
Madril	
Nafarroa	

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
Estatua	<p>Mantenu-pentsioak bermatzeko funtsa</p> <p>Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Funtsa, abenduaren 28ko 42/2006 Legeak sortua eta abenduaren 7ko 1618/2007 Errege Dekretuak arautua, nortasun juridikorik gabeko funts bat da, eta haren helburua da banantzearen, dibortzioaren, ezkontza-baliogabetasunaren, seme-alabatasunaren edo mantenuaren kasuan judizialki onartutako hitzarmen batean edo ebazpen judizial batean aitortu zaizkien eta ordaindu ez zaizkien elikagaiak jasoko dituztela bermatzea seme-alaba adingabeiei, aurrerakin-izaera izango duen kantitate bat ordainduz.</p> <p>Aurrerakinak jasotzeko eskubidea izateko, adingabearen familia-unitatearen baliabide ekonomikoek ezin izango dute gainditu diru-sarrereren muga bat. Muga hori kalkulatzeko, aurrerakina eskatzen den unean indarrean dagoen Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) urteko zenbatekoa bider familia-unitatea osatzen duten seme-alaba adingabeen kopuruaren arabera koefizientea egin behar da. Koefiziente hori 1,5 izango da, seme edo alaba bakarra baldin badago, eta 0,25 igoko da seme edo alaba bakoitzeko, behean ikus daitekeen moduan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Seme edo alaba 1: 1,5 x IPREM (aurrerakina eskatzen den unean indarrean dagoena) - 2 seme-alaba: 1,75 x IPREM - 3 seme-alaba: 2 x IPREM - 4 seme-alaba: 2,25 x IPREM <p>Aurrerakina hilean 100 eurokoa izango da onuradun bakoitzeko, ebazpen judizialak hileko kantitate baxuago bat ezartzen ez badu behintzat. Kantitate baxuago bat ezartzen badu, ebazpen judizialak ezarritako zenbatekoa ordainduko da. Aurrerakina 18 hilabetez jaso daiteke gehienez, modu jarraituan nahiz jarraitu gabean.</p>

13. koadroa. Mantenu-pentsioak aurreratzeko prestazioak Europako herrialdeetan

Lurraldea	Prestazioen ezaugarriak
Alemania	<p>Mantenu-pentsioak bermatzeko funtsa</p> <p>Mantenuaren aurrerakinei esker (<i>Unterhaltsvorschussgesetz</i>), Alemanian bizi den edo ohiko bizilekua Alemanian duen guraso ezkongabe batekin bizi diren 12 urtetik beherako haurrei bermatzen zaie mantenuaren gutxieneko bat jasoko dutela, gehienez ere 6 urtean, beste gurasoak ez badu mantenua ordaintzen. Prestazioaren zenbatekoa 180 euro da hilean, seme edo alaba bakoitzeko. Ordainketa hori 72 hilabetez edo 6 urtez jaso daiteke gehienez, eta haurrak 12 urte bete arte betiere.</p>
Frantzia	<p>Mantenu-pentsioak bermatzeko funtsa</p> <p>Mantenuaren aurrerakin moduan ordainketa bat egin behar den kasuetan, 88,88 € jaso daitezke gehienez hilean haur bakoitzeko, eta Familia Aseguruaren Kutxa arduratzen da behar diren kantitateak berreskuratzeko gestioez. Araudian ez da ezarri errentarekin lotutako baldintzarik, laguntza horiek eskuratzeko.</p>
Italia	
Suedia	<p>Mantenu-pentsioak bermatzeko funtsa</p> <p>Estatuak 143 euroko laguntza bat (<i>underhållsstöd</i>) ematen die hilero haurraren zaintza duten guraso ezkongabeiei, guraso arduradunak ez badu ordaintzen mantenu-pentsioa edo ez bada gutxienez ere kantitate horretara iristen. 18 urtera arteko seme-alaben ardura duten gurasoei ematen zaie laguntza hori. Behin adin horretara iritsitakoan, gaztea ikaslea bada, prestazioa jasotzen jarrai dezake, eta prestazioaren titular bihurtzen da.</p>
Norvegia	<p>Mantenu-pentsioak bermatzeko funtsa</p> <p>Zaintza ez duen gurasoak ez badu garaiz ordaintzen haurrari laguntzeko diru-kopurua, mantenuaren aurrerakin bat ematen da; gehienez ere 181 € euro izan daitezke hilean haur bakoitzeko. 18 urte bete arte jaso daiteke prestazioa. Familia guztiei ematen zaie laguntza, errenta-maila edozein dela ere, baina prestazioaren zenbatekoa familiaren diru-sarrereren eta familiako adingabe-kopuruaren baitan dago. 2012an, zenbatekoak 92 eurotik 189 eurora bitartekoak izan dira.</p>

4. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

4.1. Ondorioak


4.1.1. EAEn familiei laguntzeko egiten den gastua Europar Batasuneko herrialdeetan egiten dena baino baxuagoa da, baina Espainian egiten dena baino handiagoa

Familiei laguntzeko politiken gastuari buruz aztertutakoaren arabera, argi dago Euskadik politika horietan egiten duen gastua oso baxua dela, Europar Batasunaren barruan azertu ditugun beste herrialde batzuekin alderatuta. Frantziak, gure ondoko herrialdeak, esaterako, BPGren % 3,68 gastatzen du era horretako politiketan, eta EAEk % 1,34 baino ez. Kontuan hartu dira, bi kasuetan, zerga-sistemaren barruan seme-alabak izateagatik egoten diren zerga-salbuespenen eta zerga-desgrabazioen gastuak, bai eta espezetan ematen diren prestazioak eta zerbitzuak ere, Haur Hezkuntza barne. EAEko sistemak gutxi gastatzen du gizarte-babesean oro har, baina defizita are handiagoa da familiei laguntzeko politiken alorrean; izan ere, oso gutxi garatu da esparru hori –gure herrialdeko ongizate-estatuaren izaera mediterranea dela eta–. Gastuaren ikuspuntutik, EAEn familiei laguntzeko egiten diren politiken beste ezaugarri bat da pisu handia jartzen dutela zerga-gastuetan, eta, zalantzarik gabe, errenta ertain eta altuak dituzten familien onerako eta errenta baxuak dituzten familien kalterako da hori.

Egindako azterketak ez du argi erakusten zer neurritan lepora dakiekeen Euskadiren atzerapen hori EAEko instituzioei, Estatuako instituzioei edo biei. Nolanahi ere, ez zen hori txostenaren helburua. Argi dago, dena den, aztertutako herrialde gehienetan, Estatuak zehazten dituela familiei laguntzeko politikak eta gizarte-segurantzaren kutxek garatzen dituztela politika horiek. Ikuspuntu horretatik, pentsa daiteke Eusko Jaurlaritzak azken urteetan seme-alabak dituzten familiei laguntzeko zenbait planen bidez egin duen gastu handia ez dela nahikoa izan gizarte-segurantzak alor horretan egindako gastu baxua konpentsatzeko; izan ere, gizarte-segurantzaren prestazioak oso baxuak eta oso selektiboak dira, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Nolanahi ere, EAEn egoera oso berezia da Europaren barruan, gastu-mailarik eta ugalkortasun-tasarik baxuenak baititu ELGaren barruko herrialde europarren artetik, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.

2. grafikoa. “Familia eta seme-alabak” funtzioan egindako gizarte-gastuaren eta ugalkortasun-tasaren arteko erlazioa Europar Batasuneko herrialdeetan eta EAEn



Grafikoak argi eta garbi erakusten du erlazio positibo bat dagoela ugalkortasun-tasaren eta familiei laguntzeko politiketan egindako gastuaren artean. Dena den, datu horiek ez dute kausa-erlazio bat adierazten, eta ez dute esan nahi, zenbat eta gehiago gastatu familian, orduan eta handiagoa izango denik ugalkortasun-tasa. Posible izango litzateke kontrakoa gertatzea ere. Argi dagoena da bi elementuek lotura dutela, eta, ugalkortasun-tasa handia izateko –Europako egungo parametroen barruan–, beharrezkoa dela gaur egun EAEn egiten dena baino askoz gizarte-gastu handiagoa egitea.

4.1.2. Prestazio-sistema Espainiako autonomia-erkidegoetakoa baino garatuago dago, baina Europako estandarretatik oso urrun

Aurreko orrialdeetan, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko prestazioak berrikusi ditugu, eta, ikusitakoaren arabera, esan dezakegu aztertutako autonomia-erkidegoek baino politika zabalagoa eta garatuagoa duela Euskadik. EAE da, adibidez, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntza unibertsalei eusten dien autonomia-erkidego bakarra gaur egun. Nolanahi ere, EAEn egoera Europako beste herrialde batzuekin alderatzen badugu, ikus

dezakegu askoz garapen txikiagoa duela, laguntza gutxiago ematen direla, eta, ematen direnean, zenbateko txikiagoa dutela, iraupen laburragoa, eta, askotan, selektiboak direla.

Hurrengo taulan ikus daiteke, modu eskematikoan¹², zer eredu erabiltzen den aztertutako lurralde bakoitzean.

¹² Taularen edukia ahalik eta gehien sinplifikatzeko, prestazio nagusiak eta kasurik adierazgarrienak soilik jaso dira. Adierazitako prestazioa existitzen ez den kasuetan, laukia hutsik utzi da.

13. koadroa. Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko prestazio nagusiak, aztertutako herrialde eta autonomia-erkidegoetan

Lurralde a	Prestazio-mota	Prestazioen ezaugarriak
EAE	Jaiotzagatiko ordainketa bakarra	400 eurotik 900 eurora bitarteko ordainketa bakarreko prestazioa, familiaren errentaren arabera, jaiotza bakoitzagatik 2.000 eurotik 4.000 eurora bitarteko ordainketa bakarreko prestazio ekonomiko unibertsala, familiaren tamainaren eta errentaren arabera, erditze anizkoitzagatik. 1.000 euroko ordainketa bakarreko prestazioa, errenta-maila jakin bat izatearen baitan, guraso bakarreko familietan eta familia ugarietan izandako jaiotzengatik*. 2.565 eurotik 7.689 eurora bitarteko prestazio ekonomikoa, autonomia-erkidegoetakoaren ordezkua, erditze anizkoitzagatik*.
	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntza	400 euroko laguntza unibertsala haur bakoitzaren bigarren urtebetetzean, bi seme-alaba edo gehiago edukiz gero. Hilean 75 euroko laguntza, haurrak zazpi urte bete arte, hiru seme-alaba edo gehiago edukiz gero. Hilean 24 euroko prestazio ekonomiko selektiboa seme-alaba adingabeentzat, gizarte-segurantzak kudeatua*.
	Amatasun-baja	16 asteko amatasun-baja, oinarri arautzailearen % 100ekin*. 13 eguneko aitatasun-baja, oinarri arautzailearen % 100ekin*.
	Eszedentzia-baimena	Lanaldia zortziren batetik erdira bitartean murriztu daiteke haurrak zortzi urte bete arte, eta eszedentzia har daiteke, hiru urtekoa gehienez, haurrak hiru urte bete arte.
	Eszedentziagatiko prestazioa	Errenta-mailaren baitan ez dauden diru-laguntza unibertsalak. Eszedentziaren kasuan, urtean 3.255 eurokoa edo hilean 271 eurokoa da laguntza.
	Haurrak zaintzeko prestazioa	Kontratututako zaintzaileen gizarte-segurantzako kotizazioak ordaintzeko laguntzak. Zenbatekoa gizarte-kostuen % 69tik % 93ra bitartekoa da, familia onuradunaren errentaren arabera. Diru-laguntzak 0-3 urteko haurrentzako zentro pribatuentzat eta udal-zentroentzat eta haurrak zentro horietara eramaten dituzten errenta baxuko familientzat.
	Mantenu-pentsioen aurrerakina	Mantenu-pentsioak bermatzeko Estatuko funtsa. 100 euro aurreratzen dira hilean, eta aurrerakina 18 hilabetez jaso daiteke gehienez. Errenta baxuko familientzat (IPREM halako 1,5, seme edo alaba bakarraren kasuan) soilik da laguntza*.
Kataluni a	Jaiotzagatiko ordainketa bakarra	663 eurotik 3.264 eurora bitarteko ordainketa bakarreko prestazio ekonomiko unibertsala, familiaren tamainaren eta errentaren arabera, erditze anizkoitzagatik. 1.000 euroko ordainketa bakarreko prestazioa, errenta-maila jakin bat izatearen baitan, guraso bakarreko familietan eta familia ugarietan izandako jaiotzengatik*. 2.565 eurotik 7.689 eurora bitarteko prestazio ekonomikoa, autonomia-erkidegoetakoaren ordezkua, erditze anizkoitzagatik*.
	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntza	Hilean 53 euroko laguntza, errenta-mailaren baitan, haurrak hiru urte bete arte. Hilean 24 euroko prestazio ekonomiko selektiboa seme-alaba adingabeentzat, gizarte-segurantzak kudeatua*.
	Amatasun-baja	16 asteko amatasun-baja, oinarri arautzailearen % 100ekin*. 13 eguneko aitatasun-baja, oinarri arautzailearen % 100ekin*.
	Eszedentzia-baimena	Lanaldia zortziren batetik erdira bitartean murriztu daiteke haurrak zortzi urte bete arte, eta eszedentzia har daiteke, hiru urtekoa gehienez, haurrak hiru urte bete arte.
	Eszedentziagatiko prestazioa	
	Zaintza informaletarako prestazioa	Diru-laguntzak 0-3 urteko haurrak hezteko zentroentzat, eta hobari oso edo partzialak, titulartasun publikoko haur-etxeen kuotetan, errenta baxuko familientzat.
	Mantenu-pentsioen aurrerakina	Mantenu-pentsioak bermatzeko Estatuko funtsa. 100 euro aurreratzen dira hilean, eta aurrerakina 18 hilabetez jaso daiteke gehienez. Errenta baxuko familientzat (IPREM halako 1,5, seme edo alaba bakarraren kasuan) soilik da laguntza*.

Lurraldea	Prestazio-mota	Prestazioen ezaugarriak
		Pentsioak aurreratzeko Kataluniako funtsak ordaindu gabeko zenbateko osoa finantzatzen du (Kataluniako errenta-adierazlearen % 50era arte gehienez). Estatuan egiten den moduan, errenta baxua (Kataluniako errenta-adierazlea halako 1,5 baino diru-sarrera baxuagoak) duten familiei ematen zaie aurrerakina.
Madril	Jaiotzagatiko ordainketa bakarra	1.000 euroko ordainketa bakarreko prestazioa, errenta-maila jakin bat izatearen baitan, guraso bakarreko familietan eta familia ugarietan izandako jaiotzengatik*. 2.565 eurotik 7.689 eurora bitarteko prestazio ekonomikoa, autonomia-erkidegoetakoaren ordezkua, erditze anizkoitzagatik*.
	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntza	Hilean 24 euroko prestazio ekonomiko selektiboa seme-alaba adingabeentzat, gizarte-segurantzak kudeatua*.
	Amatasun-baja	16 asteko amatasun-baja, oinarri arautzailearen % 100ekin*. 13 eguneko aitatasun-baja, oinarri arautzailearen % 100ekin*.
	Eszedentzia-baimena	Lanaldia zortziren batetik erdira bitartean murriztu daiteke haurrak zortzi urte bete arte, eta eszedentzia har daiteke, hiru urtekoa gehienez, haurrak hiru urte bete arte.
	Eszedentziagatiko prestazioa	
	Zaintza informaletarako prestazioa	0-3 urteko haurrak eskolatzeko diru-laguntzak, familia eskatzailearen errenta-mailaren eta ezaugarri soziodemografikoen baitan.
	Mantenu-pentsioen aurrerakina	Mantenu-pentsioak bermatzeko Estatuko funtsa. 100 euro aurreratzen dira hilean, eta aurrerakina 18 hilabetez jaso daiteke gehienez. Errenta baxuko familientzat (IPREM halako 1,5, seme edo alaba bakarraren kasuan) soilik da laguntza*.
Nafarroa	Jaiotzagatiko ordainketa bakarra	2.503 euroko ordainketa bakarreko prestazio ekonomiko selektiboa, hirugarren seme edo alaba izaten denetik aurrera. 1.000 euroko ordainketa bakarreko prestazioa, errenta-maila jakin bat izatearen baitan, guraso bakarreko familietan eta familia ugarietan izandako jaiotzengatik*. 2.565 eurotik 7.689 eurora bitarteko prestazio ekonomikoa, autonomia-erkidegoetakoaren ordezkua, erditze anizkoitzagatik*.
	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntza	Hilean 34 euroko diru-laguntza selektiboa, lau seme-alaba edo gehiago dituzten familientzat, seme-alabek 18 urte bete arte. Hilean 24 euroko prestazio ekonomiko selektiboa seme-alaba adingabeentzat, gizarte-segurantzak kudeatua*.
	Amatasun-baja	16 asteko amatasun-baja, oinarri arautzailearen % 100ekin*. 13 eguneko aitatasun-baja, oinarri arautzailearen % 100ekin*.
	Eszedentzia-baimena	Lanaldia zortziren batetik erdira bitartean murriztu daiteke haurrak zortzi urte bete arte, eta eszedentzia har daiteke, hiru urtekoa gehienez, haurrak hiru urte bete arte.
	Eszedentziagatiko prestazioa	Eszedentziagatiko diru-laguntzak bigarren semetik edo alabatik aurrera ematen dira, bi ezkontideak lanean ari badira, eta laguntzaren zenbatekoa 417 euro da hilean (5.004 euro urtean). Eszedentzia hori haurraren bizitzako lehenengo urtean jaso daiteke, edota lehenengo hiru urteetan, baldin eta hirugarren haurra bada edo bigarrenak % 25etik gorako minusbaliotasun bat baldin badauka. Aitak hartzen badu eszedentzia, laguntzaren zenbatekoa hilean 600 eurokoa da.
	Zaintza informaletarako prestazioa	Familiaren etxean lan egiten duten zaintzaileak kontratatatzeko laguntzak. Laguntzek kostuaren % 20 ordaintzen dute, gizarte-segurantzako kotizazioak barnean hartuta, eta gehienez 180 euro jaso daitezke hilean. Gainera, Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak ematen ditu haurrak zaintzailearen etxean zaintzeko programaren gastuen zati bat ordaintzeko.
	Mantenu-pentsioen aurrerakina	Mantenu-pentsioak bermatzeko Estatuko funtsa. 100 euro aurreratzen dira hilean, eta aurrerakina 18 hilabetez jaso daiteke gehienez. Errenta baxuko familientzat (IPREM halako 1,5, seme edo alaba bakarraren kasuan) soilik da laguntza*.
Alemania	Jaiotzagatiko ordainketa bakarra	210 euroko ordainketa bakarra jaiotza bakoitzagatik, amatasunagatiko prestazioa jasotzeko eskubiderik ez daukaten pertsonentzat.
	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntza	Laguntza unibertsala familiaren ardurapean dagoen seme edo alaba bakoitzagatik, 18 urte bete arte. Seme edo alaba bakarra edukiz gero, oinarritzko zenbatekoa 184 euro da hilean. Baliabide ekonomiko gutxiko familien kasuan, zenbatekoari 140 euro gehitzen zaizkio, laguntzeko osagarri baten bidez.

Lurraldea	Prestazio-mota	Prestazioen ezaugarriak
	Amatasun-baja	14 asteko amatasun-baja, soldataren % 100ekin. Bi eguneko aitatasun-baimen ordaindua.
	Eszedentzia-baimena	36 hilabeteko eszedentzia (hiru urte).
	Eszedentziagatiko prestazioa	<i>Elterngeld</i> izeneko prestazioa 12 hilabetez jaso daiteke gehienez, haurrak 14 hilabete bete arte. Aurreko soldataren % 67 izaten da laguntza, eta gutxienez 300 eurokoa eta gehienez 1.800 eurokoa izaten da. Prestazio hori ez da bateraezina lanaldi partzialeko lan-jarduera bat (30 ordura arte astean) egitearekin, eta errenta-mailaren baitan dago, nahiz eta atalasea oso altua den.
	Zaintza informaletarako prestazioa	
	Mantenu-pentsioen aurrerakina	Prestazioaren zenbatekoa 180 da hilean seme edo alaba bakoitzeko, eta 72 hilabetez jaso daiteke gehienez, haurrak 12 urte bete arte.
Frantzia	Jaiotzagatiko ordainketa bakarra	907,6 euroko prestazio selektiboa, diru-sarrera mailaren baitan.
	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntza	Laguntza unibertsala, bigarren semetik edo alabatik aurrera. Bi seme-alaba izanez gero, 126 euro jasotzen dira hilean, eta, hirugarrenetik aurrera, modu proportzionalan areagotzen da zenbateko hori. Prestazioa semeak edo alabak 20 urte bete arte luzatzen da, eta zenbatekoak adinaren eta jaiotegunaren arabera egokitzen dira.
	Amatasun-baja	16 asteko amatasun-baja, oinarri arautzailearen % 100ekin. 11 eguneko aitatasun-lizentzia ordaindua.
	Eszedentzia-baimena	Sei hilabetetik urtebetera bitartean, haurraren adinaren arabera, hiru urte bete arte.
	Eszedentziagatiko prestazioa	<i>Jardueraren aukera askeko osagarriak</i> lan-jarduera osorik edo zati batean eteteko aukera ematen du. Sei hilabetekoa da lehenengo semearen edo alabaren kasuan, eta 3 urtera artekoa bigarrenetik aurrera. Zenbatekoa 151 eurotik 560 eurora bitartekoa da hilean, kontuan hartuta zenbateraino eten den jarduera eta ardurapean dagoen seme edo alaba bakoitzagatik diru-laguntzarik jasotzen den edo ez. Gainera, gaixorik dauden edo desgaitasunen bat duten haurrak zaintzeko prestazio espezifiko bat dago.
	Zaintza informaletarako prestazioa	Zaintzaile batek familiaren etxean edo zaintzaile profesional batek bere etxean 6 urtetik beherako haurrak zaintzearen kostuen zati bat ordaintzen du haurrak zaintzeko aukera askeko prestazio osagarriak. Familiak zuzenean kontratatzen bada zerbitzua, laguntza 84 eurotik 448 eurora bitartekoa da, eta zerbitzuaren kostuaren % 85 izan daiteke gehienez. Enpresa edo elkarte baten bidez kontratatzen bada zerbitzua, laguntza 226 eurotik 819 eurora bitartekoa da.
	Mantenu-pentsioen aurrerakina	88,8 euro ematen dira hilean haur bakoitzeko.
Italia	Jaiotzagatiko ordainketa bakarra	
	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntza	Diru-laguntza selektiboak ematen dira seme-alabak adinez nagusiak izan arte. Zenbatekoa errenta-mailaren arabera da, eta, errentarik baxuenen kasuan, 258 euro dira hilean. Hilean 316 euroko udal-subsidio bat, aurrekoarekin bateratu ezin daitekeena, haurrak bost hilabete bete arte.
	Amatasun-baja	Bost hilabeteko baimena, aurreko soldataren % 80ekin.
	Eszedentzia-baimena	Hamar hilabete haurraren lehenengo zortzi urteetan, eta hamaika hilabetera arte luzatzen da, aitak gutxienez ere hiru hilabete hartzen baditu.
	Eszedentziagatiko prestazioa	
	Zaintza informaletarako	

Lurraldea	Prestazio-mota	Prestazioen ezaugarriak
	prestazioa	
	Mantenu-pentsioen aurrerakina	
Suedia	Jaiotzagatiko ordainketa bakarra	
	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntza	Seme edo alaba bakoitzagatiko prestazio unibertsala (<i>Barnbindrad</i>). Haurrak 16 urte bete arte ematen da. Lehenengo semearen edo alabaren kasuan, 115 euro ematen dira; bigarrenaren kasuan, berriz, 131 euro.
	Amatasun-baja	Amatasun-baimena 50 egunekoa da erditzearen aurretik eta 480 egunekoa (68 aste) erditzearen ondoren, soldataren % 80ekin. Aitatasun-baimena 10 egunekoa da. Prestazio gehigarri bat dago, haurdunaldian zehar fetuarentzat arriskutsuak diren lanak egin behar direnean bajak ordaintzeko (<i>havandeskapspenning</i>).
	Eszedentzia-baimena	
	Eszedentziagatiko prestazioa	Suediak aldi baterako laguntza bat du gaixotasun-egoerarako. 12 urtera arteko haurren gurasoei ematen zaie, lanaldia eteten badute. Eszedentzia gehienez ere 120 egunez eska daiteke urtean seme edo alaba bakoitzeko, eta lanaldia partzialki eten izana estal dezake. Zenbatekoa gaixotasunagatiko prestazioaren % 80 da.
	Zaintza informaletarako prestazioa	Gehienez 329 euroko prestazioa 1-3 urteko haurrentzat, eta murriztu egiten da haurra Haur Hezkuntzako zentro batera joaten bada.
	Mantenu-pentsioen aurrerakina	Hilean 143 euroko laguntza, haurrak 18 urte bete arte.
Norvegia	Jaiotzagatiko ordainketa bakarra	4.526 euroko ordainketa bakarra jaiotzagatik, baldin eta ezin bada amatasun-baja hartu.
	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntza	Hilean 125 euroko prestazio unibertsala seme edo alaba bakoitzeko, haurrak 18 urte bete arte. Toki batzuetan, 41 euroko osagarri bat gehitzen zaio, eta guraso bakarreko familientzako osagarri bat ere badago.
	Amatasun-baja	47 asteko baimena (11 hilabete) soldataren % 100ekin, edo 57 astekoa, soldataren % 80ekin. Denbora-tarte horretatik, aitak hamabi aste hartu behar ditu nahitaez, diru-sarreraren % 100ekin.
	Eszedentzia-baimena	
	Eszedentziagatiko prestazioa	1-3 urteko haurren gurasoei haurrak zaintzeko laguntza (<i>kontantstotte</i>) ematen zaie, eta ez da beharrezkoa eszedentzia hartu izana. Prestazioa 23 hilabetez jaso daiteke gehienez, eta 88 eurotik 443 eurora bitartekoa da, kontuan hartuta haurra Haur Hezkuntzako zentro batera joaten den edo ez.
	Zaintza informaletarako prestazioa	Ikusi aurreko puntua.
	Mantenu-pentsioen aurrerakina	Laguntza hilean 181 eurokoa da gehienez, eta haurrak 18 urte bete arte jasotzen da. Zenbatekoa errentaren araberakoa da.

Oharra: autonomia-erkidegoen kasuan, * ikurra duten prestazioak Estatuaren eskumenekoak dira.

Honako ondorio hauek atera daitezke aurreko koadrotik:

- Estatuko politikek baldintzatzen dituzte, neurri handi batean, Euskadin familiei laguntzeko aplikatzen diren politikak; izan ere, Estatuak arautzen ditu amatasunagatiko eta aitatasunagatiko baimenak eta eszedentziak, bai eta amatasunagatiko eta ardurapeko seme-alabengatiko prestazio ekonomikoak ere. Nahiz eta autonomia-erkidegoetako politikek gero eta garrantzi handiagoa duten familiei laguntzeko esparruan, oraindik ere eragin gutxi dute, gastuaren ikuspuntutik behintzat.
- Esparru horren barruan, Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko prestazioak kontuan hartuta, esan daiteke Euskadin bizi diren familiek Italian edo Espainiako beste autonomia-erkidegoetan bizi direnek baino onura gehiago jasotzen dituztela familiei laguntzeko politiketatik.
- Alemaniarekin, Frantziarekin, Suediarekin eta Norvegiarekin alderatzen badugu, ordea, EAeko egoerak ezaugarri hauek ditu:
 - Europaren erdialdeko herrialdeetako antzeko amatasun-bajak ditu, baina herrialde eskandinaviarretakoak baino motzagoak. Euskadiko amatasun-baja – Estatuko legediaren arabera zehaztua– 16 astekoa da, Italiakoaren eta Frantziakoaren antzera, baina Suediakoa (68 aste) eta Norvegiakoa (47 aste soldataren % 100ekin edo 57 aste soldataren % 80ekin) baino motzagoa.
 - Eszedentziagatiko laguntzen zenbatekoa baxuagoa da. Amatasun-bajen iraupenaren ondorioz, herrialde eskandinaviarrek ez daukate eszedentziagatiko prestazio ekonomikorik, zentzu hertsian. Alemanian, berriz, 12 hilabeteko laguntza bat ematen da (*elterngehd*), soldataren % 67 bermatzen duena (300 euro gutxienez), eta Frantzian jardueraren aukera askeko osagarriak hilean 560 eurora arteko laguntzak ematen ditu. EAEn, eszedentziagatiko diru-laguntzak 271 eurokoak dira hilean.
 - Ez dago ardurapeko seme-alabengatiko aldizkako prestazio unibertsalik. Ardurapeko seme-alabengatiko aldizkako prestaziorik ez edukitzea da, ziur asko, EAEn eta aztertutako herrialdeen arteko desberdintasunik handiena. Prestazio bakarrak honako hauek dira: gizarte-segurantzak finantzatzen duena (guztiz selektiboa da eta zenbatekoa oso baxua da) eta EAEn hiru seme-alaba

edo gehiago dituzten familiei ematen zaiena. Laguntza horren iraupena (haurrak 7 urte bete arte) eta zenbatekoa (75 euro hilean, seme-alaba guztiengatik) Europan aplikatutakoen oso bestelakoak dira. Frantziak, Alemaniak, Suediak eta Norvegiak haur bakoitzagatik ematen dituzte laguntzak (Frantzian izan ezik, han bigarren semetik edo alabatik aurrera ematen baita). Laguntza horiek haurrak adinez nagusi izan arte ematen dira normalean, eta, herrialde gehienetan, 125 bat euro izaten dira hilean. Prestazio hori jasotzeko eskubidea unibertsala da aztertutako herrialdeetan, nahiz eta baten batean errenta-mailaren baitan dagoen zenbatekoa¹³.

- Haurrak etxean beste pertsona batzuen esku utzita zaintzea finantzatzeko prestazioak ez daude batere garatuta. Euskadin ez dago, adibidez, Frantzian gertatzen den moduan, prestazio bat zaintzaileak kontratatzearen gastuaren zati bat finantzatzeko –berdin dio zaintzailea hauraren etxera joaten den hura zaintzera edo gurasoek haurrak bere etxean zaintzen dituen zaintzaile profesional akreditatu batengana jotzen duten¹⁴–. Frantziako prestazioa unibertsala da, nahiz eta errenta-mailaren baitan dagoen, eta zenbateko handi samarrak ematen ditu. Suedian, prestazioa 329 eurokoa da hilean, eta, Norvegian, 88 eurotik 443 eurora bitartekoa, kontuan hartuta haurra Haur Hezkuntzako zentro batera joaten den edo ez. Alde horretatik, EAEn ematen diren laguntzek pertsona kontratatuaren gizarte-segurantzaren kostuaren zati bat baino ez dute finantzatzen, errenta-mailaren arabera.
- Haur Hezkuntzako zentroentzako diru-laguntzek pisu handia dute. Beste autonomia-erkidego gehienetan moduan, Euskadik 0-3 urteko haurrak hezten dituzten Haur Hezkuntzako zentroentzako eta haurren familientzako laguntza-ildo bat garatu du. Familientzako laguntzen kasuan, laguntzak selektiboak dira, eta errenta baxuenak dituzten familiei soilik ematen zaizkie.
- Jaiotzagatiko prestazioak garatuago daude. Ez dagoenez ardurapeko seme-alabengatiko aldizkako diru-laguntzarik, Euskadik, Espainia osoaren moduan, jaiotzagatiko ordainketa bakarreko laguntzak ematea erabaki du. Argi dago

¹³ Politika horiek Euskadin aplikatzeak 480 bat milioi euroko gastu gehigarria izango luke; hau da, egungo gastua halako 2,1 gastatu beharko litzateke. Eta, hala ere, BPGrekiko gastuak aztertutako herrialdeen arteko baxuenetakoa izaten jarraituko luke.

¹⁴ Amaren laguntzaile edo eguneko ama direlakoak oso zabaldua daude Europako herrialde gehienetan, eta, bereziki, Frantzian. Zaintzaile profesional akreditatu batek bere etxean haur-talde txiki bat zaintzean datza. Era horretako zerbitzuak dituzte Frantzian (*assistante maternelle*), Suitzian (*mamans de jour*), Alemanian (*tagesmutter*) eta Erresuma Batuan (*child minder*). Espainian, era horretako ekimenak daude Aragoian, Andaluzian, Nafarroan eta EAEn, haur-etxeren programaren bidez.

laguntza horiek askoz neurri txikiagoan finantzatzen dituztela haurren arretaren gastuak.

4.2. Gomendioak

Txosten honetatik bi ondorio atera daitezke nagusiki:

- Ezin dugu esan Euskadi txosten honen bigarren kapituluan aipatu dugun *gizartearen inbertitzen duen ongizate-estatuaren* paradigmarantz iristeko beharrezko diren urrats guztiak egiten ari denik. Alde batetik, nahiz eta EAEko instituzioek ahalegin handia egin duten azken urteetan, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politiketarako gastua oso baxua da oraindik. Beste alde batetik, politika horiek bigarren mailan daude oraindik gizarte-babeserako gastu osoaren barruan, eta itxuraz beste herrialde batzuetan lortzen ari diren garrantzirik urrun.
- EAEko prestazioen eta zerbitzuen eredu oso gutxi garatuta dago aztertutako herrialde gehienetakoarekin alderatuz gero (Frantzia, Alemania, Suedia eta Norvegia, zehazki). Alde horretatik, herrialde horien aldean, EAEko sistemak zenbait desberdintasun ditu: ez dauka ardurapeko seme-alabengatik aldizkako prestazio ekonomiko unibertsalik; eszedentziak eta lanaldi-murrizketak hartzerantz bultzatzen duten prestazio ekonomikoaren zenbatekoak oso baxuak dira; eta beren etxean nahiz haurren etxean lan egiten duten zaintzaileak kontratatzen laguntzeko prestazioak oso ahulak dira.

Argi dago egungo egoera ekonomikoak ez duela uzten izugarri aldatzen gaur egun EAEn familiei laguntzeko erabiltzen diren politikak, alor horretarako erabiltzen den gastu publikoa izugarri handitzea ekarriko lukeelako aldaketa horrek. Nolanahi ere, zenbait gomendio egin daitezke egungo testuinguruan, epe ertainera aplikatzeko, egoera ekonomikoak horretarako aukera ematen duen heinean:

- Ikuspuntu orokor batetik, beharrezkoa da EAEn aplikatzen den gizarte-babeserako ereduaren orientazioa aldatzea, eta gizarte-inbertsioaren estatuaren paradigma hartzea irizpide orokor gisa. Horrek esan nahi du, alde batetik, familiei laguntzeko politikak bultzatu behar direla, eta, bestetik, gizarte-babeserako politikak eraginkortasunaren aldetik

ebalatu behar direla eta gizarte osoarentzat onuragarrienak direnei eman behar zaiela lehentasuna.

- Ikuspuntu espezifikoko batetik, hiru alderditan egin beharko lirateke aurrerapenak:
 - Ardurapeko seme-alabengatik aldizkako diru-laguntza bat sortu beharko litzateke pixkanaka-pixkanaka, haurrak 16 urte bete arte emango dena gutxienez, eta, era berean, jaiotzagatiko ordainketa bakarrek laguntzak kendu beharko lirateke. Hauda, jaiotzagatiko laguntza zehatzen eredu aldea batera utzi eta ardurapeko seme-alabengatik aldizkako diru-laguntza unibertsalak eman beharko lirateke. Aldaketa horren bidez, EAEn familiei laguntzeko erabiltzen diren politikak aztertutako herrialdeetakoekin homologatuko lirateke. Aztertu beharko litzateke ea laguntzak bigarren seme edo alaba izaten denetik aurrera ematen diren eta zenbatekoa errentaren baitan jartzen den, Frantzian bezala, baina familia guztiarentzako gutxienezko laguntza bat jarrita, errenta edozein dela ere.
 - Eszedentziagatik diru-laguntzen zenbatekoa handitu beharko litzateke, eta, Alemanian gertatzen den moduan, aurreko soldataren bi heren finantzatu beharko litzateke eta gutxienez ere hamabi hilabetez jasotzeko beharko litzateke, haurrak hiru urte bete aurretik.
 - Haurraren etxean edo beren etxean lan egiten duten zaintzaileak kontratatzeko diru-laguntzak bultzatu beharko lirateke, Frantzian aplikatzen den ereduari jarraituz.
 - Kendu egin beharko lirateke hautaketa-irizpideak haurrak 0-3 urtekoentzako zentroetan eskolatzeko banakako diru-laguntzetatik.
 - Zerga-salbuespenen eta zerga-desgrabazioen politikak berriz planteatu beharko lirateke, helburu horietarako zuzeneko prestazio ekonomikoak ezarri ahala.

BIBLIOGRAFIA

- Bartik, T.J.** Distributional effects of early childhood programs and business incentives and their implications for policy. Seria: Upjohn Institute Working Papers, 09.-151. zk. Kalamazoo, Upjohn Institute for Employment Research, 2009, 66. or.
- Barnett, W.S.** Research on the benefits of preschool education: securing high returns from preschool for all children. New York, National Institute for Early Education Research, 2006, 25. or.
- Blum, S. eta Rille-Pfeiffer, C.** Major trends of state family policies in Europe. Working report (April 2010). Seria: Existential Field, 3. zk. Brusela, Family Platform, European Commission, 2010, 86. or.
- Chauffaut, D. eta Boyer, D.** Retombées économiques des politiques d'accueil de la petite enfance. Quelques approches récentes. *Politiques Sociales et Familiales*, 99. zk., 2010, 89.-96. or.
- Esping-Andersen, G.** A child-centred social investment strategy. *In: Why we need a new welfare state.* New York, Oxford University Press, 2002, 26.-67. or.
- Esping-Andersen, G.** Un nuevo equilibrio de bienestar. *Política y Sociedad*, 44. lib., 2. zk., 2007, 11.-30. or.
- Esping-Andersen, G. eta Palier, B.** Familia y revolución del papel de la mujer. *In: Los tres grandes retos del estado del bienestar.* Barcelona, Ariel, 2010, 126. or.
- Esping-Andersen, G.** The incomplete revolution. Adapting to women's new roles. Cambridge, Policy Press, 2009, 214. or.
- Gault, B. eta Lovell, V.** The costs and benefits of policies to advance work/life integration. *American Behavioral Scientist*, 49. lib., 9. zk., 2006, 1152.-1164. or.
- Gauthier, A.H.** The impact of the economic crisis on family policies in the European Union. Brusela, European Commission, 2010, 18. or.
- Gíslason, I.V. eta Eydal, G.B. (ed.).** Parental leave, childcare and gender equality in the Nordic countries. Kopenhagen, Nordic Council of Ministers, 2011, 182. or.
- Heckman, J.J.** Skill formation and the economics of investing in disadvantaged children. *Science*, 312. zk., 2006, 1.900.-1.902. or.
- Heckman, J. et al.** The dollars and cents of investing early: cost-benefit analysis in early care and education. *Zero to Three*, July, 2006, 10.-17. or.
- Heckman, J.J. eta Masterov, D.V.** The productivity argument for investing in young children. Chicago, Committee for Economic Development, 2004, 93. or.
- Jenson, J.** Redesigning citizenship regimes after neoliberalism: moving towards social investment. *In: Towards a social investment welfare state? Ideas, policies and challenges.* Bristol, Policy Press, 2012, 61.-87. or.
- Karoly, L.A. eta Bigelow, J.H.** The economics of investing in universal preschool education in California. Santa Mónica, RAND Corporation, 2005, 238. or.

Letablier, M.T. et al. The costs of raising children and the effectiveness of policies to support parenthood in European countries: a literature review. Brusela, European Commission, 2009, 164. or.

Martínez, M.J. La política familiar como instrumento de igualdad: distintas concepciones europeas. *Lan Harremanak*, 18. zk., 2008, 43.-79. or.

Morel, N. et al. Beyond the welfare state as we knew it?. *In: Towards a social investment welfare state? Ideas, policies and challenges.* Bristol, Policy Press, 2012, 1.-87. or.

Morel, N. (ed.). Towards a social investment welfare state? Ideas, policies and challenges. Bristol, Policy Press, 2012, 386. or.

Morgan, K.J. Promoting social investment through work family policies: which nations do it and why?. *In: Towards a social investment welfare state? Ideas, policies and challenges.* Bristol, Policy Press, 2012, 153.-179. or.

Mujica, R. et al. Out-of-home day care for families living in a disadvantaged area of London: economic evaluation alongside a RCT. *Child: Care, Health and Development*, 32. lib., 3. zk., 2006, 287.-302. or.

Organisation for Economic Co-Operation and Development. Doing better for families. Paris, Organisation for Economic Co-operation and Development, 2011, 275. or.

Stevens, M. et al. Research review: economic evidence for interventions in children's social care: revisiting the what works for children project. *Child and Family Social Work*, 15. lib., 2. zk., 2010, 145.-154. or.

Warner, M.E. (Not) valuing care: a review of recent popular economic reports on early education in the U.S. Ithaca, Cronell University, 2008, 23. or.

Wendt, C. et al. Welfare states and public opinion. Perceptions of healthcare systems, family policy and benefits for the unemployed and poor in Europe. Cheltenham, Edward Elgar, 2011, 200. or.

Zubiaur, J.M. Hacia un nuevo modelo de protección a las familias en España. Madril, Ministerio de Trabajo e Inmigración, 2008, 327. or.

METODOLOGIA-OHARRA

ESSPROSen “familia eta seme-alabak” funtzioaren barruko prestazioen definizioa¹⁵

- Ama izatean errentei eustea. Gizarte-segurantzako sistemak, enpresek eta administrazio publikoek langileei ordaintzen dieten amatasunagatiko prestazioaren gastua jasotzen du. EAEren kasuan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak familia eta lana bateragarri egiteko ematen dituen diru-laguntzak ere sartzen dira.
- Gurasotasun-baimena. 2007. urtetik aurrera, aitatasunagatiko prestazio ekonomiko berriaren gastua jasotzen da. Txostenean, “dirutan emandako beste prestazio batzuk” atalean sartu da gastu hori.
- Ardurapeko seme-alabengatiko familia-laguntza. Gizarte-segurantzako sistemaren eta funtzionarioen gizarte-babeserako sistemen familia-laguntzak jasotzen ditu. Familia-laguntzak baliabideen baitan daude, % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten seme-alaben kasuan izan ezik. Araubide komuna duen lurralderako, 2003. urtetik aurrera, 3 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta etxetik kanpo lan egiten duten emakumeei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan amatasunagatik egindako kenkariak gehitu dira. EAEren kasuan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak jaiotzagatik eta/edo ardurapeko seme-alabengatik ematen dituen diru-laguntzak gehitzen dira atal honetan.
- Jaiotza-subsidioa. Barnean hartzen ditu hirugarren semea edo alaba edo hurrengoren bat jaiotzeagatiko edo adoptatzeagatiko prestazioak, familia ugariak, guraso bakarreko familiek eta ama desgaituek izandako jaiotzengatiko edo adopzioengatiko prestazioak, erditze edo adopzio anizkoitzengatiko prestazioak eta, 2007. urtetik aurrera, seme edo alaba bat jaiotzeagatiko edo adoptatzeagatiko prestazio ekonomiko berria.
- Dirutan emandako beste prestazio batzuk. Aurrekoetan sartzen ez diren prestazioak hartzen ditu barnean; oro har, enpresek langileei ordaintzen dizkietenak eta aurrez aipatu dugun aitatasun-baimena.

¹⁵ Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. 2010eko estatistika-urtekaria.

- Espezietan emandako prestazioak. Gizarte-zerbitzuen bidez familiei ematen zaizkien prestazioak sartzen dira espezietan emandako prestazioen barruan. Autonomia-erkidegoek ematen dituzte prestazio horiek nagusiki. “Haurren eguneko zaintza” izenaren bidez, Hezkuntza Ministerioak eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioek Haur Hezkuntzan egindako gastuak adierazi dira, eta “beste prestazio batzuk” izenaren bidez, berriz, erakunde horiek baliabideen arabera emandako bekak, nagusiki.

I. ERANSKINA

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA


FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKAK EUOPAR BATASUNEAN ETA EAE-N

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

EUSKADIK “FAMILIA ETA SEME-ALABAK” FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERAREN DATUAK

- 2008an, EAEk 368 milioi euro gastatu ditu “familia eta seme-alabak” funtzioan; hau da, 172 euro biztanleko.
- “Familia eta seme-alabak” funtzioan egindako gastua BPGren %0,54 da, eta gizarte-babesean egindako gastu osoaren %2,76.
- 2000. urtetik, alor horretan egindako gastua hirukoiztu egin da, euro korrontetan neurtzen badugu; BPGren ehunekotan neurtzen badugu, berriz, bikoiztu egin da, eta igoera horren zatirik handiena 2005. urtetik aurrera gertatu da.

1. grafikoa. EAEk “familia eta seme-alabak” funtzioan egindako gastuaren bilakaera (BPGren ehunekotan eta gizarte-babeserako gastuaren ehunekotan)



1. taula. EAEk “familia eta seme-alabak” funtzioan egindako gastuaren bilakaera (milioika eurotan, biztanleko eurotan, BPGren ehunekotan eta gizarte-babeserako gastuaren ehunekotan)

	1995	1997	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Euroak, milioitan	63,9	83,6	99,5	110,2	130,4	137,5	156,3	168,1	201,6	249,7	305,2	368,0
Euroak, biztanleko	30,0	39,8	47,4	52,5	62,1	65,5	74,4	79,7	95,5	118,0	143,6	172,5
BPGren %	0,22	0,26	0,26	0,26	0,30	0,30	0,32	0,32	0,35	0,40	0,46	0,54
GB gastuaren %	1,15	1,35	1,47	1,50	1,63	1,60	1,69	1,70	1,89	2,20	2,49	2,76

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA


EUSKADIK "FAMILIA ETA SEME-ALABAK" FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERAREN DATUAK

- Familian egiten den gastua gizarte-babesean egiten den guztizko gastuaren proportzio txiki bat baino ez den arren, azken urteetan gehien hazi den gastuetako bat da.
- 2000. urtetik 2008. urtera bitartean, EAEko BPG %63 hazi zen, termino nominaletan, eta gizarte-babes osorako gastua, %80. Familian egindako gastua, berriz, %234 hazi zen, normalean gasturik handiena izaten duten partidak baino askoz gehiago; hau da, osasun-arreta eta zahartzaroa baino askoz gehiago.
- Dena den, badira are gehiago hazi diren partidak ere, hala nola etxebizitza, gizarte-bazterketa eta biziraupenerako pentsioak.

2. taula. EAEk 2000. urtetik 2008. urtera bitartean gizarte-prestazioetan egindako gastuaren igoera erlatiboa, funtzioka

	BPG	Gaixotasuna/ osasun-arreta	Baliaezin tasuna	Zahartzar oa	Biziraupe na	Familia eta seme- alabak	Langabez ia	Etxebizitz a	Gizarte- bazterketa
EAE	63,1	88,3	54,6	46,7	432,1	234,0	67,2	1144,1	284,6
Araba	61,9	91,3	84,0	70,4	442,1	202,5	86,5	586,7	262,1
Gipuzkoa	60,0	91,3	55,7	51,0	419,4	250,5	72,9	1362,4	251,3
Bizkaia	65,6	85,7	47,2	38,8	437,7	232,7	59,8	1570,8	301,4

2. grafikoa. EAEk 2000. urtetik 2008. urtera bitartean gizarte-prestazioetan egindako gastuaren igoera erlatiboa, funtzioka





FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

EUSKADIK "FAMILIA ETA SEME-ALABAK" FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERAREN DATUAK

- Aipatu dugun gastu-igoera horretaz gain, tarte horretan gertatutako aldaketarik nabarmenetako bat da murriztu egin dela gizarte-segurantzak finantzatutako gastuaren pisua eta areagotu egin dela gizarte-babeserako beste sistema batzuek finantzatzen duten gastua; bereziki, gizarte-zerbitzuen sistemarena.
- 1995. urtean, adibidez, gizarte-segurantzako sistemak finantzatzen zituen familia funtzioan egindako gastuaren bi heren, eta 2008an ehuneko hori ez da %50era iristen.
- 2000. urtetik 2008. urtera bitartean, %454 hazi da gizarte-segurantzako sistemaren barruan ez dauden instituzioen gastua; gizarte-segurantzak finantzatutakoa, berriz, %254 hazi da.
- 2000. urtetik 2008. urtera bitartean izandako gastu-igoera horren %60 beste instituzio batzuek finantzatutako gastua igo delako izan da, eta gainerako %40a, gizarte-segurantzak finantzatu du.

3. grafikoa. EAEk familian egindako gastuaren banaketaren bilakaera sistemaka, eta 2000. urtetik 2008. urtera bitarteko igoera erlatiboa



FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA


EUSKADIK "FAMILIA ETA SEME-ALABAK" FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERAREN DATUAK

- Txosten honetan adierazi den moduan, ESSPROS estatistikak gutxietsi egin ohi du "familia eta seme-alabak" funtzioan egiten den gastua, "gizarte-bazterketa" funtzioan sartzen duelako EAEko instituzioek eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak, seme-alabak dituzten familiei ematen dizkieten diru-laguntzen zati bat.
- Ondoko taulak Gizarte Babesaren Kontuaren bertsio zuzendu bat erakusten du; izan ere, aurreko koadroetan adierazitako gastuaz gain, adierazten du zer gastu egin den, Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoari buruzko Txostenaren arabera, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzetan, 2002. urtearen ondorengo urteetan. Kantitate handia da (38 milioi euro, 2008an), eta, horrekin, guztizko gastua 368 milioi eurotik 406,2 milioi eurora igarotzen da.
- Zuzenketa horren ondorioz, egoera dezente aldatzen da. Gastua BPGren %0,60 bihurtzen da; biztanle bakoitzeko gastua, berriz, 188 euro, eta ez 172 euro, hasieran agertzen zen moduan. Gizarte-babes osoarekiko, berriz, familian egindako gastua guztizkoaren %3,05 bihurtzen da.
- Gastu osotik gizarte-segurantzari egotzi ezin zaion ehunekoa ere aldatzen da; izan ere, gizarte-segurantzak are pisu handiagoa galtzen du. 2005etik aurrera, gainerako instituzioek egiten duten gastua gizarte-segurantzak egiten duena gainditzen hasten da.

3. taula. EAEk "familia eta seme-alabak" funtzioan egindako gastuaren bilakaera (milioika eurotan, biztanleko eurotan, BPGren ehunekotan eta gizarte-babeserako gastuaren ehunekotan), barnean hartuta Eusko Jaurlaritzak familiei ematen dizkien prestazio ekonomikoen gastua

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Euroak, milioitan	154,1	176,4	190,6	225,3	279,7	341,0	406,2
Euroak, biztanleko	73,1	83,5	90,1	106,0	131,1	159,2	188,3
BPGren %	0,33	0,36	0,36	0,39	0,45	0,51	0,60
GB gastuaren %	1,80	1,91	1,92	2,12	2,46	2,78	3,05

4. grafikoa. EAEk familian egindako gastuaren banaketaren bilakaera



FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

EUSKADIK "FAMILIA ETA SEME-ALABAK" FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERAREN DATUAK

- Ondoko taulak bereizi egiten ditu zuzeneko arretarako zerbitzuen gastua eta prestazio ekonomikoen gastua. Bi gastu-talde handi horien barruan, lau prestazio ekonomiko mota eta beste hainbeste zuzeneko arretarako zerbitzu mota bereizten dira.
- EAEko egoera hobeto adierazteko, taulan kontuan hartu dira bai Gizarte Babesaren Kontuan (ESSPROS) jasotako gastua bai eta Gastu Publikoaren inkestan EAEko instituzioek familiei ematen dizkieten laguntzekin lotuta jasotakoa ere. Laguntza horiek jaiotza-subsidioaren atalean gehitu dira (ikusitxosteneko metodologia-oharra).
- Lehenengo taulan ikus daiteke erditzean errentei eusteko prestazio ekonomikoena dela partidarik handiena. Hor sartzen dira amatasun- eta aitatasun-bajak finantzatzeko gastua eta familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak.
- Bigarren taulan ikus daiteke gastuaren %61 dirutan ematen diren prestazio ekonomikoetarako izan dela, eta %38, espezieetan ematen diren prestazioetarako. Nolanahi ere, azken horiek dira gehien hazi diren prestazioak. Gastuaren %15 ostatu-zerbitzuetarako erabili da (babesik gabe dauden adingabeentzat da nagusiki), eta %16, haurtzaindegietarako.

4. taula. EAEk familian egindako gastuaren bilakaera, milioika eurotan, gastuaren helburuka

		2005	2006	2007	2008	Hazkundera
Dirutan	Ardurapeko seme-	49.665	50.978	52.695	57.155	15,1
	Erditzean errentei eustea	80.695	87.625	106.990	132.154	63,8
	Dirutan emandako beste	3.088	23.879	22.214	15.899	414,9
	Jaiotza-subsidioa	27.865	34.921	42.257	46.022	65,2
	Guztira dirutan	161.313	197.403	224.156	251.230	55,7
Espezieetan	Ostatua	35.787	39.259	50.337	63.231	76,7
	Etxeko laguntza	1.265	1.105	996	940	-25,7
	Haurtzaindegia	24.002	38.997	49.523	66.228	175,9
	Espezieetan emandako beste	2.962	2.907	15.980	24.596	730,4
	Guztira espezieetan	64.016	82.268	116.836	154.995	142,1
Guztira		225.329	279.671	340.992	406.225	80,3

5. taula. EAEk familian egindako gastuaren banaketa bertikalaren bilakaera, ehunekotan, gastuaren helburuka

		2005	2006	2007	2008
Dirutan	Ardurapeko seme-	22,0	18,2	15,5	14,1
	Erditzean errentei eustea	35,8	31,3	31,4	32,5
	Dirutan emandako beste	1,4	8,5	6,5	3,9
	Jaiotza-subsidioa	12,4	12,5	12,4	11,3
	Guztira dirutan	71,6	70,6	65,7	61,8
Espezieetan	Ostatua	15,9	14,0	14,8	15,6
	Etxeko laguntza	0,6	0,4	0,3	0,2
	Haurtzaindegia	10,7	13,9	14,5	16,3
	Espezieetan emandako beste	1,3	1,0	4,7	6,1
	Guztira espezieetan	28,4	29,4	34,3	38,2

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

“FAMILIA ETA SEME-ALABAK” FUNTZIOAN ETA DERRIGORREZKOA EZ DEN HAUR-HEZKUNTZAN (0-6 URTE) EGINDAKO GASTUA: 2007KO EGOERA

- Administrazioek familiei laguntzeko politikan egindako gastua kontuan hartzean, beharrezkoa da gogoan izatea derrigorrezkoa ez den hezkuntzan egindako gastua ere; hau da, Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntzaren aurreko hezkuntza egiten dena, 0-6 urteko haurrekin. EAEn gai horrekin lotutako datu estatistiko gutxiago eskura daitezke; izan ere, Hezkuntzaren Kontuak —barnean hartzen du partida hori— 2001. eta 2007. urteetako datuak soilik ematen ditu Haur Hezkuntzari buruz. Eskuragarri dauden gainerako estatistikek ez dituzte bereizten Haur Hezkuntzako gastua eta Lehen Hezkuntzako gastua, eta, bigarrena derrigorrezkoa denez, ezin da kontuan hartu familiei laguntzeko politikak aztertzean.
- Metodologiarekin lotutako zailtasunak areagotu egiten dira, kontuan hartzen badugu Haur Hezkuntza egiten den gastuaren zati bat jasota dagoela dagoeneko Gizarte Babesaren Kontuan (ESSPROS). Beraz, gastu osoa kontuan hartzean, kendu egin behar dira bi aldiz agertzen diren partidak, ez daitezken bi aldiz zenbatu guztizko gastuan.
- Metodologiarekin lotutako argibide horiek kontuan hartuta, 2007. urtean "familia eta seme-alabak" funtzioan eta derrigorrezkoa ez den Haur Hezkuntza (0-6 urte) egindako gastu osoa erakusten du ondoko taulak. Bertan ikus daitekeenez, guztizko gastua 662 milioi euro da; hau da, BPGren %1 edo 2.076 euro Euskadin bizi den adingabe bakoitzeko.
- Horrez gain, ikus daiteke Haur Hezkuntzaren gastua dela gastuaren zatirik handiena (%56); prestazio ekonomikoak, berriz, gastuaren %33 dira

6. taula. Euskadik familiei laguntzeko politikan egindako guztizko gastua (2007), milaka eurotan, BPGren ehunekotan eta adingabe bakoitzeko

		Euroak, milakotan	BPG	Adingabe bakoitzeko gastua	Gastuaren banaketa
Dirutan	Ardurapeko seme- alabengatiko diru-laguntzak	52.695	0,08	165	8,0
	Erditzean errentei eustea	106.990	0,16	335	16,2
	Dirutan emandako beste prestazio batzuk	22.214	0,03	70	3,4
	Jaiotza-subsidioa	42.257	0,06	132	6,4
	Guztira dirutan	224.156	0,34	703	33,9
Espezietan	Ostatua	50.337	0,08	158	7,6
	Etxeko laguntza	996	0,00	3	0,2
	Haurtzaindegia*	-			
	Espezietan emandako beste prestazio batzuk	15.980	0,02	50	2,4
	Haur Hezkuntza (0-6 urte)	370.652	0,56	1.162	56,0
	Guztira espezietan	437.965	0,66	1.373	66,1
Guztira		662.121	1,00	2.076	100,0

Guk geuk egin dugu, oinarritzat hartuta EUSTATEN Gizarte Babesaren Kontua eta Hezkuntzaren Kontua. *Haurtzaindegietan egindako ESSPROS gastua ez da kontuan hartzen, Haur Hezkuntzaren gastuaren barruan sartzen delako.

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

“FAMILIA ETA SEME-ALABAK” FUNTZIOAN ETA DERRIGORREZKOA EZ DEN HAUR-HEZKUNTZAN (0-6 URTE) EGINDAKO GASTUA: ESPAINIAREKIKO KONPARAZIOA

- Egindako kalkuluei esker, alderatu egin daitezke 2007an EAEn nahiz Estatu osoan familiei laguntzeko politiketan egindako guztizko gastuak.
- EUROSTATen datuen arabera, Espainiak BPGren %0,59 gastatu zuen 2007an Haur Hezkuntzako zerbitzuetan; hau da, 6.213 milioi euro edo 792 euro Espainian bizi den adingabe bakoitzeko.
- Datuak alderatzean, ikus dezakegu EAk BPGrekiko egindako gastua Estatuan egindakoa baino txikiagoa dela prestazio-mota guztietan, baita Haur Hezkuntzan ere. Izan ere, EAEn biztanle bakoitzeko BPGa handiagoa da.
- Nolanahi ere, lurralde bakoitzean bizi den adingabe bakoitzeko gastuaren ikuspuntutik, EAren gastua Estatuak baino handiagoa da, bai guztizko gastuaren aldetik –EAEn 2.076 euro adingabe bakoitzeko eta Estatuan 1.859 euro–, bai eta espezieetan emandako zerbitzuen aldetik ere. Azpimarratu behar da, bestalde, Euskadin gastuaren %66 erabiltzen dela espezieetan ematen diren zerbitzuetarako edo zuzeneko arretako zerbitzuetarako, eta Estatuan, %61.
- Azkenik, azpimarratu behar da Espainiaren kasuan gastu handia egiten dela “dirutan emandako beste prestazio batzuk” eta “espezieetan emandako beste prestazio batzuk” ataletan, eta EAEn, berriz, gutxi gatzatzen dela era horretako prestazio orokorretan. Azpimarratu behar da, halaber, Estatuan gastu handiagoa egiten dela, bai BPGrekiko bai eta han bizi den adingabe bakoitzeko ere, ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntzetan. Diru-laguntza horiek selektiboak dira eta gizarte-segurantzak kudeatzen ditu.

7. taula. Euskadik eta Espainiak familiei laguntzeko politiketan egindako guztizko gastua (2007), milaka eurotan, BPGren ehunekotan eta adingabe bakoitzeko

		EAE		Espainia	
		BPG	Adingabe	BPG	Adingabe
Dirutan	Ardurapeko seme-alabengatiko diru-laguntzak	0,08	165	0,17	231
	Erditzean errentei eustea	0,16	335	0,17	223
	Dirutan emandako beste prestazio batzuk	0,03	70	0,14	190
	Jaiotza-subsidioa	0,06	132	0,06	75
	Guztira dirutan	0,34	703	0,54	719
Espezieetan	Ostatua	0,08	158	0,09	117
	Etxeko laguntza	0,00	3	0,00	5
	Hurtzaindegia*	–	–	–	–
	Espezieetan emandako beste prestazio batzuk	0,02	50	0,17	226
	Haur Hezkuntza (0-6 urte)	0,56	1.162	0,59	792
	Guztira espezieetan	0,66	1.373	0,85	1.140
Guztira		1,00	2.076	1,38	1.859


Guk geuk egin dugu, oinarritzat hartuta EUSTATen Gizarte Babesaren Kontua eta Hezkuntzaren Kontua, EUROSTAT eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren gizarte-babeserako kontu bateratuak. *Hurtzaindegietan egindako ESSPROS gastua ez da kontuan hartzen, Haur Hezkuntzaren gastuaren barruan sartzen delako.

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA


EUSKADIK “FAMILIA ETA SEME-ALABAK” FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIKO ETA EUROPAR BATASUNeko BESTE HERRIALDE BATZUEKIKO KONPARAZIOA

- Eusko Jaurlaritzak seme-alabak dituzten familiei laguntzeko ematen dituen prestazio ekonomikoen gastua gehitzen duten zuzenketak kontuan hartzen baditugu ere, familian egindako gastua BPGrekiko kalkulatzeko bada, ikus daiteke –2008ra arte gutxienez– Euskadiko administrazio publikoen ahalegina Europako beste herrialde batzuen baina askoz txikiagoa zela, bai eta Estatu osoan egiten dena baino txikiagoa ere. Dena den, garrantzitsua da adieraztea, aurreko taulek ez bezala, grafiko hauek ez dutela kontuan hartzen haurren arretarako gastua, eta, beraz, gizarte-babesari buruzko estatistiketan gehitutako gastua soilik adierazten dutela.
- Herrialde aurreratuenek BPGren %2,5etik %3ra bitartean gastatzen dute prestazio horietan; Estatu osoak %1,36 baino ez, eta EAEEK, berriz, %0,6 baino ez. Aztertutako lurraldeen artean, Nafarroak soilik gastatzen du gutxiago BPGrekiko.
- Gastua BPGrekiko aztertu beharrean, gizarte-babeserako gastu osoarekiko aztertzen badugu ere, egoera oso antzekoa da. Euskadik gizarte-babeserako gastu osoaren %3,05 erabiltzen du funtzio horretarako, eta EB 27k eta Norvegiak, adibidez, %8 eta %12,6 erabiltzen dute, hurrenez hurren.

5. grafikoa. 2008an “familia eta seme-alabak” funtzioan egindako gastua, herrialdeka (BPGren ehunekotan)



6. grafikoa. “Familia eta seme-alabak” funtzioan egindako gastua, herrialdeka (gizarte-babeserako gastuaren ehunekotan)




FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA


EUSKADIK “FAMILIA ETA SEME-ALABAK” FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIKO ETA EUROPAR BATASUNeko BESTE HERRIALDE BATZUEKIKO KONPARAZIOA

- Aldeak ez daude, ez behintzat funtsean, EAEn biztanle bakoitzeko BPGa Europar Batasunean edo Espainian baino handiagoa izatearen baitan. Gastua erosteko ahalmenaren parekotasunetan (PPS) kalkulaten badugu ere, ikus dezakegu aztertutako lurraldeen artean azkenetarikoa dela EAE.
- Erosteko ahalmenaren parekotasun-unitateetan, EAEn gastua 211 eurokoa da biztanle bakoitzeko, EB 15en batezbestekoaren %36. Frantziak, Alemaniak, Suediak eta Norvegiak 600 eurotik 1.300 eurora bitartean gastatzen dute gutxi gorabehera; hau da, Euskadik gastatzen duena halako hirutik halako seira bitartean.
- 8. grafikoan ikus daitekeen moduan, Euskadik Europar Batasunak baino BPG-proportzio txikiagoa erabiltzen du gizarte-babesaren prestazio guztietarako – langabeziarako eta biziraupenerako izan ezik-. Baina, hain zuzen ere, familiaren eta etxebizitzaren funtzioetan dago alderik handiena.
- Adibidez, EAEk Europar Batasuneko batezbestekoaren %75 inguru gastatzen du zahartzaroaren funtzioan, eta %83 gizarte-bazterketan, baina familiaren alorrean EB 27ren batezbestekoaren %30 baino ez du gastatzen, gastua BPGrekiko neurtuta.

7. grafikoa. Familia funtzioan egindako gastua PPStan biztanleko, eta EB 15eko batezbestekoarekiko proportzioa



8. grafikoa. EB 27k eta EAEk 2008an gizarte-babesean egindako gastua funtzioa (BPGren ehunekotan), eta EAEren gastuaren ehunekoa Europar Batasunaren batezbestekoarekiko



FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

EUSKADIK “FAMILIA ETA SEME-ALABAK” FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIKO ETA EUROPAR BATASUNEN BESTE HERRIALDE BATZUEKIKO KONPARAZIOA

- 8. taulan, Europar Batasuneko herrialde guztiek (eta Suitzak eta Norvegiak) familiei laguntzeko politiketan egiten duten guztizko gastua agertzen da. Gastu horren barruan haurren arretarako zerbitzuen gastua gehitu da, eta ESSPROSek haurren eguneko arretari esleitzen dion gastua kendu da, 6. taulan EAerako eta Espainiarako egin den moduan.
- Taulak erakusten duenez, EAEn haurren arretarako zerbitzuak finantzatzeko egiten den ahalegina kontuan hartuta ere (BPGren %0,5 baino zertxobait gehiago, esan dugun moduan), gastu osoa aztertzen badugu, Europar Batasuneko herrialdeen artean azkenetarikoa dago Euskadi (gastua BPGrekiko aztertzen bada behintzat bai).
- Oro har, EAEk familiei laguntzeko politiketan egiten duen gastu osoa (BPGren %1) ez da iristen EB 15eko herrialdeek egindako ahaleginaren %50era ere; izan ere, herrialde horiek BPGren %2,25 erabiltzen dute prestazio eta zerbitzu horietarako.
- Nolanahi ere, datuek adierazten dute prestazio ekonomikoen kasuan Europar Batasuneko batezbestekoarekiko aldea askoz handiagoa dela zerbitzuen kasuan baino, EAEn derrigorrezkoa ez den eskola-etapa finantzatzeko egiten den gastuaren ondorioz. Zehazki, dirutan ematen diren prestazioen gastua EB 15eko batez besteko gastuaren %24 da; espezieetan ematen diren prestazioen gastua, berriz, gastu horren %78.

8. taula. Europar Batasuneko herrialdeek familiei laguntzeko politiketan egindako gastua, BPGren ehunekotan (2007)

	Gastua	Guztira	Guztira		Gastua	Guztira	Guztira
Hungaria	3,64	2,26	1,39	Eslovakia	2,02	1,41	0,60
Danimarka	3,04	1,48	1,56	Errumania	1,90	1,03	0,87
Frantzia	2,96	1,99	0,97	Bulgaria	1,89	0,84	1,05
Alemania	2,86	2,03	0,83	Eslovenia	1,81	1,22	0,59
Luxenburgo	2,79	2,66	0,13	Letonia	1,80	0,97	0,83
Austria	2,78	2,22	0,56	Estonia	1,78	1,32	0,46
Belgika	2,71	1,68	1,03	Erresuma	1,69	1,13	0,56
Suedia	2,59	1,49	1,10	Lituania	1,68	0,84	0,84
Irlanda	2,58	2,31	0,27	Herbeherea	1,60	0,61	1,00
Norvegia	2,43	1,36	1,07	Italia	1,54	0,71	0,83
Finlandia	2,29	1,51	0,78	Suitza	1,48	1,06	0,42
Zipre	2,26	1,64	0,62	Portugal	1,39	0,73	0,66
EB 15	2,25	1,40	0,84	Espainia	1,38	0,54	0,85
Islandia	2,25	1,41	0,84	Grezia	1,31	0,99	0,32
Malta	2,23	0,94	1,30	Polonia	1,29	0,79	0,50
Txekia	2,11	1,44	0,67	EAE	1,00	0,34	0,66

Guk geuk egin dugu, oinarritzat hartuta EUSTATen Gizarte Babesaren Kontua eta Hezkuntzaren Kontua, EUROSTAT eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren gizarte-babeserako kontu bateratuak. *Haurtzaindegietan egindako ESSPROS gastua ez da kontuan hartzen, Haur Hezkuntzaren gastuaren barruan sartzen delako.

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

EUSKADIK “FAMILIA ETA SEME-ALABAK” FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIKO ETA EUROPAR BATASUNeko BESTE HERRIALDE BATZUEKIKO KONPARAZIOA

- Familietan egiten den gastu publikoa aztertzeko beste modu bat da zerga-gastua ere kontuan hartzea; hau da, kontuan hartzea zer kenkari eta zer zerga-desgrabazio aplikatzen dituen zerga-sistemak, familiei laguntzeko tresna gisa (seme-alabengatikoen kenkarien formularen bidez eta halakoen bidez).
- EAeren kasuan, garrantzitsua da era horretako zerga-gastuak kontuan hartzea; izan ere, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Planaren memoriaren arabera, EAEko foru-ogasunek 237 milioi euro gastatu zituzten guztira, 2008an, familiei laguntzeko politiketan (egia esan, ez zituzten gastatu, kobratu gabe utzi baizik, kantitate horiek PFEZen aitortpenetik deskontatzen baitira).
- Gastu hori kalkulatzeko, honako hau gehitu zaie aurrez jasotako datuei: zer zerga-gastu egiten duten, ELGAren arabera, Europako herrialdeek, familiei laguntzeko politikekin lotura zuzena duten zerga-salbuespenetan eta zerga-arinketetan. EAerako, aurreko tauletan jasotako datuak erabili dira, eta, zerga-gasturako, Familia Planaren memorian adierazitakoak.
- Gastu hori kontuan hartuta ere, gastu osoaren batuketa BPGrekiko egiten bada, aztertutako herrialdeen artean azkenetarikoa egongo litzateke EAE familiei laguntzeko politiketan, askoz garapen-maila baxuagoa duten herrialdeen atzetik.

9. taula. Familia funtzioan egindako gastu publikoa herrialdeka eta gastu-motaka (dirutan, espezetan, zerga-desgrabazioak eta guztizkoa), BPGren ehunekotan (2007)

	Prestazioak dirutan	Zerbitzuak	Zerga-desgrabazioak	Guztira
Alemania	2,03	0,83	0,88	3,74
Frantzia	1,99	0,97	0,72	3,68
Belgika	1,68	1,03	0,58	3,29
Danimarka	1,48	1,56	0,00	3,04
Austria	2,22	0,56	0,04	2,82
Luxenburgo	2,66	0,13	0,00	2,79
Irlanda	2,31	0,27	0,11	2,69
Suedia	1,49	1,10	0,00	2,59
Txekiar Errepublika	1,44	0,67	0,47	2,58
Norvegia	1,36	1,07	0,10	2,53
Herbehereak	0,61	1,00	0,85	2,45
Eslovakia	1,41	0,60	0,41	2,43
Finlandia	1,51	0,78	0,00	2,29
Erresuma Batua	1,13	0,56	0,33	2,02
Polonia	0,79	0,50	0,50	1,79
Espainia	0,54	0,85	0,24	1,62
Suitza	1,06	0,42	0,14	1,62
Portugal	0,73	0,66	0,17	1,56
Italia	0,71	0,83	0,00	1,54
EAE	0,34	0,66	0,34	1,34

Iturria: guk geuk egin dugu, oinarritzat hartuta EUSTAT, EUROSTAT eta ELGA.

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

EUSKADIK “FAMILIA ETA SEME-ALABAK” FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIKO ETA EUROPAR BATASUNeko BESTE HERRIALDE BATZUEKIKO KONPARAZIOA

- Guztizko gastua BPGren oso zati txikia izateaz gain, EAEk familian egiten duen gastuaren berezitasun bat da zerga-arinketek pisu handia dutela guztizko gastu horretan.
- Poloniak eta Holandak soilik jotzen dute proportzio handiagoan zerga-arinketetara, familiei laguntzeko paketea osatzean. Dena den, azpimarratu behar da, ikuspuntu horretatik, dirutan ematen diren prestazioek oso pisu gutxi dutela EAEn (hori guztiz koherentea da herrialde bakoitzeko prestazio-sistemaren deskribapenarekin), eta zuzeneko arretarako zerbitzuek, berriz, pisu handia, Haur Hezkuntzako zerbitzuetan egiten den gastu handia dela eta.

10. taula. Familia funtzioan egindako gastu publikoaren banaketa herrialdeka eta gastu-motaka (dirutan, espeziatan, zerga-desgrabazioak eta guztizkoa) (2007)


	Prestazioak	Zerbitzuak	Zerga-
Alemania	54,3	22,1	23,5
Frantzia	54,2	26,2	19,6
Belgika	51,1	31,3	17,6
Danimarka	48,8	51,2	0,0
Austria	78,7	19,9	1,4
Luxenburgo	95,4	4,6	0,0
Irlanda	85,7	10,2	4,1
Suedia	57,6	42,4	0,0
Txekiar Errepublika	55,7	26,1	18,2
Norvegia	53,9	42,1	4,0
Herbehereak	24,7	40,6	34,7
Eslovakia	58,3	24,9	16,9
Finlandia	66,1	33,9	0,0
Erresuma Batua	55,9	27,8	16,3
Polonia	44,3	27,9	27,9
Espainia	33,0	52,3	14,8
Suitza	65,3	26,1	8,6
Portugal	46,9	42,2	10,9
Italia	46,0	54,0	0,0
EAE	25,4	49,3	25,4

FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

EUSKADIK "FAMILIA ETA SEME-ALABAK" FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIKO ETA EUROPAR BATASUNeko BESTE HERRIALDE BATZUEKIKO KONPARAZIOA

- 9. grafikoan ikus daiteke zer bolumen gastatzen duten guztira, BPGrekiko, txosten honetan jasotako herrialdeek, eta zer pisu duten herrialde bakoitzean gastuaren osagaiek.

9. grafikoa. Familia funtzioan egindako gastu publikoa herrialdeka eta gastu-motaka (dirutan, espezieetan eta zerga-desgrabazioak), BPGren ehunekotan (2007)



FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUA

EUSKADIK “FAMILIA ETA SEME-ALABAK” FUNTZIOAN EGINDAKO GASTUA: BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIKO ETA EUOPAR BATASUNEKO BESTE HERRIALDE BATZUEKIKO KONPARAZIOA

- Azkenik, adierazten da zer erlazio dagoen familia funtzioan egindako gastuaren (barnean hartzen ditu zerga-desgrabazioak eta Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzaren aurreko zerbitzuak) eta Europar Batasuneko herrialde bakoitzaren ugalkortasun-tasaren artean.
- Grafikoak argi eta garbi erakusten du erlazio positibo bat dagoela ugalkortasun-tasaren eta familiei laguntzeko politiketan egindako gastuaren artean. EAEn egoera argi dago; izan ere, aztertutako herrialde guztien artetik ugalkortasun-tasarik baxuena du, bai eta familian BPGrekiko gasturik baxuena ere.
- Dena den, datu horiek ez dute kausa-erlazio bat adierazten, eta ez dute esan nahi, zenbat eta gehiago gastatu familian, orduan eta handiagoa izango denik ugalkortasun-tasa. Posible izango litzateke kontrakoa gertatzea ere. Argi dagoena da bi elementuek lotura dutela, eta, ugalkortasun-tasa handia izateko –Europako egungo parametroen barruan–, beharrezkoa dela gaur egun EAEn egiten dena baino askoz gizarte-gastu handiagoa egitea.

10. grafikoa. “Familia eta seme-alabak” funtzioan egindako gizarte-gastuaren eta ugalkortasun-tasaren arteko erlazioa Europar Batasuneko herrialdeetan

